

JAKIN

euskal KANTA BERRIA

J. A. Artze G. Knörr
J. R. Beloki X. Lete
L. Iriondo I. Zubizarreta
Idazkaritza

1937-1977: Gramsci-ren urtea
Gerra aurreko euskal «herese» bat
Euskal liburugintzaz gogoetak
Alfabetatze-Euskalduntzea

Urria
Abendua

4

1977

Ekologiatik ere Autonomiara • U.Z.E.L.: Unibertsitate
Zerbitzuotarako Euskal Ikastetxea • Ingalaterrako bel-
tzak • «Eusko Ikaskuntza» • Euskal Unibertsitateaz

Zuzendaritza: Luis Antonio Bilbao Monasterio (kazetaria), Joan Mari Torrealdy

aurkibidea

	Zenbaki honetan	3
GURE ERITZIZ	Euskal Kanta, heldutasun bidean	5
EUSKAL KANTA BERRIA	Gorka Knörr Euskal kanta berriaren historiaz	8
	Xabier Lete Kanta Berria, erresistentzi abestia	16
	Luis Iriondo Etxaniz Euskal Kanta Berriari hurbilketa kritikoa	29
	Joxe A. Artze Kanta Berria aztertzen	45
	Jose R. Beloki Kanta Berriaren ingurumaria	51
	Iñaki Zubizarreta Kanta Berria bidegurutzean	59
	Idazkaritza Bibliografia	65

ORAIN ETA HEMEN	UZEI: Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Ikas- tetxea (Joseba Intxausti). «Eusko Ikaskuntza» berriz? (Joan Altzibar). Ingalaterrako beltzak: Karnabalaren azpian drama soziala (P. Kor- tabarria). Ekologiatik ere Autonomiara (Joan M. Torrealday) 67	67
GAIAK	Manolo Pagola Gerra aurreko euskal «herese» bat 74	74
	Joxe Azurmendi 1937-1977: Gramsci-ren urtea 83	83
LIBURUAK	Joxe A. Otaegi Euskal liburugintzaz gogoeta inprobisatuak 97	97
KULTUR BIDEETAN	Pedro M. Legarreta, «Albaro» Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren orai- naz... eta geroaz 102	102
GUTUNAK	Kepa Etxeberria-ri Euskal Unibertsitateaz (Alfon- so Irlgoyen) 109	109

Idazkaritza eta administrazioa	Soldadu kalea / Cuartel, 2 Tolosa (Gipuzkoa)
Jabegoa	Analdia, Arantzazu
Dep. Leg.	S. S. 25/1977

ZENBAKI HONETAN

Hona hemen *Jakin* aldizkari berrituaren laugarren zenbakia. Zenbakiz zenbaki langintza ezberdinari heldu izan diogu. Zenbaki honetaz, lehenengo urtea betetzen dugu. Euskal kanta berriaren fenomenoaz aztertzen dugu oraingoan. Euskarari, euskal kulturari eta herriaren burrukari kanta berriak eskaini dion laguntza ukaezina da. Gai hau aztertzeko, protagonista eta eza-gutzaile zenbait bildu dugu.

Kanta berriaren historiaz arduratu da Gorka Knörr, haserako zenbait puntu, belaunaldien eta taldeen sorrera eta joerak azpimarkatuz.

Xabier Letek, euskal kantaren mugimendu osoaren azpiko intentzioak, politikazko oinharriak, kantarien eboluzio eta burruka ideologikoa, herriaren eta kantarien arteko harremanak.

Luis Iriondok, kanta berriaren mugimendua epez epe harturik, garai bakoitzeko lorpenak eta hutsak kontsideratzen ditu; eta azkenean, egiazko kantaritza on bat nahi bagenu, geureganatu beharko genituzkeen balioak, osakuntzak, bide berriak.

Kanta honen berritasuna zertan den aztertzen du Joxe Antonio Artzek, eta, gero. pausa gehiagoz, mugimendu honen azterketa estetikoan gelditzen da.

Kantaren ingurura ere itzuli bat egin nahirik, Jose Ramon Belokik honen azpiegitura, disketxeen hauzia, jaialdien funtzioa eta funtzionaketa, iratiaren laguntza aztertu ditu.

Eta azkenik, Iñaki Zubizarretak, orain arte egindakoari kritika egin ondoren, geroari buruz norabide berri batzu markatzeari ekiten dio arretaz.

Bestetan bezala, monografia osatzeko eta burutzeko, biblio-

grafia ematen dugu. Baina oraingoan artikuluak besterik ez dugu jaso, euskal kantari buruz ez bait dago libururik, guk eza-
utzen dugunik behintzat.

Orain eta hemen sailean, gure gizartearen eta kulturaren ingurunea ukitzen duen zenbait arazo eman nahi izan dugu, la-
burki bederen, gogoeta luzeagoen aurrelan gisa.

Gaiak saila mardulxeago ematen dugu oraingoan. Bi gai dira. Lehenengoan, gerra aurreko euskal gizarteak bazterturik utzi zuzen gizon baten eta honen obraren berri ematea da Manolo Pagolaren intentzioa. Bigarrenean, Gramsciren heriotzaren 40 urte direla eta, Joxe Azurmendik marxismoaren teoriko honen teoriaren azalpen bat eskaintzen digu, eta ondoriobidez edo, eus-
kal ezkerren azterketa larri bat.

Liburuak izeneko sailak ere badu oraingoan nobedaderik. Li-
buruak beranduegi iritsirik, Ibon Sarasolak ez du berea buru-
zerik izan. (Bestalde, sail honek birplanteaketarik ere beharko
du, seguruenik). Oraingo zenbaki honetan, bada, J. A. Otaegik
liburugintzaz prestaturiko gogoeta suelto batzu aurkezten di-
tugu.

Kultur bideetan deitu sailean, kultur bide minenetako bat
plazaratzen dugu, Alfabetatze-Euskalduntzea. Mugimenduaren
bizitasunaren adierazgarri apartak dira aurkezten diren datuak,
xifrak, beren soilean berez mintzatzen direnak. Alfabetatzeko
Buruzagitzako Pedro Mari Legarretak gertutu du lana.

Gutunak sailean, Euskal Unibertsitatea dela eta beste gutun
bat ateratzen dugu, Alfontso Irigoienena hau.

Euskal Kanta, heldutasun bidean

Euskal kanta heldutasunera iritsi bide da. Azken 12-15 urte hauetan hazkuntza bizia izan du, eta zein emankorra! Ez da egongo euskal herririk jaialdiren bat izan ez duenik. Irrati bidez eta kantarien mugikortasunari esker, Euskal Herriko bazter guztietara iritsi da euskal kanta.

*Eta kantarekin batera euskal kultur mugimendua. Kanta da, izan ere, mugimendu horren barruan Euskal Herriak izan duen komunikabiderik arinena, zuzenena. Hitz idatzia-
ren aldean —liburua, prentsa— abantail handia du kantak: denetan ulerterrazena bera da. Hortxe dagoke haren arrakastaren arrazoirik nagusienetako bat. Eta horri esker egin ahal izan du, hein batetan bederen, euskal kulturaren herritartzea.*

Elkarri lagunduz jo dute aurrera politikak, kulturak, kantak, eta enparauak. Kantaren fenomeno hau ez da berarizko sorkuntza bat edo «generación espontánea» delako gertatua izan. 1960 inguru hartan gainerako kultur- eta politik bideak jaio ziren kontzientzia berarekin sortu zen kanta ere. Gorputz hartuz joan ahala erantsi zitzaizkion programak, orduan antolatu ziren taldeak eta kantaldiak. Alor guztietan berdín gertatu da gure artean, eta ezin zitekeen agian bestela izan. Gerra ostea zen, baina gerra hotzaren garaia, politika zanpatzailearen aldía. 1960-1970 hamarraldian, izan ere, dena batera sortzen dela ematen du: politik taldeak, liburuen ugaltzea, aldizkarien berritzea, ikastola, alfabetatzea, bertsolaritzaren indartzea, herri irratiak, kanta... Militante askoren fruitu da hau denau, herri mugimendu indartsu baten adierazgarri eta eragile.

Ez zegoen bide eginik. Bidea berak ireki beharrean aurkitu zen kanta ere, nahiz eta Euskal Herriak horren tradizio musikal handia ukan. Izan ere, kanta modu honen mezua, tradizionala ez baino gaur gaurkoa zen, inguruetik zuzenean jasoa, herri burrukari lotua; erreibindikapena zen kanta honen helburua; eta kantaren modua eta lekua aurrekoengandik arras bestelakoak ziren: taldea ez baino gitarradun abeslari soila nagusitu zen; eta areto aurrez prestatuetan ez baino zegoen azpiegituraz baliatuz plaza-ratzen zen, frontoi, eliza, elizpe eta zelai, nonahi. Jendearen bila joan izan da kantaria, jende hori zegoen lekura joan ere. Herrira bertara. Eta herria bereganatu du, ez da zalantzarik. Kantariok, denbora berrietako bertsolari bailiran onhartu zituen publikoak, publiko gazteak bereziki.

Kanta berriaren historiak ere agerl-agerian ditu errespasioaren markak. Kontaezinak dira debekaturiko jaialdia, dozenaka abestu ezin izan diren letrak. Zentsura eta eragozpenak alde guztietatik. Traba hauetan ezin liteke aipatu gabe utz, kantaldiak muntatzeko behar diren baimenen mekanismo luze eta konplikatuak. Hitzak ahuldu eta herriarekiko kontaktoa erre egin nahi zuen Gobernuak. Eta kontrakoa lortu du.

Eta aurrerantzean zer?

Gure herria bizimolde berritan abiatu nahirik denez, euskal kanta ere bide berri bila hasi beharrean aurkitzen da. Hasia da jadanik. Orain artean, hitzak izan du garrantzia kanta berrian: hitzak erabaki ohi zuen euskal kanta zein zen, mezuaren funtzioan bide zegoen kanta. Musika-ren kaltetan sarri. Hemendik aurrera, kantaren hedadura guztiak hobeki zaindu beharko dira. Esan nahi bait da, hitzak, doinua, interpretazioa eta jendearen aurrekoa. Orain arteko berdinkeria edo uniformismoaren aurka, kantagaiak, kantamotak eta kantaldiak desberdinduz, diferentziatuz, aberastuz joan beharko dute. Herri prozesoen murgildurik, eta hori potentziatzen egon nahi badu. Erresistentzi abesti hutsez ezin gaiteske konforma, abagadune berritan: biziera osoaren adierazgarri behar du kantak, gai ugariagoak kantara ekarriz. Publikoaren aurrerako formula berriak aurkitu behar ditu kantariak: badago eredurik munduan eta gure tradizio herritarrean.



gorka knörr
xabier lete
luis iriondo etxaniz
joxe a. artze
jose r. beloki
iñaki zubizarreta
idazkaritza

EUSKAL KANTA BERRIA

Euskal Kanta Berriaren historiaz

Haserak. Haserako kantarien jokamoldea. Epe nagusiak. Kantari «historikoak» eta gazteak. Hauen eta haien joerak.

Kanta Berria, erresistentzi abestia

Kanta eta politika. Herriarekiko eta politikarekiko lotura. Mezuak. Funtzio politikoa. Jaialdiak: motak, eboluzioa.

Euskal Kanta Berriari hurbilketa kritikoa

Kanta. Euskal kanta. Euskal kanta 1965-1975. Euskal kanta gaur eta bihar. Hurbilketa kritikoak.

Kanta Berria aztertzen

Kanta berriaren berritasuna eta berezitasuna. Kanta berria kultur mugimenduan. Kanta berriaren tematika eta estetika.

Kanta berriaren ingurumaria

Diskagintza: zenbakiak eta motak. Diskaetxeak: Cinsa, Hegosa, Artezi, eta kanpokoak. Kantaldiak. Irratiak.

Kanta Berria bidegurutzean

Azken bi urteen ekarria, kritika, azterketa. Kanta eta politika. Abiapuntu berriak.

Bibliografia

Euskal Kanta Berriaren Historiaz

Gorka Knörr

Haserak

Edozein mugimenduk, noski, badu bere hasera. Baina zaila izaten da beti nola hasi den zehaztatzea. Guk ikusten dugun errealitatearen barruko baldintzak oso desberdin eta era askotakoak bait dira. Azken finean ere, gitarra lagun duela kantatzen ikusten dugun gizona, egoeraren beste erakusgarri bat gehiago besterik ez da.

Kondaira-datuei begiratuz, gure lehen kantaria, Iparraldetik etorri zitzaigun. Badirudi euskal kantak ere, bere hasera horretan, aintzinako beste mugimendu kulturalen arabera jokatu nahi izan zuela: gogora ditzagun Detxepare, Axular eta beste batzu.

Gure lehen kantaria Michel Labegerie izan zen¹. Zergatik izan zen, hori beste kontu bat da. Beste herri-kanta mugimendu batzutan antzeko zerbait gertatu da. Beti aitzindari bat izan da. Raimon, Stivell eta abar. Eta Raimon, Stivell eta horik «zergatik» hasi ziren beren hizkuntzaz kantatzen galdetzerakoan, ez da erantzun zehatzik jasotzeko modurik izaten. Haseretan, «kantatu» egi-

ten da. Kontzientziaz geroago dator. Eta kantatzen haste horrek, kasu bakoitzean, bere alde edo sahiets partikularrak ditu. Raimonek berak aitortzen zuen, bere herriko irrati batetan lan egiten zuela, eta musika asko entzuten zuela. Musika asko entzuten zuenak ezagutzen ahal zituen, esate baterako, Ipar eta Hego Ameriketako protesta-kanta, edo eta Frantzia gerra bitartean eta gerra ostean sortu eta landu zen literatur kanta. Michel Labegiereren ondotik kantatzen hasi zirenak, musika-mota horietaz kutsatuta zeuden, eta gainera, Kataluniako «Cançó» delakoa hasita zegoen.

Hori esan genezake musik iturburuen aldetik. Gero, noski, bazeuden beste arrazoi batzu. Ez da ahaztu behar, euskal kanta jaiotzen deneko urte horien inguruan, beste gauza batzu jaiotzen direla beste arlo batzutan. Politik mailan, ETArek haserak dira. Kultur mailan, ikastolak... Badirudi urte horietan Euskal Herria, beldurrez jositako lozorrotik esnatzen hasten zaigula.

Luze joko liguke, haserako euskal kantarien hastapenak banan banan aztertzeak. Liburu bat osatzeko² ainako materiala badago horretan. Egia esan, ez dakit zergatik ez den oraindik osatu (honek beste arazo batetara eramango gintuzke, prentsa-arazo larritara, hain zuzen).

* * *

Mikel Laboa, esate baterako, Zaragozan zegoen Midikuntz ikasketak egiten. Hego Ameriketako folklorezale sutsua zen, eta Yupanki eta abarren abestiak kantatzen zituen. Baina euskal ikasleen artean zegoen giroak eraman zuen euskal arlora. Ikasketetako lagun batek utzitako diska batez hasi zen «Bereterretcheren kanthoria» ikasten. Eta «Osasuna»k Zaragozan jokatzeko egun batez, «Hogar Navarro» delakoak antolaturiko jaialdi batetan (Teatro Argénsola-n) kantatu zuen lehendabiziko aldiz Mikel Laboak, 1963.ean.

Modu batera edo bestera, besteak ere hasi ziren. Lurdes Iriondok, gaixorik egonki, etxean ikasten zuen gitarra jotzen, eta Juan Mari Lekuonak euskarara itzultitako kanta batzu zituen bere errepertorioan: («Noches de Moscú», «Gaztetxo naiz» *No tengo edad*, Gigliola Cinquetti-rena). Egun batez, norbaitek entzun zion, eta Andoaingo ikastolaren aldeko jaialdi batetan parte hartzeko eskatu. Eta horrela hasi zen.

Ez da ahaztu behar Nemesio Etxanizek eduki zuen garrantzia. 1951. urtean *Kanta kantari* kantutegia argitaratu zuen. Oilar goiztarra benetan.

Letek *Garaia* aldizkarian idatzi zuen idazlan batetan, garrantzi handia ematen zion Etxanizen lanari. Beharbada, bere kantu-tegia argitaratu zuenean ez zuen Etxanizek bere kreatibitateak merezi zuen erantzunik jaso, baina horren lana ez zen alferrikakoa gertatu, handik urte batzutara beste batzuk hartu bait zioten segida haren idejari, Euskal Herriko egoerak planteatzen zituen beharrei hobekiago erantzunez.

Hasera nahasi honetan, jende asko hasi zen kantatzen. Fenomeno hau Katalunian ere gertatu zen, eta urteak joan ahala, kantatzen lan egiteko asmo sakonik ez zutenek edo eta balio handirik ez zutenek utzi egingo zuten. (Edo laguntzarik izan ez zutenek ere).

Jende askok, esan dudan bezala, kantatzen zuen haseran. «Contrapuntos», «Argoitia anai-arrebak», «Soroak» eta beste asko eta askok. Edozeinek kantatzen zuen. Honen adibide garbi bat emateko, aipa dezagun «Zintzoak» bikotea. Bikote horretako lagun bat, Athletic futbol taldeko Ortuondo zen. Horrekin dena esanda dagoela uste dut.

Epe nagusiak

Euskal kantagintzaren epe nagusiak zehaztu behar izatekotan, nik bi emango nituzke.

Lehenengoa, gutxi gora behera, «Ez dok amairu» taldearen inguruan jardun ziren kantariak —ez denek— osatuko lukete. Lurdes Iriondo, Maite Idirin, Julen Lekuona, Joxe Angel Irigaray, Estitxu, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Pantxo eta Pello, Etxamendi eta Larralde, Oskarbi, Antxon Valverde, Xabier Lete, Juan Miguel Irigaray, eta abar. Hauek, beste musika tresnagile eta euskal artista batzurekin, osatu zuten euskal kantaren lehen epe nagusi hori, «Ez dok amairu» taldearen inguruan —gehienbat— gertatu zena.

Xabier Letek, (*Deia*, Irailaren 14ean) hiru epe nagusi bereizten ditu. «Oskorri» taldea lehen epe nagusian sartzen du. Ni, berriz, bigarren epe batetan sartzen nau. Ez dut uste, kronologikoki behintzat, onhar dezakedanik. Egia da, 1974. urtean eza-gutarazi nuela neure burua jaialdian gehienbat. Baina nere lehen jaialdia, Gasteizen, 1971. urtean eman nuen («Pertur»ekin batera, bera izan bait zen bi urtez nire gitarrista). Gainera, «Oskorri», talde bezala, geroagoko fenomeno da.

Bigarren epean, jende asko sartuko litzateke: Txomin Ar-

tola, Ibai Rekondo, Oihartzunak, Gontzal Mendibil, Xeberri, Iñaki Eizmendi, Urko, Jon Bergaretxe, Izukaitz Taldea, Lupe, Errobi, Haizea Taldea, Koxka Taldea, Miren Aranburu, Patxi Villanor gasteiztarra, Joseba Etxebarria, Nerea Gaztelurrutia eta azken bi urteotako zerrenda luze bat.

Kantari hauetatik batzuk, harreman dexente handiak izan genituen lehen epe nagusiko kantariekin. Ibai eta ni asko lagundu gintuztela esan beharra dago. Jaialdietara, gehienbat, haiei esker azaldu ginen. «Ez dok amairu»ko kantarien laguntza hori ez dut sekula ahaztu, eta harrez gero beti saiatu naiz kantari berriei laguntzen. Haseran, jaialdiak behar dituzu. Gero, nerbioak uxatu eta estabilizatzen zarenean, ez duzu halako laguntza berezi baten beharrik izaten.

Forma aldetik, ez da, inoiz ere, halako etadura nabarmen bat ikusi, 1976 arte³. Oso berdintsua izan zen, forma aldetik, lehen epeko kantarien lana. Hitzen aldetik, Lete eta Laboa (Arzari esker) ziren progresistenak. Esan nahi dut, hizkuntza adierazpide bezala lantze aldetik. Musika aldetik —ezin uka—, Laboa izan da, eta da, gehien arriskatu duena. Eta besterik aipatzekotan, Valverderen lan fin eta serioa aipatu beharra dago, bai haren beraren kantueta eta bai besteentzako egindako musika-moldakuntzetan.

Ondo begiratuz gero, denek izan dute musika-iturburu bat eta denek izan dute beren musika definitzen duen halako berezitasunen bat. Etxamendi eta Larralde, guztiz herri-folklorean sus-traituak; Maite Idirin, Hego Ameriketako kutsua, eta azken bolada honetan blues antzeko zerbaitegin nahirik; Estitxuren «vakeradak»; Lertxundik nahikoa istudiatuak zituen Donovan eta Dylan, eta azken bi urteotan (eritzi guztiak errespetagarriak badira ere, nik uste dut bere kantagintzaren kaltetan doala) zelta-herrien folklorezale amorratua (ez dut ezer zelta-herrien folkloreak aurka, eta jakin badakit zeltengandik, besterengandik jaso dugun bezala, halako eragin bat izan dugula, baina ez dut uste bide horretatik bakarrik joan behar dugunik).

Gazteengan sumatu da gehiago, forma aldetik aurrerako pausoak eman nahia. Laboak bere garaian gitarra laguntzak-eta inkorporatu zituen bezala, gazte askok, musika potentziatu nahirik, holako laguntzak bilatu dituzte. Nik gitarra bat, eta gero flauta sartu nuen. Urkok konjunto bikain bat antolatu du (Prentsak, beti bezala, ez du ezta lerrorik ere idatzi, Trinitateko Enparantzan Abuztuaren ondarrean eskaini zuen errezital go-goangarriaz. Zer egingo diogu ba, ohituta gaude). Gontzal Men-

dibilek, behe-gitarra, gitarra eta esku-soinua. Xeberrik, piano elektronikoa, esku-soinua eta perkusioa. Oskorrik, musika alde-tik oraindik eragin handiko gairik lortu ez duen arren, aspaldian erakutsi zuen musika-tresna berriak sartzeko asmoa.

Ez dut alderdi honetatik jarraituko, oso luze joko ligu-ke eta. Ez ahantz, hori bai, Iñaki Eizmendiren musikaren baitan nabarmentzen diren joera modernoak. Eta emakumeen artean, Luperen ahotsa (orain hasten da taxuzko letrak ere kantatzen) eta Miren Aranburuk berriki atera duen lehen L.P.a.

Zera esan beharra dago. Alderdi musikala lantzeko kezka hori, azkenean, euskal musikaren onetan gertatu dela. Kantari gehienak, gutxi ala asko, kutsatu ditu kezka horrek. Gehiago esango nuke: alderdi musikala lantzen ez duen kantariak, baztertua gelditzeko arriskuan ikusiko du bere burua.

Talde-lan eta jaialdi-planteaketa aldetik, ordea, orain arte egindako aldakuntzarik sakonena, «Ez dok amairu»k egindakoa izan zen. Alde batetik, nik uste, Oltra Moltó-ren jokabide gogorrari zor zioten (gobernari honek bi urtetarako isilerazi bait zuen euskal kanta Gipuzkoan; geroago, Bizkaikoak gauza bera egin zuen. Baina, hala ere, ez zuten kanta-mugimendua hil). Halabeharrez isilik egon ziren tarte horretan, talde-lana potentziatu zuten, eta horretatik «Baga, biga, higa» atera zen. Eta ikuskari honek izugarriko garrantzia eduki zuen. Haren eraginez sortu ziren «Zazpiribai» eta «Ortziken», eta Borda eta Sarasolaren lanak («Laboraria» eta beste) «Ez dok amairu»k urratutako bide horretatik doazela uste dut.

«Baga, biga, higa» baino lehenago, jaialdiak beste era batetara planteatzen hasi zen «Ez dok amairu». Gaurko egunean asko hitzegiten den problema da, hain zuzen, jaialdiak aspergarri samar gertatzen direla, ez bait dute forma aldetik batere aldakuntzarik izan.

Zer edo zer egin behar da. Batzuk, errezitalera jo nahi dute. Beste batzuk, ez. Badira, «iraultza» eta «kanta iraultzaile»aren izenean, inolako aldakuntzarik nahi ez dutenak ere. «Ez dok amairu»k, bere garaian, aldakuntza interesgarri batzu sartu zituen. Esate baterako, kantari guztiak agertokira azaldu, bakoitzak aulki bana hartuta, eta bakoitzari txanda tokatzen zitzaionean, altxa eta kantatzera.

Gero, funtzionamendu aldetik (antolatu, propaganda egin, lokalak, prezioak, kobraketak eta abar), «Ez dok amairu»k jarri-

tako kriterioen arabera ibili gara eta gabilitza. Baina kantariok bagenituen arazo gogorrei erantzuteko, halako egitura berri bat behar genuela garbi zegoen. Horrela jaio zen «Agerki». Zorritzarrez, ez du bere lana ondo bete. Alde batetik, jaialdien jeshioak egin behar zituztenek ez dutelako lana behar bezala egin. Eta bestetik, kanpotik ere torpedeatu delako gure proiektu hori (ridikuloa bada ere, «Agerki» EHASKoa zela zabaldu zuten batzuk; eta gainera, Urkok eta Gorka Knörr-ek manejatutako «mafia» bat. Ikusten denez, horik esan dituen hauzitara eramateko moduko akusazioak, baina gure herrian «normal»tzat hartzen dira holako gauzak). Egun hauetan, beste bilera batzu egin ditugu kantari batzuk, eta «Agerki» berriro ere aurrera aterako dugula uste dut.

Bukaera gisa

Gauza arrunt batzu esan ditut. Ez dut halako azterketa sakonik egin. Batetik, denborarik ezagatik eta, bestetik, gauza ez naizelako. Gainera, egoera tristean bizi gara, benetan. Euskal musikaz gehien idatzi dugunok, oker ez banago, kantari batzu izan gara. Hori guztiz anormala da, baina halaxe da. Uste dut badela garaia euskal kantagintzak bere kritika izan dezan. Joanak dira lehengo diktadura denborak. Lehen, euskal kantari bati buruz idazteagatik, egunkari batetik (Donostian) bota egin zuten kazetari bat. Gehiago oraindik. «Garaia»koek eskatu zidaten diska-aipamen eta kritikak egiteko. Eta diska baten kritikan esaten nituen gauza batzurengatik (grabaketa, Donostian egindakoa, txarra iruditzen zitzaidala), bota egin ninduten. Gaurko egunean, ez dut uste horrelakorik gertatuko denik. Eta kritika behar dugu. Ea norbait animatzen den.

Gauza asko ditut buruan, bueltaka. Eta denek merezi dukete azterketa bat. Gure profesionaltasuna; kantatzeko izan ditugun eta ditugun eragozpenak (baina denak aipatuz, ez bait zaizkigu denak frankismo aldetik etorri); kritika, komunikabideak, diskagintza (erraz esaten dute batzuk, kantari batzuk «desertatu» egin dugula, eta grabatzera Madrilera joan garela; baina ahaztu egin zaie nonbait, kantariok ez dugula Euskal Herrian grabatzeko aukerarik izan esatea...).

Gauza asko dira noski. Eta ikaratzen nau idazten hasteak. *Jakin*-ekoek artikulu bat idazteko agindu zidatenean, ni ez nintzela gauza esan nion Xabier Leteri. Eta berak erantzun: «hori

denek esango ziaten». Idatzi beste erremediorik ez zegoen, beraz. Eta txurro hau atera da.

¹ Horren lehen diska, Baionako «Musée Basque» delakoak argitaratu zuen 1961ean.

² Egun hauetan jakin dudanez, laster hasiko da Madrilera irratigizon bat euskal kantari buruz liburu bat idazten.

³ 1975.eko egoera politikoak ere eragin handia izan zuen euskal kantantando en el sur. Recordamos como pioneros, Mikel Laboa y Lourdes Iriondo. Textoak harrez gero, askoz gogor eta direktoagoak dira. Agian errazkeriak ere kantatu dira.

G. K.

HISTORIA DE LA NUEVA CANCIÓN VASCA / HISTOIRE DE LA NOUVELLE CHANSON BASQUE

Siempre es difícil datar los comienzos de un movimiento. Lo mismo sucede en la nueva canción vasca. Hoy día es ya admitido que el comienzo nos vino del norte: Michel Labéguerie con su primer disco en 1961. A veces casualmente, otras veces por afición, muchos otros siguieron cantando en el sur. Recordamos como pioneros, Mikel Laboa y Lourdes Iriondo entre otros.

Hay dos fechas importantes en el movimiento de la nueva canción vasca. El primer movimiento ligado a «Ez dok amairu», a su entorno y a todo el movimiento creado. El segundo es posterior a la ruptura del grupo. A este nuevo período pertenecen unos 20 cantantes actuales. Entre los dos grupos no ha existido una real ruptura, ni temática ni estilísticamente. Lo que sí ha existido son cultivos más especializados y desarrollos de algunas tendencias musicales. Se podría decir, en general, que los jóvenes han arriesgado más, y que han incorporado instrumentos para potenciar la música. En unos y otros es cada vez mayor la urgencia de un cultivo más esmerado del aspecto musical.

La influencia del Ez dok amairu ha sido fundamental en cuanto a la concepción y organización de festivales. El espectáculo «Baga, Biga, Higa» ha sido el prototipo de varios otros: «Zazpiribai», «Ortiziken», «Laboraria», etc.

Il n'est pas aisé de dater les débuts d'un mouvement. Il en est de même avec la chanson basque moderne. Mais il est admis aujourd'hui que le départ était donné au nord: Michel Labéguerie avec son premier disque en 1961. Parfois par hasard, parfois par goût, plusieurs autres continuèrent la même voie. Parmi les pionniers on trouve des noms très connus comme Mikel Laboa, Lourdes Iriondo.

Dans ce mouvement de la nouvelle chanson il y a deux dates importantes. La première, est étroitement liée à *Ez dok amairu* et au mouvement

créé par ce groupe. La deuxième, est postérieure à l'éclatement du groupe. Parmi ces derniers on compte une vingtaine de chanteurs actuels. Il n'y a pas eu une vraie rupture entre les deux groupes, ni du point de vue thématique ni du point de vue stylistique. Les divergences sont davantage dues aux différents goûts et au développement de tendances musicales. Aussi pourrait-on dire, en général, que les jeunes ont pris davantage des risques et qu'ils ont incorporé des instruments pour pousser plus à fond la musique. Tous, les premiers et les seconds, orientent actuellement leurs efforts dans le sens de soigner mieux la partie musicale de la chanson.

L'influence du phénomène **Ez dok amairu** a été fondamentale en ce qui concerne la conception et organisation des festivals. Par exemple, le spectacle «Baga, Biga, Higa» a été le prototype pour plusieurs autres: Zazpiribai, Ortziken, Laboraria, etc.

Kanta berria, erresistentzi abestia

Xabier Lete

Euskal kanta berriaren lehen urratsetan, asmo nagusi bat gailentzen zen beste guztien artetik: hutsune bat betetzeko asmoa. Horrelako mugimendu batetan parte hartzen dutenen arrazoi subjektiboak bazter utziz (kantatzearen gustoa, nortasunaren proiektzioa, espresio mota berezi bat lantzea, etabar), ikusten da kanta berriaren arazoa kultur fronte zabal baten asmoan integratzen zela, nola edo hala.

Integratze horren kontzientzia, hastapenean, batzuetatik besteetara maila desberdinetakoa izan zitekeen, jakina. Kantaren herrikoitasun posiblea kontutan hartuz, kantarien betekizunari buruzko formulazio desberdinak egon ziren.

Alde batetik, kantarien lanaren baitan erreku-perazio politiko eta kultur erreku-perazio baten tresna egokia ikusten zutenak zeuden. Bestetik, kantaren baitan euskal estetika eszeniko osatu batetarako zati garrantzitsua begiratzen zutenak ere bazeuden, Oteiza, adibidez.

Euskal kanta berriaren lehen urratsak gutxi gorabehera 1965. urtekoak direnez gero, orduko egoera politiko eta kulturalari arreta jarri behar. Euskal poesia eta literatura berri baten sortzeare-

kin batera (Txillardegiren nobelak, Arestiren *Harri eta Herri*, Lasa eta Azurmendiren poesia), teatro eraberritu eta izpirituz unibertsalago baten esperientzia lehenak ere ensaiatuak ziren (horrela, Beobide eta Mikel Forkadak zuzentzen zuten JARRAI taldearen bidez). Horrekin batera, eta zenbait talde politiko iraultzailearen formulazio estrategikotan, «fronte» planteamenduen barruko kultur fronteari garrantzi ematen zitzaionez gero, zenbaitzuren asmoetan nahiko garbi zegoen kantarien eginkizuna ere fronte horren koordenadetan ezartzeko ideia.

Baina ez ziren «iraultzaile» izeneko organizazioak bakarrik izan kanta berriaren fenomenoari arreta jarri ziotenak. Are gehiago, esango nuke, funtsean abertzalego osoak onharturiko eta garrantzitsutzat kontsideraturiko mugimendua izan zela kantaren hori.

Oteiza batengan, adibidez, eta sentsibilitate estetikoaz beste, ETako zenbait jenderekiko harremanetatik (Etxebarrieta, Zalbide) sortutako kultur militantzia iraultzaile baten plangintzarako asmoak eta nahiak nabarmen bazeuden ere —eta Oteizak izan zuen intzidentziarik euskal kantaren hastapenetako zenbait planteamendutan—, ez da uste izan behar haserako euskal kantariak, eta kantarien inguruan bilduriko beste zenbaitzuek, ikuspegi horretan osoki partizipatzen zutenik.

1965. urteko euskal kantarien tankera, banan bana hartuz, nahiko pertsonal eta askea zen, bai kantaren estetikari zegokion aldetik, berdin inplikazio kultural eta politikoei zegokien aldetik ere. Horrekin batera, kantarien inguruan bildu ziren kultur animatzaile eta borrokalari politikoek tankera ere plurala zen, bai ideologiari buruz, berdin arte euskaldun batek abertzalegoaren suspertzaile bezala joka zezakeen paperari buruz ere. Euskal kantaren arazoa ez zuten begi berdinez ikusten ETakoek, nola ELakoek ala PNVkoek.

Hala ere, eta gauzak honela esplikatuz, irakurleak inpresio faltsu bat atera lezake talde edo alderdi horietako bakoitzak izan zuen eragin eta influentziari buruz. Balirudike alde aurretiko harreman, eztabaida eta planteamendu luze eta sakonen ondorengatik itxuratu zela euskal kantaren mugimendua. Eta ez dago horrelakorik ezertxo ere. Euskal kantaren mugimendua, zerbait izan bazen, mugimendu nahiko espontaneo bat izan zen (ez baitu esan nahi irrazional edo helbururik gabeko). Politizatua, zalan-tzarik gabe, eta euskal nortasun kulturalaren errekuperazio guztiz beharrezkoaz oso sentsibilizatua; baina, horrekin batera, espontaneo eta autarkikoa.

Harreman, eztabaida, konfrontazio, kidesun eta etsaigoak gerora joan ziren sortuz. Euskal kantariak aldez aurretik aurkitu zuten zera bakarra, «giro» bat izan zen, nolabait esatearren. Eraberritzen hasitako euskal arte, literatura eta, oro har, kulturak taxutzen zuen giroa. Eta, horrekin batera, giro politiko bat.

Ikusle eta entzuleei zegokien aldetik ere berdintsu gertatzen zen. Jendea, hasera batetan, ez zen kantalditara honako edo halako mezu baten bila joaten, euskaraz kantaturiko kanta batzu entzutera baizik. Kanta haik euskaraz kantatuak izateak bazuen entzuleengan berezko xarma bat. Kanta haik euskal kantak baitziren, euskaraz kantaturikoak, eta «berriak», nolabait berriak mamiz eta moldez. Horrela izanik, kantariak ongi betetzen zituzten entzulegoa inkondizionalki erakartzeko behar ziren baldintza guttienak.

Kanta, neurri mugatu batean bakarrik zen haseran tresna politiko. Politika, abertzalegoa organiza zezakeen politika baten beharra gertakari guztien muinean zegoen, noski, eta hori kantetan ere nabari zen. Baina ez dut uste kantetan opzio politiko berezi eta taxaturik ageri zenik. Lehen kantariak ez ziren, inola ere, programa politiko batetatik abiatu, eta ez zuten inola ere programa hura kantuz zehazteko pretentsiorik izan.

Hala ere, euskal kantariak entzulegoarengan sortzen zuten arrakastak osagarri asko zituen. Batetik, jende askoren baitan iadanik eszeptizismo handi batetara eroria zegoen abertzaletasun posible baten suspertzea. Bestetik, euskal gizartearen problematika sozial, kultural, erlijioso eta esistentzialaren tratamendu ahalik eta zehatzena eta, zenbait aldetatik begiratuta, nahiko ausarta. Era berean, sentsibilitate «moderno» bati zegozkion bizi postura eta afektibitate aldetiko hautabideen esplizitazioa.

Euskal kantarien mezuak maila ideologiko ezik sentimental batetan obratzen zuela esatea gehiegizko litzateke, agian, baina ez legoke egiatik hain urruti ere.

Adibidez, euskal kantaren lehen urratsetan Michel Lebégue-ri dago. Labégue-ri-ren kantak disko bidez izan ziren ezagutze-
ra emanak, artean kantaldien usadiorik ez baitzegoen. Labégue-ri-ren diskoek, batez ere lehenak, izugarritzko garrantzia izan zuten euskal kanta herrikoia-
ren estilo aldaketan: gitarra soilez lagunduriko kantak baitziren, ahots partikular bezain apal eta arrun-
tez kantaturikoak, molde komertzialei zegozkien amana-
mendu eta sofistikazio guztietatik urruti. Horrela, Labégue-ri-ren kanta adierazgarrienei begiratu-
z, eta har dezagun arrakastarik

handiena sorrerazi zuen *Haurtxo, haurtxoa*, sentimendu eta afektibitateari dagokion aldetik planteaturiko kanta dela oartzten gara, nahiz eta afektibitate horren sostengua abertzalegoaren sail radikalizatu batek zeraman borrokaren zenbait pasarte izan; bere haurrari kantatzen dion ama, gartzelan dagoen abertzale baten emaztea baita.

Kanta horretan problema, funtsezko problema, abertzale batzuk daramaten borroka da. Baina ez zaizkigu borroka horren nondik norakoak, moldeak eta aterabide posibleak aztertzen, inplikazio eta ondorio sentimentalak baizik: aita gartzelan duen familia baten larridura eta itzaropenak.

Eta gartzelan dagoen gizon hori ez da honako edo halako talde edo alderdikoa, espetxeratutako abertzale soil bat baizik. Kanta horretan, beste askotan bezala, afektibitateaz sortzen zen entzulearekiko inpaktoa. Kontutan hartuz, jakina, entzulea eta kantariaren arteko funtsezko akordioa afektibitatearen sustentari zen herri borroka batetan oinharritzen zela.

Hasera batetan, kantaria eta entzulea elkarri keinuka bezala ari dira. Egin litezkeen planteamendu guztien eta esplika litezkeen helburu guztien azpian, funtsezko sinpatia bat dagoela esan behar, eta, horrekin batera, premia larri batetatik sortzen ari zen espresio mota berriaren beharraren kontzientzia.

Kantarien lana, errekupeazio lan bat zen, beste ezer baino lehen. Kantatzeko era herrikoi baten errekupeatzearekin batera —kanta zaharrak ere jasoz—, hizkuntzaren eta herri kontzientziaren errekupeazioa.

Lehen kantaldietan —gero *Ez dok amairu* taldekoak izango ziren Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Julen Lekuona, Lurdes Iriondo eta besteek ematen zituztenetan— kantariari bere tematika ager eta estiliza zezan utzi egiten zitzaion, alde zurretik pre-judizio gehiegirik gabe. Batzuk sentimentalago arituko ziren, besteak rasionalkiago. Berdin zitzaion.

Kanta, nola edo hala, borrokarekin lotzen zen. Herri batek irauten jarraitzeko zeraman borroka larriarekin, hain zuzen. Eta hori, besteak beste, kantariak kantatzen jarraitzeko jasan behar izan zituzten zailtasun, debeku eta oztopoek garbi adierazten zuten.

Hasera batetan, kantaren fenomenoak sorpresan harrapatu zuen mundu guztia. Sorpresan euskal entzulegoa, eta sorpresan bai eta erregimen zapaltzailearen makineria ere. Euskal kanta berria, azaleko zenbait fenomenoren aldetik, gazteria inkonfor-

mista bezain kontsumista bati zegozkion usadioekin nahas baitzitekeen: zenbait herabetasun, musika erritmo berrietara lerratzea, informalismoa, masifikazioa, etabar. Hori horrela izanik, eta zenbait euskaldunen mesfidantzaz beste, euskal kantak sistemaren haserako despistearen bentaja batzu jaso zituela esan behar; batez ere, tolerantzi itxurako zerbait. Baina hori berehala bukatu zen; errepresio aparatoa euskal kanta berriaren benetako esanahiaz jabetu zen bezain azkar, hain zuzen. Eta, zoritxarrez, azkar jabetu zen.

Berehala *Ez dok amairu*-koak izango ziren kantariak eman zituzten lehen kantaldietan —Donostiako «Victoria Eugenia» aretoan 1966 urteko urtarrilean ospatu zen jaialdian bereziki—, giro sukartsu bat nabari ahal izan zen. Entzulegoak oso ongi asimilatzen zuen kantatzeko estilo hura. Bestetik, zenbait kanturen tematikak haragi bizitan zeuden problemetan intziditzen zuen.

Horrela, Lurdes Iriondok Atahualpa Yupanki-ren *Preguntitas* euskaraturik kantatu zuenean. Edo Julen Lekuonak *Eliza pobrea* kantatzerakoan:

*Eliza pobrea, eliza pobrea
denontzat hobea...
moztu kardenalen erropak,
moztu torre luze zorrotzak,
moztu obispo kotxe luzeak.
Nun da estalpean jaihoa?
Nun da gurutzera igoa?*

(Juan Mari Lekuonaren hitzak)

Euskal kantarien tankera anarkoidea izan zitekeen, batetik. Norberak bere problematika baitzekarren, edo, hobeki esan, bere ikuspegitik begiratutako euskal gizartearen problemen atalak baitzekartzan. Problema, kezka eta reibindikazioek, kantari bakoitzaren bidez interpretatuak izatean, tankera berezi bat hartzen zuten.

Horrela gertatzen zen Mikel Laboak Bertolt Brecht-en poemak kantatzen zituenean; edo Benito Lertxundik *egia*, *zertarako* oihukatzen zuenean; edo Julen Lekuonak zibilizazio industrial deshumanizatu baten ukapena *libre nabi dut* *bihotzez*, *libre loturretik*, *basurdearen gisan ortzak estuturik* hitzez aldarrikatzen zuenean.

Kantariak, espresio tresna desalienatzaile bezala hautaturiko euskara hizkuntza aldetik, berdin euskal gizarte askatu bateta-

rako borrokaren baldintzekin identifikatzen ziren aldetik, nazionalitate arazoan funtsatzen zuten beren betekizuna. Baina, era berean, internazionalagoa zatekeen humanismo sozial batekin ere solidarizatzen ziren (humanismo soziala, nolabait esatearren; beharbada, egokiago litzateke aurpegi gizartetsu demokratikoa zukeen sozialismo batekin solidarizatzen zirela esatea).

Lurdes Iriondok Viet Nam-go gerlaren aurka kantatzen zuenean, edo Julen Lekuonak amerikar beltzen borroka *Martin Luther King* kantaren bidez goraiatzen zuenean, eta berdin langileriaren borroka *Chicago-ko langilleei* kantan, errazegi litzateke sentsibilitate mailako humanismo batetatik zebiltzala esatea. Zerbait gehiago ere bazen: zapalduen aldeko mezu bat, hain zuzen. Nahi den bezain sentimentalki eta primarioki formulaturiko herri eta klase zapalduen aldeko solidaritatea.

Eta Benito Lertxundik *Illunpetako gizona* kantatzen zuenean, ETako gazte borrokalariei (ez haiei bakarrik, baina haiei bereziki) omenaldi bat eskaintzen zien.

Lehen orduko euskal kantari ezagunenak bileraziko zituen *Ex dok amairu* taldea 1966 urte haseran sortu zen. Ordukoak dira Julen Lekuonak *Zeruko Argia* aldizkarian argitaraturiko kritzi hauk:

Iñolaz ere ezin gindezke orain uso txuriaren historia tristeak kantatzen hasi, hori baiño tristeagoak badaudelako. Uso txuria gure euskal herrietako tximenietako keak aspaldi beztu zuen. Ezin giñezke beraz erromantizismo batean bizi. Ezin giñezke gauza politak bakarrik kantatzen ibili. Herriak gizarte batean bizitzera esnatu behar du. Eta kantuak indar haundia duela iruditzen zait euskaldunen artean jendea pizteko; jendea, dagoen egoeratik esnatzeko. Eta hori egiteko, gure herriak bere baitan bizitzen dituen arazoak jarri behar dizkiogu aurrekaldean; hitz batean, kantuak esan nahi sozial bat izan behar du... Badirudi guk hasi dugun joera honekin zenbait folklorista ikaratu egin dela. Ez dago beldurtu beharrik; gu ez goaz iñoren kontra. Iritzi bat dugu euskal musikaz; eta iritzi horrek balioko ahal du folkloristen iritziak aña. Oker egon gindezke, baiña folkloristek ere arrisku berdina dute, gu bezela gizon eta gu bezela hilkorak badira beintzat.

Beraz, joera tradizionalei atxekirik bizi zen zenbait jenderen susmo txarrak ere sorrarazi zituen euskal kantak; eta ez musikari zegokion aldetik bakarrik, hori askotan forma aldetiko atxakia bat besterik ez baitzen. Egia esan, tradizionaltasun baten puskaketa euskal kanta berrian sumatu zuen jenderik izan zen. Garai hura arte euskal gizartearen barruan funtsezkotzat jotzen ziren pauta batzu (estetikoak, erlijiosoak, moralari bu-

ruzkoak, politikoak) kolokan jarriak gertatuko ote ziren beldurra nabaria zen batzuren baitan. Euskal kanta berria, «iskan-bila», «gusto txar», «zarpailleria» eta «pesimismoz» josia zegoe-lia zioten. Kantariak tipo ilun eta ukakorrak zirela, alegia.

Nor zen horrela pentsatzen zuen jendea? Gauzak xuxen begiraturuz, entzulegoaren zati bat. Edo, hobeki esan, abertzalegoaren zati bat. «Belaunaldien arteko urradura», eta horrelako beste topikoek, giro aldaketa baten beldurra estaltzen zuten: radikalizazio politiko eta gizarte bizitzaren laizizazioaren beldurra, hain zuzen.

Euskal kanta berriaren arazoa batzuk horrela begiratzen bazuten, beste zenbaitzuk, sozial-inperialismoa deitua izan den ezker konbentzional erdaldunduaren eritziemaileek, «xobinismo nazionalista burges ttiki»tzat jotzen zuten. Euskal gizartea azken urte hauetan dinamizatu duten zenbait mugimendurekin gertatu ohi den bezala, euskal kantak ez zuten abertzale eliteko zenbait buruzagiren, ez eta ezker konbentzionalaren onespenerik izan.

Herriaren onspena izan zuen, eta horrekin aski eta gehiegi. Herriak, askotan ohi duen intuizio berezi eta kontzientzia argiz (eta askotan elite zuzendaritari kontrajarriz), euskal kanta berri baten sortzea garrantzitsutzat jo zuen, eta kantariaren mezuarekin identifikatu zen, ez beti kezka eta zalantzarik gabe, baina bai beti espresio berri hura ulertu eta justifikatzeko gogo biziz.

Euskal kantaren mugimendua ez zen *Ez dok amairu*-ra mugatu, jakina. Lehen kantariak osaturiko talde horren abiadurak laster izan zuen oihartzunik; Bizkaian lehenik (Bittor Egurrola, Maite Idirin, Estitxu, Natxo, eta beste), eta kasik une berean Ipar Euskadin (Peio eta Pantxoa, Manex Pagola, Etxamendi eta Larralde, Borda eta Sarasola, etabar). Baldintzak, ia berdintsuak. Eta berdintsuak oinharritzko planteamendu eta helburuak ere.

Desberdintasunik baldin bazen, organizazioari zegokion alde-tik zen. Eta, horrekin batera, talde estrategiatik bederazkako kantariaren strategiara dagoen aldea.

Bederazkako kantariak, kantaldietan sufritzen ziren akats es-
trukturalekin ahal zuten bezala borrokatzen ibili behar zuten
une berean, *Ez dok amairu*-k kantaldien estrategia bat planteat-
zeko ahalegina egin zuen. Alde batetik, kantaldien emateko to-
ki aukeren azterketa razional bat eginez, prioritateak eta tokian
tokiko baldintzapenak kontutan hartuz. Bestetik, kantaldi ba-
koitza nolabaiteko osotasun konplementatzaile bezala begiraturuz,

bai mezu aldetik, berdin estilo aldetik, horretarako kantarien aukera ahalik eta egokiena eginez. Hirugarrenik, infrastruktura teknikoa zaintzen saiatuz (mikrofono, argi, etabar). Laugarrenik, kantarien profesionaltasun minimo batetarako bideak zainduz, diru aldetiko baldintza duintasunezkoak ezarriz (beti eta beti tokian tokiko ahalaren arabera, jakina). Boskarrenik, antolatzaileekiko harremana zainduz; antolatzaileen helburu hurbilak eta nahiak kunplitzen saiatuz, eta haien kultur kezka eta kezka politikoekin konfrontazio aberasgarriak sorraraziz, ahal izanik behintzat.

Horik guztiak zirela eta, *Ez dok amairu* taldea zenbait kontradikzio eta eztabaidatan sartuz joan zen. Antolatzaileekin, batzutan; entzulegoaren zenbait sektoreekin, bestetan. Baita zenbait kantarirekin ere.

Zentsura aldetiko zailtasun eta baimen aldetiko eragozpenak handituz joan ziren arabera, kantariak beren lanaren iraupena gordetzeko ahal zuten taktika guztietara jo behar izan zuten; eta taktika horietatik bat, kanten nabarmenkeria gogorrenak hizkera metaforiko baten bidez estaliz joatea izan zen. Mezuaren klabeak ezinbestean disimulatuak eta ilun samarrak bilakatu ziren. Hizkera gordin batetatik poetikoago eta estaliago batetara pasa beharra izan zen. Eta hori zenbait entzulek ez zuen onhartu. Bazen ideien aldetiko radikalizazio gero eta handiagoa eskatzen zuenik. Nahiz eta radikalizazio hori asko eta askotan azalekoa baizik izan ez. Radikalizazio hori, gainera, zenbait talderen agitazio politikoaren arabera izan zedila eskatzen zen. «Herriaren zerbitzura egon» eta «Herriaren dinamikari jarraitu» esaten zitzaion horri. Kantariak ezin zezaketen hori onhar; batetik, inongo dogma politiko eta sozialen jabe ez zirelako; bestetik, beren lanaren baldintzapenak derrigorrez kontutan eduki behar zituztelako. Orduan, kantariak ahul eta lanbrosutzat akusatuak izan ziren, eta «kulturalista» epitetoaz eraso zitzairen.

Diru arazoak ere baba mingarriak sorrarazi zituen. Diru arazoarekin batera, kantaldien organizazio arazoak eztabaidatzen zen. Batzuren eritziz, kantaldien eraketak espontaneismo hutsean iraun behar zuen, kantarien aldetiko baldintzarik inola ere onhartu gabe. Kantariak antolatzailearen menpean egon behar zuen, eta antolatzaile askoren kriterio falta eta bidegabekeriak «herriaren egoeraren» atxakiaz justifikatu nahi izaten ziren. Kantak, politikaren arabera, klandestinoak izan behar zuela esaten zuenik ere bazen; horrekin, oharkabea, elitismo diskutigarri baten taktikara makurtuz. Faxismoaren errepresioaren sareak

ekintza ireki, publiko eta herrikoi baten bidez puskatzen ez saiatzea eraman ezinezko zitzaien batzuri. «Dena ala ezer ez» en teoria, etsipen beltzenaren muin beretik sortua, liluragarri zitzaien. *Ez dok amairu*, ezinbestean, ikusmolde horren aurka altxa zen; edo, hobeki esan, ikusmolde horretatik bazter ibili zen, zailtasunak zailtasun eta akatsak akats. Eta *Ez dok amairu*-rekin batera, beste kantari asko.

Kantaldien arazoari buruz, bi ikusmolde konfrontatu ziren, beraz. Bata, iraupenari begiratzuz ahalik eta espresiorik aberatsena proposatzen zuena. Bestea, instanteko radikalizazio baten amoretan ontziak kolpetik erretzea eskatzen zuena; bigarren alternatiba honen aldekoek «kantaren funtzionaltasun politikoari» asko begiratzen zioten, kantariari autonomia estetiko, taktiko eta espresibo guztia ukatuz.

Une beretsuan, hor 1969 urte bukaera aldera, eta fronte abertzale posible baten ideari zuzenduriko «burges ttipitasun» kritikekin batera, kantarien arteko desberdintasun ideologikoak ere nabarmenduz joan ziren. Pluralismo anaikor aberasgarri bezain idealista batetatik hausketa nabarmen batetara zeraman urratsa azkar bezain arinki emana izan zen. Orditik aurrera, arazo nazional eta sozialen arteko disoziazio faltsua teorizatzen zutenentzat, desberdintasun borrokalaria dogma bilakatu zen. Handik aurrera, eta zenbaitzuren eritziz, kantari batzuek estetizista, xobinista, burges ttipi eta folklorezale izango ziren; besteak, aldiz, aurrerakoi, proletarista eta «desmitifikatzaile».

Denbora pasatuz joan ahala, dikotomia horren pretentsioa asko ahuldu da. Batetik, ezker abertzalearen sorrera ezagutu dugu (edo ezker abertzalea izan nahi luketen talde zatikatuen protagonismoa); eta sorrera horrek ez du ondoren bezala estetika berezirik ekarri, ez kantan, ez beste ezertxotan ere. Kultura herrikoiago eta aberasgarriago baten modelorik ez da aurrera eraman ahal izan. Eta bestetik, zenbait proletarismoren arazo nazionalaren abandonismo demagogikoak eta erdaldunkeria nabarmenak ere ezagutu ahal izan ditugu, eta herria guztiz aurka jarri da.

Kantariaren eta entzulegoaren arteko harremani bagagozkie, lau fase bezala ezagutu dira Euskal Herrian. Lehen fasea, errekupeziokoa, kantaria eta entzulearen artean artesi eta bereizketarik ez zegoeneko. Bigarren fasea, asperdura pixka bat sortzen hasi zenekoa, eta horrekin batera kritika eta gonbaraketak; «kantariak lehen gauza gehiago esaten zuten, herrikoiago ziren», eta horrelakoena; estetika bidez eta espresio bidez asperdura

eta monotonia gainditu nahirik, orduan izan zen, bigarren fase hartan, espektakulo, ikuskari eta «sentikari»en sorrera; *Ez dok amairu*-k Joxanton Arzeren eraginez, «Baga Biga Higa»; Ipar Euskadin, «Zazpiribai», etabar. Hirugarren fasea, rezital berezi eta kantaldi masiboena; kantarien artetik, urteen eta lanaren poderioz, batzu bederazkako heldutasun nahiko aipagarria iritsiz doaz, eta kantaldi gisan adierazten dute diren hura, eta kantari gazte batzuk ere berdin egiten dute, bakarka nahiz binaka; horrekin batera, eta frankismoaren hondamenak sorturiko giro askeagoan, kantaldi masibo eta Galeusca-k antolatzen dira. Lau garren fasea, gaurko giro eta egoerari doakiona, aldaketa kritikiko baten beharretatik sortzen ari den kantakerarena, moldez eta mamiz emanaldiak aberastu nahirik, tematika zabal eta era berean barneratuago baten ibilbidetatik, kanten estetikari arreta haundiagoa jarriz, eta kanta, behin eta betirako, funtzionaltasun politikoaren murrontzatik askatu nahirik.

Euskal kanta berria, bigarren fasetik aurrerantz sendotuz eta asentatuz joan zela esango nuke, gaur arte gorabehera handiak izan baditu ere.

Bigarren fase hartako egoera zeinen kritikoa izan zen oharrazteko, eta euskal kantaren inguruko problematika bere zabalatasunean zertan zetzan ikus ahal dezagun, egoki iruditzen zait, amaiera gisan, 1970 urtean, urtarrilean, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkarietan *Ez dok amairu*-koek argitaratu zuten manifestuaren zatirik garrantzitsuenak aldatzea. Uste baitut, manifestu hura izan zela euskal kantagintzaren xede eta joka-moldeak, berdin baldintzapean nagusienak, aztertuz razionalizatzeke ahaleginik zehatzenetako bat. *Ez dok amairu*-k, bere agirian, eta beste gauza batzuren artean, honela zioen:

1) Lau urte hauetan, herriz herri ibiliak gera Euskal Herrian zehar. Frontoi, enparantza, teatro, probaleku, saloi eta beste izan dira gure agerlekuak. Hasieran jendeak gutxi ezagutzen ginduzen, normala den bezala. Orain, ostera, bestela gertatzen da. Hasi ginenean, euskal kantaririk bakan agertzen zen; funtsa ez zegoen firme oraindino; orain, berriz, sendoago doa eta maila batean dago. Lehen ezezaguna zelako, ezagutzera eman behar zen; eta orain ere jarraitu behar du ezaguna izaten noski, baina bide sakon, hobe eta iraunkorragotik. Lehen edozein leku ona bazen jaialdi bat emateko, eta oraindik askotan horrela izan behar badu ere, beste askotan gauzak ahalik eta hobekien egin eta eman behar direlakoan gaude. Hasieran, guk eskatutako dirua gutxi bazen, gero gauzak hobeagotu izan behar ditugunaren arabera, ahal den hainbeste eskatzen joan gera (kontuan euki «ahal» esaten dugula). Baina sekula ez dugu leku bat ere diruaren arazoagatik utzi. Betor horrelakorik esan lezaigukerik.

2) Pentsatzen dugu gure herriak, iñoiz baino gehiago, luzera doazen

kultura moldeak behar dituela; eta ez, zakurraren gauerdiko eztlak bezela, egunsentian suntsitzen direnak. Baina kultura moldeak sendo eta iraunkorrak izan ditezten, lana egin behar delakoan gaude, eta asko gainera...

Artea egitea lan bat da, giza-eginkizun bat, herriak behar duen zer-bait; ez beharrezkoena, baina gizakumeak lehen beharrak betetzen dituen ondorenean beharretarikoa. Eta artea sortuko bada inon —arte landua, sakona—, haren egiteak bizi bat osoki behar du. Hau da, artistak profesionala behar du izan; ez profesionala dirua irabazten, lan egiten baino, eta bere lana besteei erakutsi eta irakasten. «Amateurtasuna», sentimentu onuragarria da eta beharrezkoa; baina honen bidea ez da luzea izaten, eta ez da inoiz gai batetan benetan sakontzen.

Kalte bi ditu honek: ezer berririk ez sortzea, eta gizonak ezer sortzen ez duanean aspertu egiten da, edo makina bat biurtzen; eta edozein arazo xingleatik —ezkontzea, adina, etabar— bere kultura ekintza baztertu egiten du. Bestetik, jakite sailean dabilen jendeak lan hoiek gutxitan hartzen ditu bere bizitzarako lehenengotzat, garrantzitsuen gisan. Beste eguneroko eginkizunek uzten dizkioten tarreak erabiltzen ditu kultura ekintzetarako; eta horrela, jaunak, ezin daiteke axalkeriatik atera. [Kontsiderazio luze eta sakonak datoz gero diru arazo eta profesionaltasunari buruz].

3) Ikastolen alde egiten diren jaialdietan, antzeko zerbait gertatzen da. Gu, behin baino gehiago, ikastolen alde kantatzen ibili gera; eta, neurrian, ongi derizkiogu. Baina gauza hoiek egoera osoago baten barruan doaz; eta jakin ere badakigu jaialdi batzuk zoritxarrez nola antolatzen diren, hamaika numero ezarri, bi edo hiruk jardutzea nahikoa litzaken lekuan.

Ikastolen egoera eta ezbaia, jaunak, ez datza jaialdi batetan, ez eta hamaika jaialditan ere (erreza litzake soluzioa), denen arteko lan sakon eta serioan baino. Baina, beti bezela, gizartearen hutsegiteak norbaiten burura jaurki behar.

4) Batzuek uste ohi dute nahikoa dela gu leku batera joatea jendea jazarririk ezartzeko (horretan ere gizartearen hutsegite jenerala talde batek bete behar du). Gauek goizera, Jainkorik ezetzatzen dutenek beste fetitxe-mamu haundiagoak ezarri nahi dizkigute Jainkotzat, mistizismo nazkagarri batetan erortzen ari galararik. Esate baterako, kanta batek ez omen ezertarako balio, baldin eta jendea «jazarrerazten» ez badu, eta ez da «jazartzailer» eta jatorra. Ez gaitzen, mesedez, herrikoikerietan hasi! Hain zuzen, finkatu behar dena horixe da ta: zeintzuk diren egiazko jazarbideak.

Guk egiten dugun lana, bere konplexitate guztiekin, garrantzitsutzat jotzen dugun, eta ez, mistizismoak eraginda, misiolaritzat. Jakiñaren gainean gaude zeintzuk diren orain talde baten neurri eta jomugak; eta irauñ ahal izateko, haien arabera ibiltzen gera, urrats guztiak ahalik eta neurtuen emanik.

5) Indibidualkeriak utzirik, indibidualtasuna aberasteko elkartu giñen «Ez Dok Amairu» baitan. Bakoitzak bere ekintza eta esperientziaren berri ingurukoan artean zabalduz, taldeak lan osatu bat egin ahal zezan, eta era berean bakoitzaren jakitatea aberastu. Bakarrekiko lanak onartzen ditugu, baina guk hori baino batzuen artekoa nahiago dugu. Zaillagoa dela badakigu, baina horrek ez gaitu ikaratzen. Beste pertsona eta taldeekin harremanak eduki nahi ditugu, denontzat hobe litzakelakoan, dudarik

gabe. Gurekin mintzatu nahi izan duenak, ez dugu uste atearik itxita aurkitu dituenik; iñoiz horrelakorik norbaiti gertatu bazaio, barka dezai-gula.

X. L.

LA NUEVA CANCIÓN VASCA, CANCIÓN DE RESISTENCIA / LA NOUVELLE CHANSON BASQUE, CHANSON DE RESISTENCE

Para entender la nueva canción hay que situarla dentro de las coordenadas de la situación política y cultural. La canción forma parte integrante del movimiento cultural que la populariza y potencia. Es en este sentido que la canción vasca está politizada, pero sin implicación directa de programas políticos o de partidos políticos. El trabajo del cantante consistía fundamentalmente en la recuperación de la lengua y de la conciencia nacional. Cada cantante interpretaba a su modo la problemática popular, pero todos ellos cantaban una sociedad vasca libre y todo lo que se identificara con esta lucha, dentro o fuera de las fronteras del País.

Este compromiso del cantante vasco fue criticado por la derecha por algunos folkloristas y sectores «abertzales» de derechas, y por la izquierda fue tratado de «chauvinismo nacionalista pequeño burgués» por los social imperialistas. El aparato represivo del Estado cayó también sobre el cantante con la prohibición de cantos y festivales. Pero el cantante vasco pudo contar siempre con la comprensión y la plena aceptación del pueblo.

En realidad, el diálogo entre el cantante, el público y los organizadores ha tenido varias fases. Debido, por ejemplo, a imperativos de la censura el cantante se veía obligado a emplear un lenguaje elíptico e indirecto, lo que no siempre fue bien interpretado por el público radicalizado que les tildó de «culturalistas». El asunto económico creó asimismo algunos malestares con los organizadores. De hecho se confrontaban dos perspectivas: la de los que en los momentos difíciles optaron por durar enriqueciendo la expresión; y la de los que insistían en la radicalización inmediata. Es en la segunda parte de 1969 cuando se da la mayor diferenciación ideológica entre los cantantes vascos.

Pour bien comprendre la chanson basque il faut la situer à l'intérieur des coordonnées de la situation politique et culturelle du Pays. La chanson fait partie intégrante du mouvement culturel et le popularise et le fait plus puissant. C'est dans ce sens-là que la chanson basque est politisée, mais sans implication directe des partis et des programmes politiques. La lutte du chanteur consistait fondamentalement dans la récupération de la langue et de la conscience nationale. Chaque chanteur interprétait à sa manière la problématique populaire, mais tous étaient d'accord pour chanter une société basque libre et tout ce qui était en rapport avec cette lutte, soit à l'intérieur soit à l'extérieur du Pays.

Cet engagement du chanteur basque fut critiqué à droite, par quelques folkloristes et des secteurs «abertzale» (nationalistes) de droite, et, à gau-

che, de «chauvinisme nationaliste petit-bourgeois» par les sociaux-impérialistes. L'appareil répressif de l'Etat tomba lui aussi sur le chanteur par l'interdiction de chants et de festivals. Mais le chanteur basque misa toujours sur la compréhension et l'acceptation du peuple.

En réalité, le dialogue établi entre le chanteur et le public et les organisateurs eut plusieurs phases. Par exemple, contraint par des impératifs de la censure, le chanteur se voyait obligé d'employer un langage élyptique et indirect, c'est qui ne fut pas toujours bien compris par le public radicalisé qui l'accusa de «culturaliste». L'aspect économique créa aussi certains malaises avec les organisateurs. En fait, il y avait à la base la confrontation de deux perspectives: celle qui, dans des moments difficiles, opta de durer en enrichissant l'expression; et celle qui accentua la radicalisation immédiate. C'est dans la seconde partie de 1969 que se produisit la plus grande différenciation idéologique parmi les chanteurs basques.

Euskal Kanta Berriari hurbilketa kritikoa

Luis Iriondo Etxaniz

Kanta

Ez dut testu didaktiko bat idazteko asmorik. Ezta kritikoa ere. Baina nire apunteok didaktiko eta kritikoak dirateke azkenean. Gure Herria osoki potentziatu beharrean aurkitzen da. Eta gure belaunaldiak abiatutako programaren barruan —programa distiratsu, zaratatsu, politiko, zientifista, ekonomiko eta kulturala berau—, eta haren kapitulurik apalen eta azkenekoan, atal bat idazten da: kanta. Komunikabide bat. Lore frantziskano bat bezain apala. Hala ere, azken gudal tresna bezain garrantzitsua. Eguneroko arazo politikoek nahiz haren protagonista diruzaleek, artistek, diskagintza industriak, etab., lizundua. Hau idazten duenak komunikazio gizatar eta estetikoaren gailurtzat maitatua, ordea. Horregatik, ezin dezaket deslehiatuki idatz, gorpu bat zatikatuko banu bezala. Gorputza bizirik bait dago, eta nerea bait dut. Eta nerea dudalako maite dut, eta poza eta atsekabea sortzen dizkidalako. Barka, beraz, didaktismoa edo kritika espontaneo sortzen bazaizkit. Ahal dezadan moduan mintzatuko naiz, lotsarik eta inhibiziorik gabe, baina nere esperientzia pertsonalaren eta batez ere nere maitasunaren egiaz.

«Kanta» hitza definitzea, zeregin aski zaila da. Ideia baten sintesi lirikoa? Hitzegiek, musikaz sostengaturiko testu bat dela diote. Horren lainoa da, noski, formula. Baina espresabide bion arteko elkar loturak, baldintza jakin batzuren arabera gertatu behar du, formula baliozkoa izan dadin. Eta berehala sortzen den galdera bat da, ea literatur testuak menperatu behar duen melodia, ala alderantziz. Zerbait xit lainoa hau ere, zeinetaz, paradoxalki, artistak ez bait dira oraindik ados jarri.

Hala ere, uste dut, kanta modernoaren fenomenoan, testu-melodia elementu oinharritzko horien gain, beste batzu daudela, elementu dramatiko bezala eragin bortitza dutenak. Paper pautadun gaineko kanta, lan bukatua da. Baina ez zaigu ukatuko, interpreteak lehenik eta geroago laguntza instrumental mota desberdinek duten eragin erabakitzailea komunikatzeko orduan. Kanta bat gorpuztun eta objetibo izatera iritsi, kantatzean eta entzuleari komunikatzean iristen da. Eta gaur, kantak egunero eranskin ikusgarrien azalpen eta bonbaziak entzutera luzaroan ohiturik gaudeneko honetan —orkestak, grabapen sofistikatuek, bizitza ageriko kantari «vedette»ak, publizitate industrialak, etc.— zaila gertatuko litzateke elementuak banan-banatzeta eta testuaren eta paper pautadunaren gain ikertzea kanta. Abia gaitzezen, bada, kanta entzuleari osorik komunikatzen zaioneko unetik.

Zer komunikatu behar du kantak? Hona argitzen nekosoenetako problema bat. Komunikapenaren modu dramatikoek, psikologiatik teatrora, forma dekalogo bat eratu dute, giza temarioa estetikoki haietako bakoitzean lekutzeko. Baina kanta, komunikapen horren erarik sublimeenetakoa izanki, endekatua azaltzen da forma hierarkikuntza horretan, seguruenik horren itxurazko lainotasunak erraz, populista eta demokratikoezia emanerazten diolako. Kanta, modu formal mugatu, baina ez horregatik gutiago sakon, bezala definitzen da intrintsekoki. Mundu modernoko mila moduren eklosioak despistatu egin gaitzake abiapuntu honetan. Baina egia nabaria da, ideia liriko, testu laino, musikapen egoki eta komunikapen efiziente bezala defini litekeela kanta teatralizatu gabea. Kantak genero arras desberdinak ditu, epikotik arinera doazenak. Baina, esperientzia guztietaz denborak egin duen dekantapenaz fidatuz gero, zera esango dugu: itxuraz gora eskaseko, baina sintetismo kintaezentziatuko, elementu osakai desberdinen arteko oreka perfekto batetako komunikapen dramatiko nahiz liriko haik izan direla kanta handiak. Adibide klasiko eta topiko bat: «Erlkonig», «An die Musik» eta Schubert-en erreperitorio osoa. Hurbilagoko beste bat:

Serrat-en «Paraules de amor». Eta gure musikan, «Irulea»ren lau bertso bakarrak, maisulan bat.

Behin, Trenet-en errepertorio zaharra entzunez, testua, musika eta interpretea bereizten saiatzen ari nintzen, eta benetan ez nuen inongo soluziotara iristerik lortzen. Dena bere lekuan zegoen eta mezua zehatza eta perfektoa zen. Eta konbentzimendu honetara heldu nintzen orduan: autore handiek, gure bizitzan entzun ditugun kanta genial apurrak eskaini dizkiguten izaki xit bakan eta pribilejiatu horiek, ez dute inolako laborategi edo fabrikarik erabiltzen eta ez diete formula zientifikoei kasorik egiten; aitzitik, poeta homeriko batzu bailiran jaikitzen dira udaberri goiz distiratsu batez, eta, lira eskuratuz, lehenengoz kantatzen dute beren kanta. Haien bihotzari borborka darion kanta, espontaneitate erabatekoan, batera, simultaneoki erretako melodia batekin, testu batekin... Horrela bakarrik esplika dezakegu, oinezko gizajende honek, sortzaile handietan sumatzen dugun genialitate eztanda hori.

Neurria, forma eta oreka. Neurria edo muga intelektuala, hots, ideia kantaren espresio koadro zehatzari, laino eta batez ere sintetikoari egokitzea. Forma: edertasuna. Oreka: espresio forma desberdinen arteko koerlazioa. Ondorioa, kanta sinple bat. Baina kanta, hori bai, geniala...

Euskal kanta

Leienda baten pean gaude, mito baten pean... Euskal kantaren mitoaren pean. Orijinala, askotarikoa, ugaria, promoziotua. Mirespenez hitzegiten da «euskal musika»z. Akademiarik ez bait du izan, bere espresio herritarrenera, kantara, mugatzen da, edo mugatzen dugu guk...

Benetakoa eta nabaria da honen aberastasuna eta ongi irabaztea horren izena. Beharbada, horren orijinaltasun zera hori —halako modulapen melodiko, kadentziazio berezitasuna, bazter herri baten temario virgiliarra...— izan da zirkunstantziarik deigarriena. Beste herrik baino modu eboluziotu eta kultoagoaz kantatu dugu, molde artistiko hauenganako sentsibilitate nabariagoz. Baina bada beste herririk guk bezain ongi kantatu duenik. Anekdotan mailan aipatzekoa da, gure herriak musik arloan irabazitako ospe unibertuala ez dagokiola, objetiboki, merezimendu gehiagoz zegokiokeen beste hari, hots: dantzari. Euskal Herriak oso ongi kantatu du eta munduak aitortu egin dio. Euskal Herriak beste

ezein herrik ez bezala dantzatzen du, genialitate menperatzailez, ezein dantza folklorikok gizadiaren historian inoiz lortu gabeko estadio formaletan, eta, hala ere, gure dantzak ez pena eta ez loria dabilta dantzaren eskenategi unibertsalean.

Euskal kanta tradizionala kritikoki objektatzen zaila da. Azterketaren gainetik, zeregin hori ezinezkotzen duten milaka irudi afektibo sortzen ditu guregan. Diogun, haatik, moduak populistak izan direla, gaiak arrunt eta egunerokoak, arinak disparo poetikoak, eta inpakto lirikoa, jeneralean, bide luzekoa izan dela, gurea bezalako nekazal gizarte bati ez zegokiona. Gure baserrietan kantaturiko XVIII. mendeko kanta batetan pentsatzen dugunean, zaila gertatzen da haien asaskaldi lirikoa hain fin eta kultoa zatekeela irudikatzea. Lirika musikalarenganako, ezen ez beste lirikenganako, zera bereziki sentzible batek, kantategi eguneroko gertakarietatik, nekazal gizarte bat bizi zeneko molde gogorretatik, zerbait etena moldatu du Euskal Herrian.

Interpretapenaren alderdi oso karakteristikoa, kanta amankomunarena izan da. Euskaldunak, agerpen lirikotan herabeor eta lotsatia bera, beti elkartean kantatu du, koruan... Kurioso da gure karakterologiaz ohartzea: Euskal Herriak ez du inoiz aktorerik «sortu». Ezta kantaririk ere. Salbu atributu preziatu bati esker, hala nola ahots zoragarri bati esker, lehiatzen ziren haik. Euskalduna, antzezpenekoan bere burua desgizonduko duen beldur da, teatroko fikziokoan bentzutu, maitemindu nahiz harro aitortuz, bere burua beheratuko duen beldur. Horretatik taldean kantatu beharra, koru batetako multzoan ezkutaturik. Horretatik, halaber, gure ezaskitasun dramatiko eta gure kantategiaren eta gure kantarien eskapismo oniriko klasikoa. Interprete bezala, gauza politak esateko bakarrik izan gara gauza, sekula ez antzezteko.

Atzera begira jarririk, salbuespen bakar bat aurkitzen dugu: Iparragirre «arlotte» handia. Bertsolariak eta bertsolaritza izan daitezke beste adibide atipiko bat. Bi kasuetan, euskaldun bitxi baten karakterologia edo eskola orijinal bat, irazkin luze eta espezifikoa merezi luketenak. Beste guztia, koru handiak, orfeo handiak, komunitarismo musikala eta, gainera, dozena bat izen ospetsu «Bel canto»aren arloan, ahots apartekodun eta zeintzuen azentu dramatikoaz, orain ardura zaigunaz, aipamen gutiko abere sakratuak berak.

Karakteristika edo ezaskitasun dramatiko honek nabarmenki eragin du kantategiaren repertorioan. Edo protagonista batentzat idatzi eta geroago interpretapen handios edo astun, arranditsu

edo distiratsuegia jasan duten lan askoren deformazioan. Izan ere, gure interpretapena monokordea bait da. Kantu eskola zoragarri bat sortua genuen. Polifonismo liluragarri batetan hezia zegoen herria; hiru euskaldunek orfeoi bat egiten zuten, erre-frauak zioenez... Baina kanta, bere espresio mota milarekin, aldebakarki erabiltzen zen eta beste interpretapen arlotara luzatzea arriskutsutzat joa zegoen bere heterodoxiatik.

Euskal kanta 1965-1970

Ehunaldiaren lehen erdiak utzitakoaz bizi ginen orduan. Lehenik, behar hainbat sekula eskertuko ez dugun R.M. Azkuek egindako lan eskergaz, kantategi tradizional osoa entziklopedi eran bilduz egin zuenaz. Bestetik, Aita Donostiak modu kulto batetara egindako transposizio genialetaz. Bi izen hauekin has-ten da euskal kanta kulturizatuaren historia.

Gerra aurreko Usandizaga, Guridi, Sorozabal etabarren azen-tu modernoagoak; opera kantarien interpretapen molde enfati-koak, ezkontza eta oturuntzetan okasioko tenorinoaren luzimen-durakoak; eta *Belle époque*-ari zegokion polifonismo akademi-ko bat, kora eta otxotetan amaigabe eta beti berdin errepikatzen zena: hori zen, guti gorabehera, gure kantak garai hartan eskain zezakeena. Egia da aire berriek eskenatokira eramana zutela bosteko ezagun bat, urte luzetan «music-hall» delakoaren eskenato-ki mundialak arrakastaz kurritu zituena. Eta diska industriak lehenengoz ekoizten zituela beste bosteko batek —beti kantu amankomuna, nahiz eta gutienera murriztua— kantaturiko dis-kak, berrikuntzok zekartzatenak: euskal herri kanten interpre-tapena, edo euskaraz kantatuena, eta orkestra aparailu garaiki-deaz jantziarena. Ahalegin txalogarriak, baina mugatuak, gure herrian hain garrantzizkoa den agerpen arlo honentzat.

Eta gure inguruan, zer ari zen gertatzen? Diskografi indus-tria bere aldirik loriatsuena abiatzen ari zen. Eta artean artista hautatu eta pribilejiatu guti batzuren ekoizpenaz hornitzen zen industria honek, ekoizpen programa zabalagoak landu beharra zeukan. Eta 1965 aldera, gitarra eskutan, beren erara kantatu nahi duten gazte saldo bat agertzen da eskenatokietara artista tradizionalen molde estereotipatu nahiz eta kultoak hautsi nahi-rik. Entzuleriak, harriturik, aldakuntza nabari du. Eta txalotzen. Egiaz, kanta eskenikoa molde demokratikoagoaz sortzen da, eta, ondorioz, ugaldtu egiten dira kantak, estiloak, eskolak eta mo-duak. Baztertu zen 65.a arte nagusi izandako elitismo hura:

garai hartako eskenatoki gaineko artista izaki zerutar bat zen, publikoko beste inork egin ez zezakeen bezala mintzaten eta kantatzen zekiena. Eskenatokia babel deskonposatu eta demokratikoa zen, modu formal guztiak hautsiak zeuden, eta edozein, ahotsik zatarrenaz, era dramatikorik genialenaz nahiz higuinagrienaz, ausartzen zen entzuleriaren aurrean. Eta honek txalotu egiten zuen.

Gure herrian ere fenomeno bera eman zen. Inork baino haren premia larriagoa genuen guk. Zeren, gainera, moduak zaharkituak bait zeuden. Eta ideario politiko eta soziala bizkor ari zen demokratikotzen, eskenatokia izanik haren komunikamolde-rik erakargarriena eta gutien konprometitua.

Horrela, bide tradizionalekin erabat hautsiz, gure artista berriak agertzen dira. Hauk, bestalde, ez dira interpretapen arlora mugatzen; aitzitik, modaren beste eredu unibertsal bati jarraituz —kantautorearen estereotipoari jarraituz—, bakoitza bere errepertorio bereziarekin eta bere molde orijinalekin azaltzen da. Hurbileko kantategi batekiko, frantsesarekiko, harremanak nahiz horren ezagutzapen espresoak egin zuen gainerakoa. Kantautorea ez zen Frantzian, musika unibertsalean bezala, nazioarteko diskaetxe handien beste kontsumo molde bat sortu beharraren ondorio baino. 65eko artista prest zegoen tradizioarekin hausteko, desgaraiz kantatzeko, estereotipo formalak desegiteko; eta gorputz gorritan, bere intuizioaz, bere ideario politikoaz, bere gitarra espainolaz, goitik behera berak sorturiko errepertorioaz, bere ezaskitasunarekiko askitasunaz, eta, batez ere, bere kantaren bidez, bizitz programa desberdin bat komunikatzera zetorren. Hila zen kontsumo kanta. Gora testigantz kanta!

Mundu guztian batera jaio zen fenomeno honek, gure artean ere izan zuen bere oihartzuna: dozena erdi bat artista bakarti baina *Ez dok amairu* bezala ezagutu genuen gorputz sozietario batetan bildurikoen ibilaldia.

Horiei zor zaie euskal kantaren egiturak berriztatzearen ohera. Beharbada zera esan beharko genuke: ordura arte egindakotik erabat bereizirik aldi desberdin bat abiatu izanaren ohera. Bapatean lozorrotik esnatu eta berehalako batetan modu unibertsaletara egokitu izan bagina bezala. Horrek berekin dituen abantail eta desabantail guztiakin. Esperimentazio modu agresibo bat zen, oharkabe eta errespetogabea, baina epe berri baten hastapena zen.

Herriak txalotu egin zuen asmoa. Errepresio faxistak preikusi gabeak zituen komunikabide honen artesiak. Eta kanta zela

medio, garai hartan bestela zeharo pentsaezinak ziren gauzak kontatu eta kantatu ziren. Eta herriak, artistak ez baino liderak ikusten bait zituen, sutsu txalotu zuen ekinaldia.

Urteak pasa ziren. Dozena erdi bat artista, artista oso guti dira herri batentzat. Kantaren mundua aurrera eramatearen erantzukizuna zuten; nola artistak ezezik erantzuleak ere baziren, agudo konturatu ziren beren molde anarkikoek eta herriaren zentzu kritikorik ezak interes mugatuko produkzioa ari zirela sortzen eta, batez ere, ez zutela lortzen maila dramatiko eta estetiko goragokotara hedatzea. 1970 aldera —buruz ari naiz— esperimentu eskeniko bat muntatzea pentsatu dute, *Baga, biga, biga*, hots: garai hartan Europa zirrara arazten zuen obra baten berrikuntzak —Ragni, Rado eta McDermont-en *Hair*-enak, alegia— adaptatuz eta elementu folkloriko zenbait gehituz, obra kohesiotu bezala desarroila zitekeen «musical» baten koadroan, beren errepertorioei bizitza formal bat emateko.

Ondorioa, esito bat izan zen. Bere muga eta guzti, euskal eskenatoki batetan gaurdaino egin den esperientziarik interesgarriena izan zen, zalantzarik gabe. Eta *Ez dok amairu* izenpean bilduriko pertsona taldetxo batek apalki eta etorkizun zentzu handiz hasitako goraldiaren emaitza izan zen. Entitate horri zor diogu gaur, gustatu ala ez, euskal kantak munduan azaltzen duen aurpegia.

Euskal kanta 1970-1975

Baga, biga, biga-rekin gertatu zen gailurreratze itxaropentsu hark ez zuen jarraipiderik izan. Gisa hartako beste emankizun eskeniko bat sortzeko adorerik ez izanki, *Ez dok amairu* desegin egin zen. Egoera ez zen 1965ekoa bera. Zeren orain entzuleriak hautatuak bait zituen bere gogokoenak eta sortuak bait ziren figura publikoak. Gainera, elkarte esperientzia hura oso baliagarria zatekeen benetan talenturik zutenentzat. Eta euskal kantak aurrera jarraitu zuen, 1965ean hasirikoa baino protagonismo oraindik handiagoz.

Sortzaile guti batzuk bakarrik eman zezaketen produkzio ugaria eskaka zegoen entzuleria antsiatuaren aurrean eta tribuna librean aurkitzen zireneko lehen epean esan behar zuten guztia esan ondoren, nabaritzen den lehen ondorioa, reflexioarena da. Zaila da kantaren mundu osoa hain protagonista gutirekin bersarkatzea; protagonistok, gainera, jokamolde bakar bat besterik

deskubritu gabeak ziren, hots: *kantautore* egoerako jokamoldea. Bakoitza zen bere letren, bere musikaren, gitarraren hesparruko bere laguntzaren erantzule, eta, gainera, kantatzearena. Literatur kanta frantsesak —gonbaraziotarako honengana jo behar— lau kantautore genial bakarrik eman ditu aldi modernoetan, bere tradizio eta ahalmen guztiaz. Fenomenoa nolabait konpondu beharra zegoen hemen. Eta lehen ondorioa, apaltasunezko jarraia izan zen. Euskal kantautoreak atzera begira jarri ziren eta, *impasse* hartako lehen bost urteak igarorik, folklore kanta aztertzea erabaki zuten, Azkue berraurkitu zuten eta ez zuten eragozpenik batere izan orduan «protestako» deitu kantak kanta tradizionalik politenekin nahasteko.

Eta 70-75 epe honetan sortu ziren herriaren artistatzat kontsakarzen ziren hiruzpalau euskal kantautore handiren inguruko onharpen publiko jeneraleko fenomenoak; orduan eman ziren errezitak ongien moldatuak; orduan argitara zen kanpotarrei lotsarik gabe aurkez diezaiekegun zenbait diska; orduan jaio ziren bizitza luzea ukanen duketen kanta batzu. Ardo jadanik ondu bat bezala zen, bost-zazpi urte lehenago zaratatsu irakiten hasitakoa bezala.

Euskal kanta, gaur

Diktadore handiaren heriotzak badu ondoriorik, itxaron zitekeenez, euskal kantaren arloan ere. Honek, bapatean, bere espresio hesparru murrizta zartatua aurkitzen du eta harriturik ikusten, zentsurak ez duela jadanik sehaska kanta bat edo XIX. mendeko bertso klasiko batzu abestea debekatzen. Tamalez, diskografi industriaren eragileak ere ohartzen dira gertaera horretaz, eta baliatzea erabakitzen dute. Hor doaz herriz herri, mutiko gazte eta eztrebe bila, hauentzat bizitza laburreko baina industriarentzat etekin luzeko kontaezin ahala diska sortu eta promoziotuz. Partidu politikoak ere liberatu bait dira, eta promozio eta hauteskunde kanpainatan murgildurik baitabilta, hauek ere lider liriko berriak bultzatzen dituzte beren artean; eta herriak, txunditurik, ez daki baiezkoa ala ezezkoa eman. Kasu biotan, kreatibitate artistiko jatorrari arrotz zaizkion interesek mementuko «*impasse*» bat sortzen dute, entzuleriaren usaimen finak gaindituko duena.

Ez zen makala 1976ko txundidura. 65-75 urteetan kontsokratuak aitzindari haiek desagertu zirela ematen zuen, jaial-

dietan nahiz diskagintzan lehen mailako figura baten espantuz zetorren gazte ezezagunarenganako liluramendu hartan. Denbora guti pasa da oraindik eta zaila da balantze objetibo bat egitea. Edonola ere, eta ugaritasuna dohain bat baldin bada, baduke irabazirik euskal kantak.

Fenomeno harrigarri bat, balio berrien eklosio honetan: kantautorearen estereotipoa errepikatu egiten dela. Promesa berri ia guztiak gizonetzkoak dira, gazteak eta produkzio liriko osoaren autoreak, hau da: Testu, musika, laguntza, interpretapen eta diskografi produkzioaren ere egile. Irudimen falta ote? Ala, euskal kanta moderno bat kantatzeko, mutiko bizardunek bakarrik balio ote?

Hala ere, reflexiorik mingarriena beste arlotan gertatzen da. Euskal kantak, 65-70eko epe latza igarorik, lortua zuen heldutasun formal maila bat. Inoiz, testu oso politak agertzen ziren, herri «rengaine»en gainean eta interprete trebatu batek esanak. Baina itsumustuan, testu panfletario, erreboltari eta burugabeen, askotan rima txar eta espresio okerrago eta primarioagotan emandakoen epe bat dator ondoren. Guzti hori eramangarri zatekeen, baldin komunika moldean mementuko kanta unibertsalaren estereotipoak inkorporatu izan balira; baina temarioaren zahartasunari amateuren ezaskitasun dramatikoa lotzen zaiola ikusten da, hainbat interpretapen modu artxiezagunen imitazio kaxkarretan.

Diska berrien azal dotore eginek —hori bai, kanta europarraren lehen figurek berentzat nahiko luketen «standard» profesional batez aurkeztuak orain— ezin dezakete gorde haien edukinak sortu digun dezepzioa, kasu guti eta ongi determinatu batzutan izan ezik. Nahí ala ez, epe historiko berri batetan abiatuak gaituzu. Eta neo-romantizismo batek edo 65-70 urteen «revival»ak ez dio batere mesederik egingo euskal kantaren historiari. Arlo osoa zabalik baitu desarroilatzeke... Molde berriz, forma berriz eta sortzaile berriz. Baina burrukara dakorkeenak, ongi jabeturik etorri beharko du, entzuleria eta euskal kanta berria igaroak direla dagoeneko epe heroikotik eta txaloe artistarik onenarentzat izango dela eta talentutsuenarentzat erramu koroa. Demagogia, noski, baztertu beharra dago... Kanta ezin daiteke jadanik «protestakoa» izan, protesta egiteko bide egoikiagorik bai baitago gaur. Izan gaitezen zuhurrago, eta ekin diezaiozun «testimonial» hobeto deituko litzatekeen kanta aldi berri bati.

Euskal kanta berriari hurbilketa zenbait

Hamabi urtetako esperientziak gure kantaren irudi itxuraldatua itzuli digu. Onerako ala txarrerako? Fenomeno soziologiko eta komunikaziozko bezala, arma erabakitzaileria izan da kanta berriarentzat, eta horretaz ez du inork zalantzarik. Baina gure egitekoa, hura komentatzerakoan, besterik da. Balantzea egitean, zer geratu da etorkizunerako? Eta nora eraman gaitzake hasita-ko bideak?

Kulturizazioa

Euskal kantaren arduradun guztiak ados daude modu formal kultoak berreskuratu beharraz, gure artean hain sustraitua den espresio mota honen balio estetiko bereziak indartzuz. Eta berehalako neurri bezala, koadro dramatikoak hobetzen saiatzen dira, kanta kaskaildu eta testu literario bati menpekotuaren fenomeno soziologikoa gaindituz, komunikapen elementuak era ordenatu eta armoniko batez emango dituen kanta-kanta bat sortzeko. Orain arte nagusi izan dugun kanta razionalistari, beste batek jarrai diezaioke, razionalismo maila hori maila oniriko eta lirikotara jaso dezakeena, forma musikal eta interpretatiboaren eboluzioari esker eta komunikazio mota horretako arlo formal desberdinen arteko oreka sortuz.

Autoktonia

Berreskuratzekoa, edo kanta modernora inkorporatzekoa litzatekeen beste alderdi bat, gure molde tradizionalak itxuratu dituen da. Polifonismoa, elkarte kanta edo kanta amankomunitzat ulerturik, eta mundu modernoan egiten deneko moldeez, bariante bat izan liteke gure musikak darabilen modu formal monokorde samar honetan. Horretarako trebetasuna tradizioz datorkigu. Entzuleriak txalotu egiten du espresio polifonikorik tipi eta errazena. Arlo honetan gauza harrigarriak egiteko gauza gara gu, gure musik heziketa klasikoak ahotsetara kantatzera baikaramatza. Hautsi egingo genuke, bestalde, euskal kanta osoaren protagonista absolutua den «katautore»aren interpretapen monotonia hori, eta aurpegi dramatiko berri bat lortuko genioke geure kantari. Molde formal aski karakteristiko eta arras autoktono bat berreskuratzeaz gainera.

Eta autoktoniaz mintzo, proposamendu berri bat: gure herri kantategi osoaren irakurketa sakona. Badu karaktere bat. Eta aldiak zehar elkarri jarraitu dioten forma batzu. Edozein kanta

ez da euskal kantarik. Baditu honek ere molde espezifikoko, melodi teknika, estruktura edo kanta gorputz, kadentziapen molde bereziak; eta ez dago horik bapatean ahanzterik, euskaraz kantaturiko molde erabat internazionalak kanta aldi bat abiatuz, baina bere historia guztia zehar berezi izan zuen musik azentu espezifikoa galdu eta gero.

Berreskurapen estetikoak

Ohartu beharreko beste alderdi bat, entzuleriak jasan duen biziapena da: kanta molde soil literario batetan hezi izan da, haren estruktura estetikoaren gainerako guztia ukatuz. Telebisitak eta zinemak, esan ohi denez, suntsitu egin dute irakurketa. Gure herrian, publikoa irakurtzeko premiatik askatu duen birtarteko teknika izan dela kanta, esatera ausartuko nintzateke ni. Telebista eta zinemaren ikusmeneko irakurketa, gure kantategiaren entzumenezko irakurketaren paraleloa da. Kantategi hori egoera horretatik jarein beharra dago, bere koordenada estetiko zehatzetan ipintzeko eta heziketa estetiko berriaren aldi berritzultzeko publikoari.

Populismoa

Atzera begira jarri, gure Kantategia bere askotarikotasunaz berezten da: hor aurkitzen ditugu kanta maitasunekoak, bakikoak, festatukoak, ironikoak, kritikoak, epikoak... Gure kantategi modernoak, aldiz, herriaren une guztietan kantatu beharra ahanziz, «leit-movit» bakarra duela ematen du, gisa intelektualeko kanta dela medio. Ongi dago sortzaileen eta entzuleriaren elite batentzat; baina guztiz beharrezkoa da espektroa hedada dadila eta kanta, bere motarik herritarrenetan —jai kanta, intranszendentea, onirikoa eta baita kontsumokoa ere— ugaldadila, publikoari egiten zaion eskaintza integrala izan dadin. Gure herrian standard unibertsalaz pittin bat kutsaturiko kantak gaitzesteraino iritsi ziren aurreritzi radikalak bazterturik, gure herriak kantategi razional eta osoa moldatu behar du. Enfasi intelektual guztiak erantzi beharra dago, beraz, eta herria gure gure sorketaz hunkitzen saiatu beharra. Eta herria hunkitzea, horren hizkuntza bera erabili beharko dugu... Hizkuntza herri-tarra, lainoa aldizka, baina ez horregatik gutiago eder eta baliozkoa.

Lan taldeak

Gure kantategiaren eboluzio integrala ezinezkoa da, ebolu-

zio hori osoki kantautorearen esku utzia dagoeno. Ezinezkoa da, okasio oso bakan batzu salbu, pertsona bakar batek testu on bat, musika on bat, laguntza on bat (betiko gitarra espainolaz) sortzeko modurik onenak aglutina ditzan eta gainera komunikapen kantatu on bat lor dezan. Utz diezaiozun kantariari interpretetza, eta hauta ditzagun onenak. Letragileek beren alde tik lan egingo dute, musikagileekin lankidetzan. Eta arreglistek gaia lekutzeko inguru musikalik onena sortuko dute. Gaia eta komunikapena, espezialista talde baten lanaren emaitza izango dena. Lankideen elkarteak izan liteke euskal kantak abiatu beharreko erarik berehalakoenetako bat, etorkizunerako planteamendu batetan. Imajina dezagun, adibidez, Gandiagaren «Udaberri» bezalako testu sintetiko eta musikal bat, gure aldiko melodistarik onenak, Tomas Garbizuk, musikatua, musiko gazte eta moderno batek, eman dezagun Jabier Iturraldek, arreglatua, eta gure interprete dramatikorik onenak kantatua. Zalantzarik ez, ondorioa ikusgarria izango litzatekeela. Berria, erraza, eta desberdina. Eta batez ere, estetikoki baliozkoa.

Agerpen eskenikoa

Poliki-poliki, hobetuz joan dira gure jaialdi eta rezitaletako modu eskenikoak. Baina polikiagi. Gaur esan daiteke, gure edozein kantariren interpretapen maila, interpretapen hori ematen deneko eskenatokiaren goitik dagoela beti. Komunikapen informaletara mugaturik, hutsaren hurrengo inpaktoa sortuko luke ten kantak, pentsa ezin ahaleko mailalara igoerazten laguntzen dute interpretearen jarrera eskeniko eta dramatikoak, honen inguruan sorturiko giroak, argitzapen eskenikoak, programaren progresio dramatikoak, entzuleria hezi eta esijentearen erantzunak eta beste hainbat elementu bigarren mailakok.

Beste alderdi kontutan hartzeko bat, kanta programa bat agerpen teatral edo eskeniko batetan gorpuzturik emateko posibilitatea litzateke. Mila modu desberdin ari dira esperimentatzen mundu guztian, akzio eskeniko batetan txertaturiko musika kantatuz. Modu konplikatua, nahiz lainotasun distiratsuzkoak. Aparatu eskenografiko ikaragarri konplikatuen premian diren estiloak, nahiz literatur kabaret baten erdian sinpletasun absolutoz ematen direnak. Eta ezin garaitu dut azken arlo honetako esperientzia bat gomendatzeko tentazioa. Aktore-kantari ingeles guti batzuren artean egina, Londongo Mermaid Teatroko azken espektakuluetakoa: «Cowardy Custard», «Cole» edo «Syde by Syde by Sondheim». Garai batetako «raconto» eskenikoak, au-

tore jakin batenak, publikoari zuzenki esplikatuak elementu direktuen bidez, agerpen teatraletan, mimikoen, pantomimikoen, koreografikoen eta batez ere musikalen bidez. Goi tentsio emozionaleko uneak jendeak algaraka barre egiten dueneko beste batzuekin txandaturuz doan progresio dramatiko batekin. Azterturiko egoera kritika garrantz eta zauritzailez errausten duen temario batekin eta hcgaldi onirikoa geldiezin deneko momentu batzuekin, azken batez espektakulu lirikoak izanki. Eta efikazia teatral guzti hori, aipatu kasuetako batean, lau aktore eta bi pianojoleren lanaz sortzen da. Horren lainoki. Horren genialki, halaber.

Gogora dezagun gure arteko *Baga, biga, biga*-ren esperientzia. Noizko bigarren partea?

Kritika

Premiazko akuilua da sortzaileentzat. Euskal kanta berriak ez du kritikarik izan. Gehiegizko «chauvinismo» batek atzera eragin digu guztioi gauza bakoitza zer iruditzen zitzaigun zabalki aitortzetik. Kritika sana, maitasunez egina, ez da sekula etsai bat. Eta euskal kanta berriak hasia duen kulturizazio egiteko horretan, kritikaren kapitulu hau dateke gutien landua. Ez baita egon ere, egon.

Egia da, epe berria hastean, eta zentsura faxistarengandik jasan behar zuen presio kritikoa zela medio, gomendatzekoa zela zentsuragaiak gorde eta lorpenak bakarrik ospatzea. Baina gaur lortua du euskal kantak halako heldutasun bat eta iragana dugu aldi heroikoa. Horregatik, kritiko eta espezialista talde bat antolatu beharra ikusten dut, gure kantaren arloan gerta daitezkeen gauza on ala txar, lorpen ala hutsegiteak kritikatu, ospatu, zuzendu nahiz kontseilatuko dituen.

Eta bihar

Nola iger etorkizunari? Zer miretsiko, entzungo edo kantatuko dugu bihar? Igarpena aski zaila da. Kanta, komunikapenaren elementu bizi hau, moden airera edo eguneroko emozioak adierazi behararen araura kulunkatzen da. Ebidentea, zera gertatzen da: azken 12 urteotako esperientzia emankorra datekeela. Kanta unibertsalaren espresio arloetara iristeko lehiak, berez justifikatzen duela aldi historiko oso hori. Azken urteotako euskal kantak, gainera, garrantzirik handieneko egiteko soziologiko bat burutu duela, eta herriak hartzen dueneko maitasunaz eta

haren jagole eta sortzaileen azterketa ordenatuaz, gaindi litekeela kinka gaizto hartako haren galera estetikoak.

Gainera, esperantza etorkizunean dago... Bizitzea tokatu zai-gun prologo sukartsu eta kritiko hura iraganik, euskal kanta, gure herriaren beste hainbat espresio bide bezala, lotsarik eta inhibizio represiborik gabe, bularra betean abes daitekeeneko maila batetara iristen ari da. Eta bukatzeko, belaunaldi berri bat dator, hobeto prestatua, kultur hondo sakonagokoa, berrikuntza estetikoen antsiaz, musika kultoa bir-topatu duena, euskara akademiko bat ikasten duena... Bere artistak sortu eta bere kantak kantatuko dituen belaunaldia. Eta, gureak bezala, bide berriak irekiko dituena, espresio mota herritar zoragari honetaz kapitulu historiko berri bat idazteko. Kanta berri bat, ez gehiago, ez gutiago.

Euskaratzailea: **Joxe A. Aduriz**
L. I. E.

APROXIMACIONES A LA NUEVA CANCION VASCA / APPROXIMATIONS A LA NOUVELLE CHANSON BASQUE

La canción, que se define como un texto soportado musicalmente, es un medio de comunicación social. Texto, música e intérprete son indisolubles en una canción perfecta.

En el País Vasco, por falta de academias, la música vasca se reduce principalmente a la canción, expresión popular. El País Vasco ha producido una lírica musical impropia de una sociedad rústica como la nuestra. Entre las características de nuestra canción, podríamos citar, aparte de la cadenciación, las modulaciones temáticas y el temario, el canto comunitario (causa y efecto quizás de nuestra insuficiencia dramática).

Hacia 1965 la canción vasca vivía con lo que había legado la primera parte de la centuria: Cancionero de Azkue, composiciones del P. Donosti, de Usandizaga, de Guridi, de Sorozabal. Y poca cosa más. Es hacia el 65 que aparece en el escenario mundial una turba de jóvenes, guitarra en ristre, que tratan de romper con los modos estereotipados. Lo mismo sucede entre nosotros. Todos ellos siguen el estereotipo del «cantautor», que es responsable de la letra, de la música, del acompañamiento y del canto. Nace la canción testimonial. El grupo más importante es Ez dok amairu, que inaugura una etapa diferente. Hacia el 70 realizan un experimento escénico musical importante: «Baga, Biga, Higa».

Pero «Baga, Biga, Higa» no tiene seguidores. Ez dok amairu se desintegra. Los «cantautores» vascos echan la vista atrás, y superados los 5 primeros años de «impasse», consideran el acervo de la canción folklórica y redescubren a Azkue. Es durante estos años (70-75) cuando se da por

parte del público el reconocimiento hacia tres o cuatro cantantes vascos.

En cambio, en 1976 hay un desconcierto general. Gracias a la apertura temática, y a causa de la búsqueda de los promotores de la industria discográfica de jóvenes e inexpertos muchachos, palidecen las grandes figuras ante el relumbrón de algunos nuevos. Estos repiten la figura del «cantautor», con un texto panfletario y con una insuficiencia dramática propia de «amateurs».

La canción vasca del futuro debe ir hacia una evolución de la forma musical e interpretativa, debe recuperar los modos formales cultos, debe potenciar los valores estéticos propios así como la autoctonía (polifonismo comunitario, etc.) y debe ampliar el espectro de la canción saliendo de la canción únicamente de corte intelectual. Hay que crear equipos de trabajo, en los que el intérprete, el letrista y el arreglista colaboren. Hay que cuidar la representación escénica, la progresión dramática del programa, el programa de canciones en un cuerpo de representación teatral o escénica, etc. Y, por fin, ante la ausencia de la crítica, hay que instrumentar un cuerpo de críticos y especialistas. Ahora que la nueva canción ha adquirido madurez, la crítica será un incentivo para los creadores.

La chanson, par définition texte porté musicalement, est un moyen de communication sociale. Dans une chanson parfaite, le texte, la musique et l'interprète sont indissociables.

Au Pays Basque, par manque d'académies, la musique basque en est réduite, en grande partie, a la chanson, expression populaire. Le Pays Basque a produit une lyrique musicale de grande qualité, au-delà d'une société rustique comme la nôtre. Parmi les caractéristiques de notre chanson, nous pourrions citer, à part les cadences, les modulations thématiques et certains thèmes, le chant communautaire (cause et effet, peut-être, de notre insuffisance dramatique).

Vers 1965, la chanson basque vivait de l'héritage de la première partie du siècle: Chansonnier d'Azkue, les compositions musicales du P. Donostia, d'Usandizaga, de Guridi, de Sorozabal, et pas grand chose de plus. C'est vers l'année 65 qu'apparaît au grand public une foule de jeunes, accompagnés de guitare, qui essaient de casser avec les modes stéréotypés. Il est de même chez nous. Tout le monde suit le stéréotype du «cantautor», où le chanteur est le responsable des mots, de la musique, de l'accompagnement et du chant. Il naît la chanson «témoignage». Le groupe le plus remarquable est **Ez dok amairu**, qui inaugure une étape différente. Ce groupe réalise vers l'années 70 une expérience musicale importante: «Baga, Biga, Higa».

Mais «Baga, Biga, Higa» n'a pas de suiveurs. **Ez dok amairu** se désintègre. Les «cantautores» basques regardent en arrière et, une fois surmontées les 5 premières années d'impasse, considèrent la richesse de la chanson folklorique et redécouvrent Azkue. C'est vers ces années là (70-75) qu'il y a une reconnaissance générale de trois ou quatre chanteurs.

Par contre, en 1976, il y a une confusion généralisée. Grâce à l'ouverture thématique et politique, d'une part et d'autre part notamment de la recherche de jeunes gens sans expérience par des promoteurs de l'industrie discographique, les grandes figures de la chanson pâlissent face à l'éclat de certains jeunes. Ces derniers reprennent la figure du «cantautor», avec un texte pamphlétaire et un manque dramatique propre d'amateurs.

La chanson basque de l'avenir doit aller vers une évolution de la forme

musicale et interprétative; elle doit récupérer les modalités d'expressions travaillées, doit accentuer les valeurs esthétiques propres ainsi que l'autochtonie (polyphonisme communautaire, etc.) et doit amplifier l'éventail de la chanson en sortant de la chanson uniquement de style intellectuel. Il faut créer des équipes de travail, dans lesquelles feraient un travail d'ensemble en collaboration l'interprète, le paroller, et l'arrangeur. Il faut soigner la représentation scénique, c'est-à-dire, l'ornement scénique et dramatique, l'atmosphère, l'illumination scénique, la progression dramatique du programme, le programme des chansons dans un corps de représentation théâtrale ou scénique, etc. Etant donné l'absence de la critique, il faut, enfin, préparer un corps de critiques et spécialistes. A l'heure où la nouvelle chanson basque a acquis de la maturité, la critique sera sans doute un aiguillon pour les créateurs.

Kanta Berria aztertzen

Joxe A. Artze

Joxe A. Artze Euskal Kanta Berriaren testigu hurbil eta partaide ere izan bait da, honen eritziak jaso nahi izan ditugu azken urteotako euskal kantaren estetika dela eta. Joxe R. Belokik egin dizkio galderak.

Kanta Berria deitu zaio azken urteetako kantagintza bati. Zergatik berria? Azken ordukoa izate hutsez?

«Kanta Berria» delakoa erabat industrial aroko gizartean kokatzen da eta gizarte honetako hainbat arazori erantzunak ematen lehiatzen da. Herri zapalkuntza, langile esplotazioa, gizakumearen bestelakatzea, elkar arteko inkomunikapena, ekozidiodia, etab. izango dira gehien erabili dituen kantagaiak. Aurreko denboraldietan, bakar batzuk erabili dituzte honelako zenbait gai (Etxahun zaharrrak, Artutxako Motzak, Deba Harroako forjariak, Lizardik, Lauaxetak...); baina, mugimendu bezala, ez da lehen honelakorik izan. Doinu aldetik, berriz, ohi ez bezala, musika ikasketarik egin gabeko jendea hasten da kantuen musika egiten; ez

hori bakarrik, baita jendaurrean kantatzen ere. Neurri batean aintzinako koblakarien tradizioa berpizten da.

Esan ote genezake Kanta Berriaren berritasuna 60 hamarraldiko politika «berriaren» edo kultur «berrikuntzaren» gisako zerbait dela?

Belaunaldi baten arte-adierazpideetako bat da Kanta Berri hau. Gure herriko beste artisten lanarekin ere ukan du zerikusirik, batez ere Euskal Eskolako eskultore eta pintoreenarekin, nahiz eta kantariak ohizko formei lotuagoak egon. Eta zer esanik ez ikastolen eta politik oldarraldiekin ukan dituen harremanak. Beste gerra bat galtzeak, gerra honetan burukatu zuten ondorengoak izateak, faxioak eta inperioak ezarrirako zapalkuntzak, gure hizkuntza eta kulturaren egoera desesperatuak, mundu eta denbora honetan bizitzeak, etab., eta guzti honi nolabaiteko erantzun bat eman beharrak, esan dezakegu, bultza duela mugimendu hauen sortzea.

Zertan edo zertzutan bereizi uste zuen aurrekoengandik, Kanta Berria egiten zuenak?

Gerra ostean, hemen, bi kanta moeta kantatzen ziren gehienbat: kantu zaharretatik moldatutako halako kantu polifoniko-errusiar bat, eta isilka edo gordean, abertzaletasuna soilki erabiltzen zuen erresitentzi kantua. Oraingo kantuak, aldiz, egun eginak dira eta, abertzale gaiak kanpo, sozial girokoak ere erabiltzen ditu, eta kantu zaharrak ukitzean, alferrikako apaindurarik gabe, halako ordukotasun eta soiltasun batez ematen saiatzen da.

Kanta Berriaren berritasuna tematikan, ala estetikian, ala bietan finkatu behar da?

Kanta Berriaren barrutian, bertsolaritzan bezala, gaiak zerbait aldatu arren, funtsean, estrukturalki lehengoan jarraitzen du kantak. Egitura zaharretako kantuak dira. Ama tradizioa uztera menturatu ez dena. Eta tradizioak gauza onik badu, halafede, erabiltzen jakinez gero; ez, ordea, berak menperatzen bagaitu eta bere altzo goxotik ateratzera ez bagara ausartzen. Bat edo bestek jakin du tradizioa eta bide berri urratzea ongi lotzen.

Haseran izaniko ardura tematiko berrietaz hitzegun... Kantari berri asko eta askok poetengana jo dute beren kantagin-

tzari hitzak ematerakoan. Zuregana, adibidez. Elkar-lan hau nola egin da? Egin behar zen modura?

Nik zenbait gauza idatzi dut eta honetatik zenbait jende hartu eta musikatu egin du. Elkar-lan, elkar-lan konkreturik ez da egon. Textu bati musika jartzea, edo alderantzizkoa, oso lan pertsonala da, nagusiki bakarka eta bakardadean egitekoa. Ez dut uste idazle batek laguntza handirik, musika aldetik esan nahi dut, eman diezaiokeenik kantaegile bati. Poema nondik nora doan edo nola eta zertan oinharritzen den edo duen egituraz zerbait hitzegin dezakezu, baina, horretatik landa ezer gutxi. Gainera, poema irekia bada, hobe da hartaz guti hitzegitea, muga ez dezagun. Poema eginez gero, idazlea bera ere irakurle bihurtzen da, hau da, poema horri buruz zerbait esan dezakeena, baina, ez dena. Poetak ez du bere lana osoki kontroltzen; gauza asko eta asko ez daki nondik etorri zaizkion, beraz berak bezainbat eritzi eman dezake bere lanaz beste edonork. Poema batek beste poema bat sortu behar du irakurleagan. Poema hori da kantariak edo bestek musikatzten duena. Adibide bezala, besteren artean, bi kanta jarriko ditugu. Mikel Laboak musikaturako «Zaude lasai» eta «Baga, biga, higa» kantak. Hemen Mikelek, nire ustetan, textua abiapuntu bezala hartu du, indar zirikatzaile bat bezala, eta gero han joan da berak bakarrik dakizkien edo ezagutu nahi dituen tokietara, textu guztien gaindi, berea izango duen textuaren atzetik. Ez dago esan beharrik, zeinen interregarri eta aberasgarri den batentzat, beste disziplinetako jendeak baten lanari zer nolako tratamendua eman dion ikustea.

Tematika berritasunak, diferentziak sorrarazi ditu kantariengan: adibidez, Ez Dok Amairu-rengan; taldea hausterainokoak, gainera...

«Ez Dok Amairu»ren helburuak, sortu zenean, hauetxek ziren: ezagutzen ez genuen gure herriaren kantakeraz eta kantugintzaz jabetu eta, tankera historiko horren bidez, garaiari zihoazkion kantak sortzea. Taldea, berriz, honela egituratu zen: batek taldea aberastu, taldeak bakoitza. Bakarka eta taldeka egiten zen lana, elkar informatuz, batak bestea kritikatu... Azken fruitu bezala, «Baga, biga, higa» sentikaria moldatu genuen. Leku askotan eman genuen, eta, zirudienez, jendaurrean arrakasta on bat lortu zuen. Honen diskak argitara ematea denoi komenigarri iruditurik, bi diska handi ere grabatu genituen. Katalunyako Edigsa etxeko zuzendarien mila laguntzari esker, lortu genuen Madrileko zentsuratik kanta guztiak pasatzea. Sen-

tikariaren azken emanaldietan genbiltzan, diskak argitara emateko puntuan, eta hara non taldeko bat hasten zaigun esaten ea komeni ote zen diska horik ateratzea, ez ote genuen zenbait jende abertzaletasunetik atzera botako disketan azaltzen ziren zenbait gordinkeria, birao eta gogorkeria entzun eta. Gehienak txunditurik gelditu ginen. Bi urte bazen bazter guztietan ematen ari ginela... Kontrol hark segituan konpreni erazi zidan, zerutik aginduren bat jausia zela gure taldearen baitara. Nahiz eta haseran gehienak txunditu, denbora baten buruan batzuk ontzat eman zuten agindu zerutiar hura. Ikusirik Komisario politikoeekin ez dagoela lan jatorrik egiterik, bertan behera utzi genuen.

Berritasun tematikoaren ardura edo ardura usteak ez ote du sarri estetika ahantzarazi?

Tematika sakonki lantzen duenak, forma ere gehienez ongi lantzen du. Segituan ikusten du estetikak eta etikak elkarrekin duten aska ezinezko lotura. Picassok zioen bezala: «Egia ederra da».

Berritasun estetikora igaroz: Ezer guti landu dela alde hone-tatik, behin baino gehiagotan komentatu izan da...

Gure herrian bizi dugun egoera anormalagatik, toki batzutan ezin egin zitekeena beste tokitan egin beharra egon da. Biltzea galerazia zegoen garaietan, non bildu jendea? Elizetan meza garaian ez zen posible. Football zelaietan ere ez; jende nahaske-tagatik ez zen egokia. Non beraz? Kezka estetiko eta politikoe-ekin eraginik jendea biltzen zen aretoetan. Kantaldietan. Giro honetan kantari batzuk jakin dute zer den ekintza bat eta zer beste bereizten, eta henen arabera jokutzen. Beste batzuk ez ordea. Eta mitin politikoa eta kantaldia nahasten direnean, Kristoren kakapilak sortzen dira. Bat itotzeraino eramanezakeen kakapila. Zergatik? Arregintza eta politika bi disziplina ezberdin dira. Artista bat edo artista izan nahi duena teoria politikoak zabaltzen hasten bada, ez dut uste ongi egingo duenik; ez bait du horretarako behar den jakituririk. Eta alderantziz. Batek txurroak egiten jakiteak ez du esan nahi lukainkat egiten ere trebea denik. Politika aurrerakoi bat egitea kantari batentzat, nire ustez, kantak ongi egin eta ongi ematea da.

Ez ote gara berrikuntza gutiegi ezagutzen ari, Kanta Berrian oro har?

Kantari gehienek jendaurreko lanari etxean egin beharrekoari baino garrantzi gehiago ematen diotelako, iruditzen zait, nor-tasuna duen ezer guti sortzen dela gure herrian. Eta etxean lanik egiten ez bada, ikusia dago zer eramango den jendaurrera. Ba-koitzak, lehenik, den kritikorik gogorrenari kantatu behar dio, norbere buruari, eta honek esaten dionaren arabera, jendaurrera pasa ala ez pasa. Bestalde, zerbait berririk egiteko honetan, hau da, zerbait sortzeko honetan, eragozpenik handienetako bat honako hau aurkitzen dut: halegia, kantari asko ez dela bere-bereak dituen barne burrukak adieraztera plazaratzen, jendeak eskatzen dituenak justu-justu ematera baizik. Honek izen bat du, guztion artean ongi ezaguna. Mundu honetan, edonork puta izan nahi ez badu, eta ez artistek bakarrik, den bezala agertzea eta berea duen hori agertzea da gizarteari egin diezaiokeen mesederik handiena; honek aberasten bait du gizartea eta artaldekericitatik ateratzen. Zorionez badira guti batzu beren egiteko hori argi eta garbi daukatenak. Alde honetatik, gure kantugin-tza beste odonongoaren aurrean burua xut duela ager daiteke. Beste batzu, berriz, lehen esandakoagatik, zulo batean sartuta daudela dirudi, eta ez dakitela nondik atera. Edo beren baitan ez dute ezer esatekorik, edo herriak zer eskatuko dien zain dau-de, edo beste zerbait. Eta herria ez da gauza abstrakto bat. Eta kantaria ere herria da. Eta honen problemak, neurri horretan, herriarenak ere badira.

Zer da zure eritziz Kanta Berria, ez atzokoa, ezta gaurkoa ere, biharkoa baizik, esan daitekeen neurrian?

«Berri» hitzak berak nahikoa esaten du, hau da, lehenago egin ez den zerbait egitea. Zerbait berririk egiteko, bakarrik bide egiten saiatu behar da eta bakarrik ibiltzen ikasi. Libre izaten eta inguruarekin bat nola izan erakusten duen praktika bat da kreaio lana. Beti hala izan dela uste dut nik. Kreaio lanak ezinbestekoa du hala mami nola azalez garaikoa izatea. Nolabait esateko, industrial aroko mamia duen zerbaiti ez dut uste nekazari aroko doinurik dagokionik. Penizilina beharrean dena ezin da oilo salda emanaz engainatu, gaisoa sendotzeko ez baino gaitza bera sendoagotzeko balioko du eta.

J. A. A.

EN TORNO A LA NUEVA CANCIÓN / A PROPOS DE LA NOUVELLE CHANSON

El movimiento de los años 60 ha aportado más de una novedad a la canción vasca. Lo que se ha dado en llamar «la nueva canción» es la expresión artística de la nueva generación, canción que ha incorporado la problemática social, política, ecológica, etc., canción comunicada al público por unos hombres sin una preparación especializada. La nueva canción se realiza en conexión con el trabajo de otros artistas, y sobre todo en conexión con movimientos culturales y políticos: problemas de pueblo, de lengua, la represión, etc. Es esta su diferencia más fundamental respecto al canto clásico al modo polifónico ruso de la postguerra.

La nueva canción ha adolecido de la falta de cuidado estético. Ello se debe, a nuestro entender, a dos causas. La primera se refiere a las condiciones anormales del pueblo, sea por falta de locales apropiados, etc., sea por la falta de distinción clara entre arte y política. La otra causa reside en los mismos cantantes, que, por una parte, no han trabajado suficientemente la canción, y, por otra parte, han cedido a los gustos del público sin expresar en el canto su verdadera personalidad.

Le mouvement des années 60 a apporté plus d'une nouveauté à la chanson basque. Cette «nouvelle chanson» est en réalité l'expression artistique de la nouvelle génération, celle de l'après-guerre. Il s'agit d'une chanson qui a su incorporer la problématique politique, sociale, écologique, etc.; une chanson qui se communique au public par des hommes qui n'ont pas une formation «ad hoc». La nouvelle chanson se réalise en communion avec le travail d'autres artistes, et surtout en relation avec les mouvements culturels et politiques: problèmes de peuple, de langue, présence de la répression, etc. C'est bien là la différence la plus fondamentale par rapport à la chanson classique à la manière polyphonique russe de après-guerre.

Cette nouvelle chanson souffre de manque du soin esthétique. D'après nous, cela est surtout dû à deux causes. La première fait référence aux conditions anormales de notre peuple, soit, par exemple, la manque des locaux, soit le manque de distinction entre l'art et la politique. L'autre est dans les chanteurs eux-mêmes, qui, d'un côté, n'ont pas assez soigné et travaillé la chanson avant de se présenter devant le grand public, et, d'autre part, ils ont cédé aux goûts du public au lieu d'exprimer dans la chanson leur vraie personnalité.

Kanta Berriaren ingurumaria

Jose Ramon Beloki

Pasatzen ote zaio inori burutik *Kanta Berria* deitzen dugun fenomeno hau nola gerta zitekeen, baldin kantariak bide horri heltzen ziotenean, ez diskaetxerik (eta, ondorioz, ez diskarik), ez Kantaldiak muntatzeko tresneriarik (eta, ondorioz, ez azken urteotan ezagutu dugun gisako kantaldirik), ez irratirik (eta, ondorioz, ez, irradi bidez, kantariak entzulego zabal batetara iristeko modurik), izan ez balitz Euskal Herrian? Bide absurdoetan ibilizale denarentzat, bada hor zer pentsaturik.

Kanta Berria, baina, 60 urtealdiaren haseran sortzen da gure artean eta, ordurako, munduak inbentatuak zituen horik denak eta Euskal Herri-ira iritsiak ziren inbentziook. Gutxi edo gehiago, azpiegitura botata zegoen; baldintza materialak betterik, nola edo hala. Nolakotasun edo halakotasun horren gainean eraiki zuten kantariak eta herri kantazale batek gaur Kanta Berria izendatzen duguna. Eta baldintza material horien nolahalakotasunak egin du, neurri handi batetan, jaso duguna jasotzean, ez handiagorik, ez ederragorik, ez tipia-gorik, ez narratsagorik eta ez aldrebesagorik eta ez besterik jaso izana. Esan behar bait da, egiten posibletu badute, beste inora iritsi eza ere, be-
raiek ukatu digutela.

Diskagintza eta diskaetxeak

Euskal Herriko kanta, doinu eta aireak jasoaz, mundu honetan, gaurdaino, 1977 urteraino, egin ote dira mila diska desberdin, handi (Lp) eta ttipi (single)? Diska bakoitzeko zenbat ale argitaratu ote da, berriz? Eta saldu?

Lehen galderari ezetz erantzun behar diogu. Eta bi ondorengoei buruz, erantzun zehatzik ez dugula, diskaetxeak, beste enpresak hainbat, beren negozioen ezkutazale direnez¹. Mila diska desberdinen gorabeheran ibili behar duenarentzat, dena den, ez du kezka gehiegirik bakoitzaren salmentak. Hain guti atera izanaren arrazoinik zuhurrena, salmenten eskasia denez.

Mixeria honetan kokatzen da euskal diskagintza. Eta honen barnean, apalago eta mixerableago, halabeharrez, euskal Kanta Berriarena. Gure zenbaketak fidagarriak badira, 170en bat single eta 50en bat Lp eman ditu euskal Kanta Berriak. 220ren bat denera, handi eta ttipi. Mixeria hutsa!

Hala eta guztiz, diskagintzarik gabe, ezin pentsa ere zitezkeen Kanta Berriak gure artean izan duen gorakada eta hedapena.

Honetaz aldez aurretik oharturik sortu zen *Cinsa* 1957. urtean. Kanta Berriak aurrera egingo bazuen, alor hori landuko zuen diskaetxea ezinbestekoa zen. Diskak kaleratu behar ziren. Jaialdiak eta lehiaketak eratu. Guzti horretarako sortu zen, esan bezala, *Cinsa*.

Kanta Berriaren bultzatzaile eta sortzaile izan zen *Ez Dok Hamairu* taldeak ere, dirudienez, haseratik bertatik ikusi zuen hau: kantagintza berria jendartera iritsarazteko, ezinbesteko esijentzia zen bera landuko zuen talde lan bat egitea eta diskaetxe bat sortzea. Hor aurkitzen da 1968an *Herri Gogoa* martxan jarztearen arrazoin nagusia.

Noski, ateratzen zirela, eta saltzen, ordurako euskal kantuz, airez eta doinuz osaturiko diskak Euskal Herrian. Espainia² mailan lan egiten zuten diskaetxeak baziren gure artean ere, eta, guti edo gehiago, euskal diska batzu ere argitaratuak zituzten. Baina, beste alor guztietan hainbat, haien autonomi ezak, hemengo mugimenduak gehiegi ez ulertzeraz eramatzen zirenen, eta, batez ere, Kanta Berriaren fenomenoak ulergaitza izan behar zuen haientzat guztiz. Honek zekartzan planteamendu politiko, sozial eta kulturalak nekez pareka eta uler zitezkeen ordurarteko Los Bocheros, Los Chimberos, Xey... edo gisakoekin eta, baita, neurri handi batetan, abestalde edo antzekoekin ere.

Diskaetxeak, berez, ez dira berritasunen zale amorratuak izan ohi... eta, zer esan, faxismope baten kontzientziatik burrukalari altxatzen zen minoria nazional bateko erresistentzi kantagintza-rekiko haien zaletasunaz...

Esan bezala, hor kokatu behar da bai Cinsa eta bai Herri Gogo sortzearen esplikazioa. Bien arteko diferentziak ukatu nahi ez bagenu ere. Ez du, ezta, beste esplikaziorik, Cinsa-ren kasuan bezala, diskaetxeak emandako irabaziak elkarte bera gorpuzten eta indartzen, inork sosik jaso gabe, utzi izanak. Nola ez duen, ezta, beste esplikaziorik 500 pezetako akzioekin eta, inoren eskumenean eror ez dadin akziodun bakoitzak gehie- nez 10 izan ditzakeela bere barne araudian ezarriz, sortzen den Elkarteak, Herri Gogoaren kasua den bezala.

Haserako kontuak horrela baziren, gerora, Kanta Berriaren arrakasta, pentsamolde desberdinak eta beste zenbait gorabehe- ra medio, jokabideak aldatuz joan dira, bai diskaetxeen alde- tik (ordurarte ardura gehiegi azaldu gabeko diskaetxeek Eus- kal Kanta Berrien diskak argitaratu nahi dituzte, *Cinsak* Kanta Berria lantzeari uzten dion bitartean, eta Herri Gogoak krisi egiten duen artean), bai kantarien aldetik (*Ez Dok Hamairu* taldea hautsi, kantariak ugaltu, grabaketak egitera Euskal Herri- tik kanpoko diskaetxeetara joan, *Artezi* sortu...).

Aldaketa guztion fenomenologia egitea, aberatsegia ez izanik ere, ez da batere erraza. Guk zenbait puntu azpimarratuko du- gu soilki:

— Euskal disken merkatalgoa zabaldu egiten da. Eta horren atzetik etorriko dira hasera batetan lan egiten ez zuten diskae- txe batzu. Hainbateraino izango da hau honela, non esan bait daiteke, esajerazio gehiegi gabe, euskal kantagintzaren diskate- gia, ia huts-hutsik, Kanta Berriaz hornitzera iristen dela. Xifra hauek hori aldarrikatzen dute:

Euskal kantagintzaren diskagintza osotik,
Kanta Berriaren diskak:

<i>urteak</i>	<i>single</i>	<i>lp</i>
60-64	% 6,8	—
65-69	% 48,37	% 10
70-74	% 70,30	% 16,51
75-76	—	% 48,33

— Diskaetxe «berri» hauk tresneriaz lehengoak baino hobeto hornituak izanik, kantari zenbaitek nahiago du hauengana jo. Erosoago egiten zaie, sarri, hauetan lan egitea, medio ugari horiengatik. Promozio aldetik ere ez da abantailik falta.

— Cinsak, ezin dakiekeela kompetentziarik egin —eta, bestalde, Kanta Berriaren saila lantzen ari dela ikusiaz—, lansail hori uztea erabakitzen du.

— Kantarien arteko diferentziak —eta, batez ere, Ez Dok Hamairuren barnean gertatuak— Artezi ekartzen du.

— Herri Gogoak, baimen aldetik problemak aurkituaz, Edigsa-ren babesa hartzen du. Bidebategi, Kanta Berriaz aparteko beste musika sail batzu irekitzen ditu.

Etab. luze bat noski. Euskal Diskaetxeen mundua gorpuztu gabea aurkitzen dugu, oraindik ere. Kanta Berriaz gure artean eta gure inguruan salmenta on samarrak egiteko baliatu izan denik ez da falta. Baina inor guti, inor ez esatera ausartuko ginatke, arduratu da gure Kanta Berriaz, eta zabalago euskal musikaren hesparru osoaz. Salbuespen bakar bezala, Herri Gogo aipatu behar da, gehienik ere, eta berau intentzioen aldetik gehiago, egindakoenetik baino. Bai ote dago beste ezer egiterik, galde genezake, euskal diskagintzarekin, honen merkatua gaur den bezain urria izanik? Nola zabaldu?

Galdera hauek ez dute, nire aldetik behintzat, erantzunik. Kezkak eta zalantzak dira.

Kantaldiak

Kanta Berriaren beste zutabeetako bat, Jaialdiak edo Kantaldiak dira. Bai ote Euskal Herrian herririk, hauzoric ere, Kantaldiren bat ezagutu ez duenik? Zenbat kantaldi ez da eratu batzutan?

Eromeneraino mugitu da Euskal Herria kantaldiz kantaldi. Festak direla, Kultur Aste bat, ikastolaren alde dirua atera nahia, presoan alde, atzerriratuen alde,... edozein arrazoin edo atxakia tartean, Kantaldia muntatu izan da. Kantariak, etxean egoteko astirik gabe, alde batetik bestera ibili dira. Behin baino gehiagotan entzun izan ditugu kexu: jo honuntza, jo haruntza, lau xentimo hemen, zerbait gehiago han, baina, inondik ere, profesionaltzeko biderik ez.

Kantaldien fenomeno honek azterketa serio bat merezi luke, guk hemen egingo ez badugu ere. Euskal Kanta Berriaren moda

eta arrakasta horiei zor zaie neurri handi batetan. Horiei esker, denok ikasi ahal izan dugu kanta sail bat eta kanta sail horrek gure erreibindikapenak agertzeko balio izan digu. Horiei esker, elkarrekin biltzeko aukera izan dugu, beste inola ezin zenean. Horiei esker, eginkizun hau edo hura burutzeko dirua bildu dugu... Baina, baita, horiei esker edo zor, kantariak aspertzearino nekatu ditugu, ez diegu beren prestamenetarako eta berrikuntzarako denbora librerik utzi; horiei esker edo zor, kanta berdinak entzun eta entzun, geure buruak aspertu ditugu; jaialdiak hauengatik eta hauekin prestatzen ahanzi dugu edo, sarri, ez dugu ikasi ere; kantariak, berak gogor jarri ez direlako, edozein plaza edo bazterretan, edonolako tresneriaz, beren ahotsa itxura antzean entzun ere egiten ez zela, kantari jarri ditugu.

Kantarien utilizazio nabarmen batetaraino iritsi garela, esan behar dugu, azken urte hauetan. Haien inguruan, eszenategi ingurutik, eta ez honen gainetik, egindako festa izan da, sarri, nagusi.

Guzti honetaz, orain arte isilpeka esandako gauza asko eta asko esan dezakete orain kantariak goraki, entzuteko moduan. Eta esan behar ere lukete, gure eritziz. Kantaldiek, hala jarraituaz, lehen posible egina itotzera iritsi daitezke. Birplanteamendu bat egiterakoan, berriz, lehen hitza Kantariak berek dute.

Irratiak

Kanta Berriaz hitzegiterakoan ezin da, irratietaz hitzegin gabe gainpasarik egin. Batez ere, Herri Irratien kateaz eta Segura eta Arratez. 60 urte inguruan sortzen dira irrati guztiok Euskal Herrian eta, lehen aldiz, euskal gizarte bati buruzko lanari heltzeko borondatea agertzen da irratietan. Borondate honen barnean, berriz, euskal Kanta Berriari gertutik jarraitu nahia.

Irratirik gabe, nekez pentsa zitekeen euskal Kanta Berriak aurrera egitea; gertatu den baino askoz nekezago behintzat. Gure gaurko gizartean ezin bait da pentsatu ere irratietatik igaro gabeko kantagintza arrakastadunik. Gizarte modernoetako kantagintza, gitarra bat besapean hartu, eta saio bat hemen eta beste bat han egitea baino askoz konplikatua da. Gaurregun famara iristen den edozein katariren gorabeherak aztertzerakoan, gertuxeago edo urrutixeago, baina irratiez, edo telebistaz, eta hauekin harremanetan den diskaetxez topo egiten da. Kantari bakoitzari, eta bakoitzak egin behar izaten duen lanari eta jasan

behar izaten dituen nekeei ezer kendu gabe ere, hau ukaezina dela uste dugu. Kasu batzutan —eta Euskal Herrian ere— nabarmen baino ere nabarmenago dagoen zerbaít da hau.

Amaitzeko, azken kontsideramendu pare bat:

— Lehenik: Kanta Berria sortzeko eta izatera iritsi dena izateko aina azpiegitura bagenuela Euskal Herrian, 60 urte inguru hartan: diskaetxe, irrati eta kantaldiak eratzeko tresneria eta modua.

— Bigarren: eskas genuela denetik. Eta eskas jarraitzen dugula. Eskasia hau sofritzen dator Kanta Berria eta gaitz hau sendatzen badu lanik ugari.

— Hirugarren: sendagile izatea, kantariei dagokie lehenik, baina ez bakarrik. Gure idazlantxo honi dagokionaren aldetik, azpiegitura horik Euskal Herriak behar ditu eta Euskal Herriak eman behar dizkio bere buruari. Azpiegitura horik ez baít dira kantarien zerbitzu hutsekoak, horik gabe aurrera egiterik izango ez badute ere. Askoz eginkizun eta eginbehar gehiagotarako zerbi diezagukete. Eta Kantagintzarako ere. Sortzen eta indartzen baditugu, noski!

¹ Hurbilpen bezala balia gintezke, dena den, negozio horretan dabilen batek aitortzen zigun hartaz: azken urteotan 5.000 ale saltzera iritsitako diskak bakar batzu baizik ez direla eta gehienak horren oso azpitik ibiltzen direla.

Azken urteotan hori gertatu bada berriz, aurrekoekin zer gartatuko zenaren galderaren erantzuna berezkoa da.

² Mugaz bestaldeko diskagintza ez ezaguna zaigu eta, horregatik, batez ere, hegoaldekoaz arituko gara hemen. Hala ta guztiz, xifrak ematen ditugunean, bi aldetakoak elkartuaz emango ditugu.

J. R. B.

EL ENTORNO DE LA CANCIÓN / L'ENVIRONNEMENT DE LA CHANSON

Junto al cantante hay varios factores que intervienen en el mundo de la canción y que conviene estudiar. Por ejemplo, las casas de disco, los instrumentos técnicos, la radio, la tele, etc. Condiciones materiales que constituyen, por decirlo de alguna manera, la infraestructura de la canción.

Casas discográficas. En la discografía vasca, la canción moderna ocupa un modesto lugar: unos 220 discos en total (50 LP y unos 170 singles). Llama en cambio la atención el crecimiento vertiginoso del disco de la

de la nueva canción ocupaban el 6,8% de la discografía, los años 70-74 canción nueva respecto al total. Así, mientras los años 60-64 los singles la proporción había pasado al 70,30%. En este interés por la nueva canción es notable la incidencia de la labor de algunas casas: en 1957 nace Cinsa que se dedica a publicar discos y a organizar festivales y concursos. En 1968 nace Herri Gogoa fruto del grupo Ez dok amairu. Lo mismo Cinsa que Herri Gogoa han nacido para potenciar la canción vasca moderna reivindicativa; ya que las casas de discos de la Península difícilmente podían asumir y potenciar una canción con planteamientos políticos, sociales y culturales de una minoría nacional en estado de resistencia. Con posterioridad, la canción vasca se ha diferenciado en tendencias, en grupos. De la desmembración de Ez dok amairu ha nacido Artezi, Cinsa ha abandonado el disco, Herri Gogoa se ha protegido legalmente bajo la catalana Edigsa, etc. Hay una tendencia fuerte entre los cantantes a preferir las casas discográficas de fuera por sus ventajas técnicas y de promoción. El hecho es que aun hoy no se ha constituido una producción discográfica autóctona.

Los Festivales. Otro de los pilares de la Canción moderna han sido los Festivales. Estos Festivales se han realizado en todos los pueblos y barrios de la geografía del País, en todo tipo de condiciones, y con mil motivos: fiestas, semanas culturales, ikastola, pro-presos políticos... Los Festivales han sido uno de los factores determinantes de la popularización de la canción. Pero la gran movilidad exigida a los cantantes ha impedido su profesionalización así como una auténtica renovación.

La radio. La incidencia de las radios es innegable. Sobre todo las Radios Populares, junto con las de Segura y Arrate, han emitido por sus ondas, desde su fundación los años 60, el repertorio de la canción moderna y clásica. Es primordial su función en la expansión de la nueva canción.

En outre du chanteur il y a plusieurs facteurs qui interviennent dans la monde de la chanson et qu'il convient d'étudier. Par exemple, les maisons des disques, les instruments techniques, la radio, la télé, etc. Conditionnements matériels qui constituent, pour ainsi dire, l'infrastructure de la chanson.

Les maisons de disques. Dans la discographie basque, la chanson moderne occupe une place modeste: environ 220 disques en tout et pour tout (50 LP et 170 singles). Par contre, il est à souligner la croissance du disque de la chanson moderne par rapport à l'ensemble: les années 60-64, les singles de la nouvelle chanson occupaient le 6,8 % des disques; et les années 70-74, dix ans plus tard, la part de la nouvelle chanson était de 70,30 %. Cela est dû en grande partie au travail de nouvelles maisons de disques qui se sont créées à l'époque: en 1957 naît **Cinsa** qui publie des disques et organise des festivals et des concours. En 1968 naît **Herri Gogoa** comme fruit du groupe **Ez dok amairu**. **Cinsa** et **Herri Gogoa** sont nés tous les deux pour pousser à fond la nouvelle chanson revendicative basque, puisque les maisons de la Peninsule ne pouvaient pas l'assumer. Plus tard, la nouvelle chanson s'est différenciée en tendances et groupes. De l'éclatement de **Ez dok amairu** est né **Artezi**; **Cinsa** a abandonné le disque, **Herri Gogoa** est maintenant **Edigsa**, etc. Une tendance forte parmi les chanteurs préfère les maisons de disques en dehors du Pays Basque à cause de leurs avantages techniques et de promotion. Le fait est que le Pays Basque n'a pas encore sa propre production des disques assurée.

Les Festivals. Un autre pilier de la chanson moderne ce sont les Fes-

tivals. Festivals qui ont eu lieu dans chacun des villes et villages de la géographie basque, dans les conditions les plus variées, et pour des raisons multiples: fêtes, semaines culturelles, pro-ikastola, pour prisonniers politiques... Les Festivals ont représenté un des facteurs les plus importants de la popularisation de la chanson. Mais ce déplacement permanent exigé par le public aux chanteurs a empêché leur professionnalisation et un authentique renouvellement.

La radio. On ne peut nier l'apport important de la radio dans ce «boom» de la chanson moderne basque. Ce sont surtout les «Herri Irratia» au Radios Populaires, de même que Radio Segura eta Radio Arrate, fondées vers 1960, qui ont excellé dans ce travail.

Kanta Berria bidegurutzean

Iñaki Zubizarreta

Joxe Azurmendiren ondoko hitz hauek badute aplikapenik gure oraingo idazkai honi buruz ere, «literaturgintza»ren ordez kantagintza ipiniz: «Literaturgintza, Euskal Herrian, eginkizun kultur-sozial, politiko, literario nahasia duzu, egunoro beste inon baino nabar-nabarmenago. Eskuz esku doa politikoaren lanarekin eta pasioarekin»¹.

Hori kontutan izanik, zaila zaigu argi egitea gaurreguneko kantagintzaren mundu konplexoan. Dena dela, eta azken urteotan mundu hori hurbiletik bizi izateak ematen didan eskubide apurtxoaz baliatuz, zerbait idatzi nahi dut hemen, nire ikuspegia azaltzeak zerbaitetarako balio baldin badu ere.

Lehenik, eta gaurko unea bere textuinguruan ezartzeko, azken denboraldiko kantagintza aztertuko dugu pixka bat. Beharrezkoa dugu autokritika serio bat, berriro ere indar berriz ekiteko gaurko egunak eskatzen digun lan eta eginkizunari, euskal kulturgintza osoaren barnean. Euskal kulturgintza honen arlo guztietan bezala, kantagintzan ere bakoitzak bere tokia bilatu behar du; izan ere, azken urte hauetan Euskadin denetakoa egitea tokatu bait zaigu, baina uste dugu iritsi dela

garaia, ala garai horren haseran gaudela, bakoitzak bere lan konkretu bati heltzekoa, eta profesionalki heltzekoa gainera.

Kultur erresistentziako urte luzetan, ahal den moduan jaso ahal izan dugu kultur mundutxoa, eta hori eskertzekoa dela uste dut euskaldun gazteen partetik; baina jaso dugunaren autokritika egiazko bat egin behar dugu orain.

Urte zail hauetan egin izan dugun lana, zaleen lana izan dugu batez ere, gutxi batzuren lana ezik. Eta hain zuzen, zaletasun horrek eman dio luzapena eta bizia euskal kulturari; baina zaletasun horretxek ere eman dizkio akatsak eta hutsuneak.

Gure gaiari hurbilagotik lotuz, azken bi urteotako kantagintzari buruz mintzatuko gara.

Azken bi urteotako kantagintzaren hutsunerik handiena, nire eritziz, mitinaren arriskuan erortzea izan da.

Giroak hortara bultzatzen zuen, eta kantari askok ez du jakin, ez du asmatu behar den bezala gainditzen giroa. Errazkerian eroriz, giroaren eragiketa mekanikoak bultzatua izan da zenbait euskal kantari.

Gure ustez, kantariak, gainontzeko kreaizaileak bezala, bere bizi osoaren adierazpidea bilatu behar du kantaren bidez. Bizi osoaren adierazpidea esaterakoan, zera esan nahi dugu: gizarte honetan besteekin elkarkide den bizi pertsonal bete baten adierazpidea.

Honen orde, mitin hutsean erori dela zenbait euskal kantari, uste dut. Mitin hutsean esatean, politikoen hitz konkretuen errepikatze hutsean eta oihu batzuren errepikatze hutsean, esan nahi dut. Gainera errepikatze hori kalitate eskaseko musikaz apaindua azaltzen da gehienetan, horrela pareko agertzen direlarik bai hitzak eta bai musika.

Honetan, azken bi urteotako kantari hauek ez dute jakin aurrekoen tradizioa jarraitzen; izan ere kantari haiek asmatu bait zuten, nire ustez, mitinaren arriskuak gainditzen, baita kanta politikoak egiterakoan ere, zuzenean gai politikoak ukitzen zituzten kantak egiterakoan ere.

Izan ere, politik giroko kantagintzan bertan, kantak badu bere bide bat, badu libertatea bilatzeko bere arte-bide bat, kantari bakoitzak, bere bizi osoaren adierazpide bezala, gizarteari eskaintzen dion libertate bidea.

Bestalde, azken garai honetan bizi izan dugun giro nahasian, errazki ausartu da zenbait gazte gitarraren laguntzaz plazaratzen,

beren kantagintza gehiegi landu gabe, bai musikaren aldetik eta bai poesiaren aldetik. Horretan ere, zeharo eten dute aurreko tradizioarekiko lotura. Hitzaren aldetik nahiko maila onean zetorren, eta dator oraindik, aurreko kantarien bidea; halaber, musikaren aldetik nahiko ahalegin interesgarriak egiten ziren eta dira kantari «historikoen» artean.

Azken denboraldiko kantari askoren poemak benetan dira pobreak, eta hori penagarriagoa egiten zaigu oraindik, ondoko hau gogoan hartzen badugu: euskal kulturgintzaren barnean poesiaren saila izan dugula landuena. Zerbait antzekoa esan daiteke musikaren aldetik ere, euskaldunok dugun musikarari fama kontutan hartzen badugu.

Nire ustez, gure kantari askoren pobretasun honi gehien lagundu diona, kritikagintza serio baten falta izan da. Dena utzi dugu pasatzen, batere azterketa seriorik egin gabe. Aurrera egin nahi badugu, beste arloetan bezala, kantagintzan ere, kritikaren eginkizuna profesionalki beteko duen jendea behar dugu lehenbailehen. Gure egunkari, irrati eta aldizkarietan lehenbailehen saiatu behar dugu hutsune nabarmen hau betetzen.

Dena dela, hemen pintaturiko ikuspegi beltz honetan, bada salbatzen den euskal kantaririk. Eta horrela esan dezagun, euskal kantari «historikoak» ez direla hemen adierazitako kritikaren barnean sartzen. «Ez dok hamairu»koak, Oskarbi, Valverde eta beste batzu beren bideetan jarraitu dira, bai musikaren arloan eta bai poemagintzan ere, nahiko lan interesgarriak eskainiz. Kantari berrien artean ere bada noski salbuespenik, hala nola Ortizadar, Haizea eta besteren bat. Honek ez du esan nahi noski, denentzat ere kritika premiarik ez dagoenik.

Hala ere, lehen eginiko salbuespenak kontutan izanik ere, azken bi urteotako kantagintzan besteek dominatu dutela dirudi, kantaldien arloan behintzat. Kantari bakoitzak serioki aztertu behar duela uste dut zein paper jokatu duen azken denboraldi honetan kantagintzan. Giro nahasitik irtenez, eta denetik egiten genuen denbora atzean utziz, bakoitzak profesionalki heldu behar dio bere lanari orain.

Azterketa azkar honetan, beste puntutxo bat ere azpimarratu nahi nuke: euskal kulturgintzaren beste arlotan bezala, kantagintzan ere, mundu itxi bat jaso dugu, geure euskal harresi hestuen barnean kizkurtua, gaien aldetik oso murriztua, bizpahiru gai obsesiboki errepikatzen dituena.

Indar berriz hasi behar dugu lanean herrigintzan. Ia dena

hasteko daukagu, eta honek gauzak ongi egiteko aukera ere ematen digu. Erresistentziako neke luze eta handitatik atsedean pixka bat hartu, eta egin denaren azterketa autokritiko eta serio baten ondoan, berriro hasi behar dugu denok gure herri kultura aberastuz eta mundu zabalera irekiz.

Ikuspegi honetatik begiraturaz, bere tokia bete behar du kantagintzak, herri kulturaren osaketan. Baina gogo hutsa ez da aski. Azpiegitura egokia eraikitzen eta esijitzen hasi behar dugu, eta hori maila guztietan.

Lehenik, kantari bakoitzak bere buruaren autokritika sakon bat egin behar du, eta ondoren profesionalki heldu lanari. Bakoitzak berari dagokion lanari ekiteko garaian gaude. Zaletasunaren garaia joan zaigu, profesionaltasunaren garaian sartzen hasteko.

Bide honetatik abiatzean, ez dago kantaria bakarrik uzterik. Kantariak, diskagintza egoki bat, komunikabideetako promozio profesionala eta kantaldien planifikapen on bat behar ditu.

Beraz, lehenik kantariaren oinarrizko prestakuntza dago, eta gero, horrekin batera, medioak, zabalkundea. Gizarte guztia elkar komunika dadin, oso garrantzizkoa da kantariaren betekizuna. Elkar libertatea sortzeko bidean, ezin baztertuzko lankidea dugu kantaria.

Ez gara inor kontseiluak ematen hasteko; baina sujerentzi gisan edo, ideia batzu adierazi nahi nituzke hemen, kantariak bere eginkizuna nola bete behar lukeenari buruz.

Raimonek irailaren lehen egunetan egiten zigun bisita zela eta, zenbait elkarrizketa egin zitzaion hemengo irrati eta egunkarrietan. Elkarrizketa haietan erabili zuen kontzeptuetako bat, egokia iruditu zitzaidan kantariaren papera adierazteko: *autobiografía colectiva* kontzeptua. Lantxo honetako beste parte batetan esaten genuena gogorarazten digu formulapen horrek: kantariak besteekin elkarkide den bere bizi osoaren adierazpidea bilatu behar duela, alegia.

Horrela, gai guztiak bildu behar lirateke gure kantarien lanetan: maitasunezkoak, sozialak, politikokoak, intimista girokoak (gogoan izanik «intimista» eta «kolektiboak» ez direla elkarren aurkakoak, alderantziz baizik: denoi interesatzen bait zaigu pertsona baten libertate bilaketa), eta abar.

Raimonen elkarrizketen garai berdinean, beste honetara zioen Xabier Letek, hemen ukitzen ari garen gai honen inguruan:

«Harrigarri da zein gutxi lantzen diren euskal kantagintzan gai anekdotikoak, sentimentalak, ironikoak, amodiozkoak, afektibitateak...»

Errealitate zabala eta konplexoa da gure bizia. Eta kantariak ere berak bizi duen errealitate zabal honen adierazpidea eskaini behar digu, eta berari tokatzen zaion moduan eskaini ere. Horretarako kontutan hartu behar dira kantari eta kantaren balio intrintsekoak: poetikotasuna, musikaltasuna, estiloa, gizartearekiko erantzuna bere zabaltasun osoan, kanta politikoa panfletoan erori gabe, eta abar.

Ez gara orain kantagintzaren musika aldea aztertzen luzatuko. Bakarrik, zera azpimarratu: beste bide askoren ondoan (euskal kanta zaharretik abiatzea, bide propioak lantzea...) honetan ere saiatu behar dugula: gaurko musika gaztea euskal herriratzen, euskal kanta «arina» sortzen, eta abar.

Gure herri kulturaren bidegurutze honetan, elkar lana dugu kantari eta guztion etorkizuna, Euskadiren etorkizuna.

¹ JOXE AZURMENDI: «Euskaldunari», in: JOAN MARI TORREALDÁI: *Euskal Idazleak, gaur, Jakin, Arantzazu, 1977, 39-40 or.*

I. Z.

LA NUEVA CANCION EN LA ENCRUCIJADA / LA NOUVELLE CHANSON AU CARREFOUR

La Canción vasca se encuentra hoy necesitada de una autocrítica. Toca ya hacia su fin la hora del amateurismo, y es hora del profesionalismo, de dedicarse a un trabajo bien hecho abandonando las suplencias a las que se ha visto obligado así la canción como otras dimensiones de la cultura.

La autocrítica debe centrarse sobre todo estos dos últimos años en los que ha habido ruptura respecto a la tradición precedente, y debe dirigirse en varias direcciones. La canción ha sido, en efecto, excesivamente «mitinesca» (imitación mecánica de slogans políticos), con un empobrecimiento temático obsesivo. A ello ha correspondido una falta de calidad y de esmero en la poesía y en la música de la canción. Lo que supone una ruptura con los «históricos», que han tratado de buscar nuevas soluciones repetidas veces.

Cara al futuro, por lo tanto, la nueva canción debe proceder a una autocrítica sistemática, a un empeño serio de profesionalización. No se

puede abandonar al cantante: hay que crear infraestructura: casas discográficas, promoción profesional de los mass media, planificación de los festivales, etc. La canción vasca debe abordar todos los temas: sociales, amorosos, políticos, intimistas, anecdóticos, sentimentales, irónicos, etc. En contra de lo que sucede actualmente, el cantante debe expresar en sus canciones toda la complejidad de la vida.

La Nouvelle Chanson Basque a besoin aujourd'hui d'une autocritique. L'heure de l'amateurisme touche à sa fin. C'est l'heure du professionnalisme, de se donner à un travail bien fait, en laissant de côté les suppléances auxquelles s'est vue obligée autant la chanson basque que d'autres dimensions de la cultura.

L'autocritique doit surtout se centrer dans ces deux dernières années, où il y a eu une rupture par rapport à la tradition précédente, et cette autocritique doit se diriger dans plusieurs directions. En effet, la chanson basque s'est donné trop facilement au meeting politique, suivie d'un appauvrissement thématique, au détriment d'un approfondissement esthétique. D'où en conséquence un manque de qualité et de soin dans la poésie et la musique de la chanson. Il y a là une rupture avec les «historiques», qui ont essayé de trouver de nouvelles formes d'expression.

Pour l'avenir, donc, la nouvelle chanson basque doit procéder à une autocritique systématique, et elle doit faire un sérieux effort de professionnalisation. Il ne faut pas abandonner le chanteur. Il a besoin d'infrastructure: maison de disques, promotion professionnelle des mass media, planification des festivals, etc. La chanson basque doit aborder toute sorte de thèmes et non uniquement les politiques et sociaux; mais aussi les amoureux, intimistes, anecdotiques, sentimentaux, ironiques, etc. Au contraire de ce qui arrive aujourd'hui, le chanteur doit exprimer dans ses chansons toute la complexité de la vie.

Bibliografía

- APALATEGI, J.: «Ortziken», in: *Zabal* 17, 10-16 or.
- BEHIAGOITI, M.: «"Txalaparta" de Gorka Knörr», in: *Garaia* 20, 47 or.
- BIDEGORRI, B.: «Ortziken ikusgaia», in: *Anaitasuna* 310, 12 or.
- CASTRO, R.: «En busca de las raíces de la música vasca», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 28, 35 or.
- ERLETXE: «"Euskal Hit Parade"ko karrera», in: *Anaitasuna* 339, 38 or.
- ESTEPAN: «Xaribariren "balantzatxoa"», in: *Z. Argia* 710, 27 or.
- GARMENDIA, E.: «Imanol lau haizetara», in: *Z. Argia* 733-734, 30-31 or.
- GOIZUETA, M.: «Discografía infantil euskérica», in: *Garaia* 18, 47 or.
- GOIZUETA, M.: «Doble disco del grupo Oskarbi», in: *Garaia* 17, 47 or.
- GOIZUETA, M.: «"Zaurietatik dario". Gontzal Mendibil eta Xeberri», in: *Garaia* 21, 47 or.
- G. K.: «Errobi. Elkar. Baiona», in: *Garaia* 6, 48 or.
- HOSPERRI: «"Zaurietatik dario". Gontzal Mendibil eta Xeberri-ren lehen L.P.a», in: *Z. Argia* 722, 26 or.
- KNORR, G.: «Hay que recuperar los festivales», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 30, 35 or.
- KNORR, G.: «Maite Idirin. Elkar», in: *Garaia* 5, 48 or.
- KNORR, G.: «Ortziken», in: *Garaia* 4, 48 or.
- KNORR, G.: «Sakonki maite zaitut Euskal Herria. Urko», in: *Garaia* 3, 48 or.
- KNORR, G.: «Xabier Lete», in: *Garaia* 8, 48 or.
- LETE, X.: «Alan Stivell (en las raíces célticas de una música popular moderna)», in: *Garaia* 30, 43 or.

- LETE, X.: «Canción popular, discografía, arte escénico», in: *Garaia* 18, 40-41 or.
- LETE, X.: «Carta abierta a Musde Behiagoiti», in: *Garaia* 22, 42-43 or.
- LETE, X.: «Donibane Lohitzunen Ortziken», in: *Z. Argia* 692, 29 or.
- SAN SEBASTIAN, K.: «Desarrollo de la nueva canción vasca», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 24, 35 or.
- X. A.: «Gorka Knörr-en "Txalaparta"», in: *Anaitasuna* 337, 38 or.
- X. A.: «Jaialdia beti erromeria?», in: *Anaitasuna* 340, 30-31 or.
- X. X.: «Agur Xiberua», in: *Garaia* 3, 46-47 or.
- X. X.: «Arrano beltza», in: *Garaia* 22, 40 or.
- X. X.: «Discografía», in: *Garaia* 11, 38-39 or.
- X. X.: «Eltzegor taldea, iparraldetik kantuz», in: *Z. Argia* 725, 37 or.
- X. X.: «Errezital gisa. Kanta jaialdia eraberritzen», in: *Z. Argia* 670, 30 or.
- X. X.: «Gontzal Mendibil eta Xeberri: separación», in: *Berriak*, 49 or.
- X. X.: «Gorka Knörr-en disko berria», in: *Z. Argia* 671, 30 or.
- X. X.: «Ibilaldira bilduak (síntesis de música, canción y poesía vasca)», in: *Garaia* 22, 41 or.
- X. X.: «Imanol Larzabal, kantaria», in: *Berriak* 29, 37 or.
- X. X.: «Madrid. Kantaldiak ikurriñaren azpian», in: *Z. Argia* 720, 34-35 or.
- X. X.: «"Ortziken" taldearen kanta jaialdia Baionan», in: *Z. Argia* 672, 29 or.
- X. X.: «*Oskarbi* ere etengabeko lanean. "Olentzero" eta "Hitz urri batzuk" bi L.P. berriak», in: *Z. Argia* 716, 29 or.
- X. X.: «Oskorri. "Gabriel Arestiren oroimenez" CBS 581771», in: *Berriak* 17, 34 or.
- X. X.: «Urko: la canción en lucha», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* 31, 35 or.

U. Z. E. I.

(Unibertsitate Zerbitzuetarako
Euskal Ikastetxea)

Azken bi hilabeteetan, egunkari eta aldizkariak aski esan dute. Hala ere, uste dudanez, bidezkoa da hemen, UZEI delakoaz irakurleari zerbait esatea; izan ere, *Jakin* aldizkariaren inguruan jaiotakoa baita instituzio berri honen asmoa.

UZEIk aurtengo udazkenean irekiko ditu bere ateak Donostian. Nonbait hasi behar eta Gipuzkoako hiriburuan ematen dio hasera bere ibilbideari. Gero gerokoak, eta, ahal badadi, gainerako hiriburuetan lehenbailehen beste lantegiak.

Zertarako izanen da UZEI? Lerro gutitan esanez, Euskal Herriko unibertsitalaurreko eta Unibertsitateko kultura euskalduntzeko izango litzateke ikas-leku hau. Orain artean ikastoletan burutu den euskalduntzeari segida emateko da UZEI, baina ez neska-mutikoen zat BP nahiz COU-rako beste ikastetxe bat sortuz. Hori beste nonbaitetik (Ikastola Federazioetatik, etab.) eratuko da. Lehen-lehenik, EGB/Unibertsitateen artean betelan handi bat egin beharko du UZEIk, lanabes lagungarriak sortuz, eta baita horretarako irakasleei zenbait laguntza eskeiniz. Baina, beti ere, hortik gora jo beharko du, Unibertsitatera. UZEIk, euskarazko Unibertsitatea posibleztatzen lanegin beharko luke.

Jomuga horietara goazela, behar-beharrezkoa dugu lana —euskararen kulturagintza lana— plangintza baten barnean eramatea. UZEI-ren eginkizunik nagusia horixe izango da: Ikastola eta Unibertsitatearen arteko pasadizoko kulturagintza programatzeko aukera on bat sortu. Hemendik aurrera gero eta gutiago ibil gaitzke unean uneko arazoei erantzuten. Premiazkoa da gainera letozkigukeen karamilak alde aurretik ikus, eta irtenbide orokor baten barnean pentsa eta konponbideratzea. Ez gaude horretan ohituta —horretarako mugonik ere ez baitzen—, baina usario berriak ere asmatu beharko dira, eguraldi berriei aurpegi emateko.

Egia da plangintzak etorriko direna, inoizko gobernabide autonomikoak jaiotzen baldin badira: baina, pentsatu ere pentsa liteke,

ez ote litzatekeen aski jatorrago lanean ari diren kultur taldeen artean plangintza hori burutzea. Utopia bat? Beharbada, baina, inondik ere, talde horiek zerikusirik franko izanen dute plangintzetarako ondoko urteetan ere. Horregatik, UZEIk Unibertsitatea-rekiko alor jakin honetan bederen plangintzari heldu nahi dio.

Guztiok dakigunez, lanok kostatzen egiten dira, eta beti ere profesionaltasunez eramatekoak ditugu, noski. Euskal kultur munduko taldeon une honetako eskakizun bat horretxek izan beharko luke gaurgero: gure lana profesionaltzeko laguntza eskatu behar dugu etengabe. Unibertsitalaurreko lanean profesionaltasun hori sortu nahi du UZEIk. Dirudunek esango dute asmo hori noraino egizta daitekeen.

Plangintza aipatu dut arestian. Gainerako taldeekin batera, eta berauei eman diezaikekeen laguntza eskainiz, egin beharko luke UZEIk plangintza hori, eta beroni dagokion lana. Erabat premiazkoa da horrela jokatzea, dena alfer lan bat izan ez dadin. Izpiritua lankide horrekin egiten ez den plangintza ez litzateke benetan emanorra eta iraunkorra gertatuko.

Oraingoan, UZEIren egitekoa hiru alor nagusitan banatu da: goi-alfabetakuntza, ikerkuntza eta informakuntza. Lehenengo bi alorretan giza prestaketari begiratuko zaio. Zalantzarik gabe, goi-alfabetakuntza da UZEIren betekizunik bereziena.

Zer da, ba, goi-alfabetakuntza hori? Euskal lanetan gabiltzan guztion eskarmentua da, ez gaudela zenbait eginkizunetarako prestatuta. Hizkera teknikoak erabili behar dugunean, sumatzen dugu, unean unean behin-behineko irtenbideak aurkitzen baditugu ere, hizkera egin bat falta zaigula. Hau da, bere barnean koherentzia bat ukanez duen hizkerarik eza. Eta areago: mailaren batetan lortu dugunean ere, sozialki esanahirik gabekoa dela sarritan. Hizkuntza, beti gizarterako kodigo bat da; baina behar ditugun hizkera teknikoak ez dira deus izango laborategitik aterata eta espezialduen-ganaino eramaten ez ditugun bitartean. Hizkuntzaren *sorketa* lan hau, eta gero *bedakuntza*-rena, bete beharko ditu goi-alfabetakuntzak. UZEI ez doa, beraz, euskara soilak dakienari irakurketa eta idazketa irakastera; aitzitik, euskaraz idazten dakienari unibertsital mailako kultura horretaz, euskaraz ere baliatzen irakastera baizik. Hizkera zientifiko-teknikoak sortu, ikasi, irakatsi eta zabaltzeko pentsatu da gehienbat UZEIren alor hau.

Datozen urteetan, hizkera tekniko horien sorketaren lana benetan buruhauste ikaragarria izanen da. Badakite ongi alor horretan ari direnek. Tamalez, muga hertsitan jokatu beharra dugu, hizkuntzarekiko hainbat eta hainbat erabaki hartzean; baina, hori jakinik ere, aintzina behar dugu egin. Muga hertsia? Bai, ez baitago landuta euskararekiko premiazkoa edo oso komenigarria litzatekeen gai asko. Eskumenean daude jakitateak bildu eta taxutu beharko dira lehendabizi. Baina bilketa horretatik aurrerakoan ez dago bai-

korregi izaterik. UZEIk burutu behar duen batekizunerako, egin-dako lanetatik bil daitekeena ez da maiz borobilegia eta osoegia gertatuko. Eta, hala ere, ezin dezakegu dena *ad calendas graecas* laga. Adibide batekin adieraziko dut esan nahi dudana.

Euskaltzaindiaren deliberamenduak ez dira burutu atlas linguistiko oso bat egin ondoren, atlas hori egiteko baitago aspalditik eta, dirudienez, egon ere luzaro egonen da egiteko. Eta, bienbitartean, batasuna bere bidea urratzen ari da guztion onerako. Izan ere, zergatik baldintzatuko dugu euskararen etorkizuna, aldez aurretik informazio erabatekoa eskatuz? Horrelakorik ez da apenas inoiz gertatu hizkuntzen historian. Gaztelaniak edo frantsesak ez dute atlas hori behar izan beren barne batasuna eta normalkuntza lortzeko. Horretarako, linguistika guztiak baino indar handiagoa ukan dute gizarte-indarrek eta politikak. Euskal Herrian ere orobat euskararekin. Betoz ikerketa berriak, ahalik osoenak, baina erabaki asko hartu beharko da ikerketa guztioi itxarotzen egon gabe.

Dakigunaren gain eta noizbait jakin dezakegunaren zain egoteke egingo du lan UZEIk. Baina ez ikara: informakuntza alor bat ere pentsatu da. Hor bilduko dira nonahitik jasotako albisteak. Argibide horien laguntzaz egingo dira hiztegiak eta oin-harrizko liburuak. Erabakien atzetik milaka fitxa eta kontsulta egongo da, hizkera teknikoen sorketa ongi finkatua eta ahalik onhargarriena izan dadin.

Sortuko diren idazlanean, emango diren ikastaroez, bilatuko diren laguntzez, euskarari eta euskaltzaleei zerbitzu onik eskaintzerik izango ahal da! ■ *Joseba Intxausti.*

«Eusko Ikaskuntza» berriz?

«Eusko Ikaskuntza» edo «La Sociedad de Estudios Vascos» sortzeaz bide dago. Zurrumurruak gero eta sarriago entzun ohi genituen. Horretan zebiltzan pertsona batzu ere ezagutzen genituen. Asmoak hezurramitu dira: Elkartearen Batzorde Iraunkorrak Asanbladarako deia egin berria du. J. M. Barandiaran, M. Irujo, J. Garate, M. Lekuona, A. Irigaray, J. Irizar dira sinatzaile.

Historia ospetsua du *Eusko Ikaskuntza*-k. 1918an Oñatin eraikia, lau Diputazioen ekintza legez, Elkarte honek euskal kulturaren goititzean eta hedapenean meritu handiak ditu. Ekintza eta meritu horien artean dago Euskaltzaindiaren sortzea, RIEV (edo Urkixoren *Revista Internacional de Estudios Vascos* sonatu hura argitaratzea, 1918tik 1934era urtero Kongresoak ospatzea, Euskal Kate-drak eraikitzea, 1927az gero Udal ikastaroak antolatzea, Eskolako elebitasunaren oinharrien projektua eta batez ere 1931ko Euskal Estatutuaren Projektua.

Elkartearen ekintzak, beraz, bitan adarkatzen dira. Ikerketa eta

zientzi gaien estudioa, bateko. Eta, besteko, kultura eta herri bizitzako lana.

Eusko Ikaskuntza luzaroan isilik egon da, hain zuzen 1936ko irailaren 5etik. Isiltasun hau, zalantzarik gabe, politika ezagun baten adierazgarri da. Eta instituzio publikoen axolarik eza salatzen du, okerragorik ez bada.

Bizkitartean, politika ofizialaren eta instituzio publiko guztien babesaren bazterretik, kultur inizatibak ugari erne dira Euskal Herrian. Azken 15-20 urte hauk aberatsak izan dira oso asmotan bezanbat ekintzatan. Projektu horietako batzuk jadanik lur hartu dute, finkatu dira; ekintza zenbait eratu eta egituratu da. Aipa ditzagun buruz zenbait: Editoriale zenbait, Alfabetatzen, Euskalduntzen, Ikastola, UEU edo Udako Euskal Unibertsitatea, UZEI edo Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Ikastetxea, eta abar.

Historia hurbileko hau kontutan edukirik eta gaurko talde batzuren dinamika haintzat harturik, zein izango da *Eusko Ikaskuntza*-ren jokua? Hau da galdera, batere maliziarik gabe egina. Zeren eta aipaturiko talde horik hor daude, bizi bizirik, dinamikoak dira oso, gazteria berekin dute. Badirudi *Eusko Ikaskuntza*-ren oraingo Biltzarreko deiak kontutan hartu duela egoera hau. Berrikuntza nahi dutela diote, gainerako elkarteak konbidatzen dituzte, eta espreski gazteriarri dei egiten diote. Elkarte bat gehiago izango ote da? Zenbait elkarteren moldatzaile izan al liteke? Izango denaren aurre-rapide bat, laster izango dugu, Biltzarre nagusia egingo denean. ■ *Joan Altzibar.*

Ingalaterrako Beltzak Karnabalaren azpian drama soziala

«Karnabala da gure festa nazionala»

Berrehun ta berrogei ta hamar mila (250.000) lagun inguru bildu ziren abuztuaren 28an London-eko Notting Hill hauzora, Beltzen karnabala ikustera... eta bizitzera.

Notting Hill hauzoak bi alderdi ditu: batean zuriak dira gehien-gehienak; alderdi aberatsa da. Bestean, beltzak bildu dira bereziki; London-eko hauzoric «beltzenetakoa» da Notting Hill; eta alderdi honi pobretasuna nabari zaio: etxetan eta kaletan.

Notting Hill «beltzera» ez dute ingeles zuriek bizitzera joan nahi; baina urtean behin bederen London-eko beltzak eta hainbat zuri ere haraxe biltzen dira, Beltzen karnabala ikustera.

Aurtengoan, eta alde zurretik, slogan nagusi bat zabaldu zuten beltzek: «Karnabala da gure festa nazionala». Ez zen Ingalaterrako

beltzen nazionalismo berriren baten oihua; eta bai beltzen baieztapen sozialaren asmo eta irudi bihurtu den festari eutsi nahia.

Lehenago urtetik batez ere arriskutan zegoen Beltzen Karnabala. Ikaragarritzko istiluak sortu ziren iaz, beltzen eta poliziaren artean. 325 polizia geratu ziren zauriturik, eta 131 herri jende. 35 polizi kotxe eta 31 lokale (denda etab.) ondaturik geratu ziren burruka hartan.

Aurten odei beltzak gaineratu zitzaizkion Karnabalari, aldeaz aurretik. Hilabete lehenago London-eko beste hauzo batetan, Lewisham izenekoan, manifestapen berezia antolatu zuen London-eko *National Front* (Fronte nazionala) delako eskuineko mugimendu faxistak. Ingalaterran azken Gobernuak eraman duten inmigrazio politikaren kontrakoa zen: hau da, bertaratu diren asiarrak eta batez ere beltzen kontrako manifestapena. Partidu sozialistak kontramanifestapena antolatu zuen. Poliziaren eta alde bietako manifestatzaileen artean sortu zen iskanbila handia izan zen: hainbat polizigizon eta manifestatzaile zauriturik geratu zen.

Handik astebetara, National Front delakoaren kontrako beste manifestapen bat egin zen Birmingham-en; eta hau ere gogorra.

Mindua zegoen, bada, giroa aurtengo Karnabalerako. Horregatik, eragozpen guztien gainetik, arrazismo faxistaren kontra, beste-lako probokazio guztien artean, Beltzen karnabalari *eutsi* egin behar zitzaion, «gure festa nazionala delako».

Festa eta biolentzia: bitariko baieztapena

Aurtengo Karnabalean nik festa besterik ez nuen ikusi igande arratsalde hartan. Eta pentsatu ere pentsatu nuen, benetan gizarte etsaiaren barnean, beltzen nortasunaren baieztapena adierazi eta finkatu nahi zuela festa indartsu, bizi eta oparo hark.

Baina handik ordubetera biolentzia sortu zen kaleetan. Eta astelehenean gogorrago. 139 lagun gertatu dira zaurituak aurten. 30 polizigizon hospitalera eraman behar izan dituzte. 53 lagun babitu zituen poliziak. 6.000 bat polizia ba omen ziren astelehen hartan Notting Hill-en.

Festa eta biolentzia oso hurbileko gertatu dira. Festa zaratuaren azpian bertan biolentzia izkutatzen zen; biolentzia, berriz, festa bihurtzen da.

Festa eta biolentzia biak dira beltzen karnabalak azken bi urteotan eraman dituen aurpegiak; eta biek esanahi berbera: Beltzen beren burua baieztatu beharra, Ingalaterrak eta bereziki London-eko beraiantzak sortu duen gizarte etsaiaren aurrez-aurre.

Beltz asko eta asko ikusten da London-en lan apaletan; beltzak hauzoren batetan ugaritu ahala, baliogabetu egiten dira hango etxeak zurientzat. Ia denak zuriak zireneko hauzo batetan, familia

bat hauzokideekin konpondu ez zelako, mehatxu hauxe jaurti zien: «Hamabost semealaba dituen familia beltz bati alokatuko diot neure etxea».

Eta National Front delakoak beltzak eraso nahi ditu.

Egoera honetan, festa eta biolentzia: biak dira beltzen Karnabalaren bi aurpegiak. ■ *P. Kortabarria.*

Ekologiak ere autonomiara

«Calidad de vida y Medio Ambiente» izenez Symposium bat ospatu da Deustun irailaren 21etik 23ra. Iruditzen zaidanez, hemenko komunikabideetan ez du behar adinako oihartzunik izan. Zeren eta, nire ustetan, Symposium hau, biziki garrantzikoa izan bait da. Hizlari eta entzuleen aldetik; eta gaiaren aldetik zer esanik ez. Munduko ikasi hoberentxo zenbait bildu da Deustun: Galbraith, Leontieff, Cohen, Hueting, Azaola, Dunsmore, Sampedro, Carpentier, etc. Entzule gisa, zientzi gizonak soilik ez baino politikoak ere han izan dira. Eta gaia?

Ezin interesgarriagoa da gaia. Alde askotatik erabili zuten: biologiak, hirigintzatik, midikuntzatik, deretxotik, ekonomiatik, politikatik... Satsadura eta kutsadura gaitz modernoa dira. Industri-gintzaren ordaina dela esan ohi da. Eta jendea galdetzen hasia da jadanik, ea ez ote den ordain garestiegia. Ez da ikusten, bestalde, industri-gintzak derrigorrez ondorio hauk ekarri behar dituenik. Aurrez aurre modu batek bai, gureak esate baterako. Horretaz jabetzeko aski da Bilbo inguruari begiratu bat ematea. Bizkaiko kutsaduraren % 70 industriari dagokio, % 22 autoari eta % 8 bakarrik etxe berogailuei.

Gainerako kontsiderazioak oro alde batetara utzirik ere, osasunari bakarrik arreta eginez ere, premiazkoa eta presazkoa da gure egoera tamala konpontzea. Londres garbitu zuen Cohen jaunak hala esan zuen: «Bilbo ikaragarritzko problema da osasunarentzat... egizue lehenbailehen zerbait». Egoera hori patu txar bezala hartu du zenbaitek, edo naturalizat.

Kutsadura ez da patuaren fruitua, gizonaren jokabidearena baizik. Euskal Herriak beste aurpegi alaiago eta garbiago bat aurkeztea, posible da. Egina da holakorik beste zenbait lekutan. Bi kasu garbi presentatu zituzten protagonistek berek: Cohen-ek Londres, eta Dunsmore-k Ipar Ameriketako Pittsburgh. 1954 arte Europako hiririk zikinena zen Londres, fama zuen gainera. Zikinkeria horren % 90 kearena zen, eta % 10 hibaiarena. Hamabi hilabete-tan garbitu zuen Cohen eta honen taldeak. Labe handiz beterik da goen Pittsburgh-ek ere, Dunsmore-k esan zuenez, bere kutsadurarik gehiena galdua du orain.

Bide askotatik doa soluzioa. Bat, ekonomia. Larogei ta hamar mila milioi beharko omen lirateke Espainia osoa garbitzeko. Gaurkoz, kutsaduraren kontra Ingalaterrak bere presupostu nazionalaren % 2 ematen duen bitartean, Espainiak % 0,5 eman ohi du. Legea ere zikinkeria burrukatzera jarri behar da. Politikoen egitekoa da hori. Herriaren mobilizazioak eta politikoen lanak zer esan handia du arazo honetan. Teknikoek ere zuzenki parte hartu behar dute, aztertzen, plana elaboratzen: ekonomilariak, soziologariak, ingeniariak, toxikologoak, midikuak, eta abar. Biribila da problema. Bere osotasunean hartu beharrekoa. Commoner jaunak esan zenez, oinharrian dauden problema politiko, ekonomiko eta sozialak aurrez aurre aztertu behar dira. Testuinguru honetan behin baino gehiagotan aipatu zen autonomia Deustun. Aginte autonomiko batek adarretatik heldu beharko lioke honi, eta lehenbailehen heldu ere. Esaterako, Anton Azkonaren ustetan, behar beharrezkoa da «erakunde autonomiko bat, ahalbide tekniko, zientziatzko eta ekonomikoarekin eta jaurtikinak kontroltzeko eta une bakoitzean behar den legeria egokia jartzeko nahiko aginterekin».

Autonomiari edukina edo kontenidoa eman behar diogun honetan, biziaren kalitatea bazter uztea barkaezina litzateke. ■ *Joan Mari Torrealday.*

Gerra aurreko euskal «herese» bat

Manolo Pagola

Batek badaki garai batetan hereseak ere bazirela. Sorginen erratzak errespetoa sartzen zuenean eta. Baina sutatik libratu zirenak ere aspaldi hil zirela uste du. Horregatik, zure etxeko atetan 88 urteko aitona beneragarri bat, heresetzat kondenatua izan zela eta historia bitxi batekin datorkizunean, kopeta zimurtu eta begiak hazi egiten zaizkizu. Harritu beste erremediorik ez daukazu. Kontatzen dizu bere trajeria. Uzten dizu zorigaiztoko liburua. Mateo Mujikak kondenatu omen zuena. Eta isildu besterik ez daukazu. Inongo literatur edo teologi historiatan inork inoiz ez bait du liburuaren eta egilearen inolako berririk eman. **Off side** zaude¹.

Igo zaitez, orduan, komentuko biblioteka zaharrera. Hartu eskutan hautsez jositako Gasteizko Apezpikutegiko boletin ofiziala. Mia itzazu Mateo Mujikaren garaiko tomoak. Eta bai. Hantxe dago: «**Decreto condenando el libro "Gaztek garbik izan"**». Egia da, beraz. Euskal hereserik badugu oraindik.

Egilearen eta honen obraren inguruko berri batzu eman nahi dizkizu lantxo honek. Interesgarria dela deritzat, idazle honen obrak izan dezakeen balioagatik, eta gerra aurreko giroa ezagutzeko datu horiek eskain diezaguketen laguntzagatik.

Egileari buruz

Bizente Aizpuru Agirrezabala Ordizian jaio zen 1889aren apirilaren 2an. Bergarako seminarioan eta Lekarozko ikastetxean lehen ikastaroak egin eta gero, Suizako Friburgon, ingeniari agrikola bezala diplomatu zen, lau urtetan bere ikasketak burutu ondoren. Or-

dizian, baserri lanetarako metodo berriak erabili zituen. Suerte handirik gabe nonbait. 1928. urtean Nafarroako Elo-ra joan zen bere osaba baten lurretako produkzioa antolatzerara. Gerra amaiturik 1939an Andoaina etorri bitartean iraun zuen han. Profesional bezala, oso kezkatu zuen nekazari munduak. Euskal nekazarien promoziotzeko liburu handi bat ere idatzi zuen.

Suizako esperentziak izpiritu kritiko bizia utzi zion. Euskal Herriko arazoak, politiko eta erlijiosoak, Europako begiz ikustea arriskutsua zen gurea izan den bezalako herri itxi batetan. Nahigaberik franko bereganatu du, bere bizitzan zehar, bere kontzientzia agnostikoaren askatasuna inolako katea zanpatzaitetik salbatzearen. Thomas Huxley-ren irakurle amorratua eta miresle zintzoa da.

Elo-ko egoitzak ere sakon markatu zuen. Hantxe bizitu zituen errepublikanoen etorrera eta gerra. Han, Nafarroaren eta Euskadiren arteko teinka. Karlisten eta nazionalisten arteko zubi izan nahi zuen. Herri deseuskaldundu haren euskal kontzientzia pizten saiatu zen. Irujorentzat boto asko bildu omen zuen, lehen itsu-itsuan karlista zen herri hartan. Politikan errepublikano, federalista, foruzale sentitzen du bere burua.

Liburuak

Bi liburu idatzi ditu Bizente Aizpuruk: **Nekazaritza eta Gaztek Garbik izan**. Hona hauei buruzko datu zenbait.

Nekazaritza. Euskalerriko nekazariantzat (40 ikasgaietan), Donostia 1930. Leizaola inprentan argitaratua. 214 orrialde ditu liburuak. Orrialdeko textua bi habetan banatzen da. Testu oso ugaria du. Eta era guztietako kontseiluak ematen zaizkio nekazariari. Lurra nola landu; landareak, arbolak eta basoak nola zaindu; behiak, oiloak, zerriak, erleak, etab. nola hazi. Natur zientziatako ezagupen zientifiko asko dago barreiatuak liburuan zehar.

Liburuaren gaia benetan interesgarria denik ezin uka. Euskara nahiko elementala eta traketsa du, egileak berak irribartsu eta lotsatuta bezala aitortu didanez. Horregatik ere bai noski, atera zituen 1.000 aleek ez zuten zabalkunderik ia batere izan.

Gaztek garbik izan. Jóvenes sed castos, Monreal 1930. Erdaraz eta euskaraz. Erdarazkoak 103 orrialde ditu. Euskarazkoak 95.

Egileak berak ohartzen dizu ez dela hitzez hizko itzulpenik eta erdarazkoa aurrena jertzearen arrazoi polita ematen, euskal zatiaren haseran:

Orain bada euskara atala; bidez, lenbizi joan bear zuna, zergatik nere oldozkaiak ere jakiña, euskeraz bururatuak diralako ta ate sarrera baten bi jaun eztabaitzen diran erara, ele euskera apalak adei besteri aurretasuna utzi diyo. Uarra-

razi bear dizuet gañera, ez direla bi atal erder-euskera abek, ziara berdiñak; esan nai det orrekin, ez direla itzak biurtuak, ez baizik gogaik bakar t'aska lasai (1 or.).

Liburua inprimatzailearen aztarnarik gabe dator, gotzaiaren kondenan ohartzen den bezala. Inprenta jabeak kontatu eran, zera gertatu zen nonbait. Liburua ia kaleratzeko azken puntuan zegoela, bi fraile suertatu omen ziren inprentan. Frantziskotarrak ote ziren susmoa du Aizpuru jaunak. Ez da ongi oroitzen. Eta hauek liburu hura dinamita gerta zekiokela sinestarazi zioten nagusiari. Hau ez zen ausartu arriskatzera. «Ez zait deus inporta» erantzun omen zion Aizpuru, erantzukizun osoa bere gain hartuaz. Inprentako kontuan azaltzen denez, gaur badakigu Beasaingo «Leonardo Zunzunegi» inprenta izan zela liburuaren 1.000 ale 672 pezetatan inprimatu zituena.

Liburuaren helburua, euskal gazteak ezkondu bitartean erabateko sexu garbitasuna nola gorde dezakeen erakustea da. Sexu barau hori zaila da, baina ez ezinezkoa. Liburuxkaren kapitulu denak horixe frogatzera zuzenduta daude, bat ezik. Kapitulu honek, laugarrena erdaraz eta boskarrena euskaraz, determinismoari eta fatalismoari buruzko ideiak ematen dizkizu biziki interesgarriak eta orijinalak direlakoan.

Euskal Herriko gazteak, koadro apokaliptiko samar batetan, lizunkerian itotzen ikusten ditu. Lizunkeria honen seinale eta suemailerik nabarmenena «dantza lotua» da autorearentzat. Horrek kezkatzen du, hitzaurretik bertatik irakurleak ikus dezakeenez. Igande goizean elizan eta arratsaldean dantzan helduta, ez dago kristau logikarik hor.

Aizpuren ustez, kristautasunaren etika jentilenarengandik bereizten bada, garbitasunaren mezuagatik da bereziki. Bertute hori da lortu behar duena, bere burua kristautzat daukan euskal gazteak. Bekatua apaizari aitortzeak, sarritan egingo badu ere, ezer gutxi lagun diezaioke. Ausaz, eragozpen izango zailo aitortzeko maiztasuna bera, barkamenaren erraztasunak errazkeriara bultzatuko du eta. Bertute hori eskuratzeko biderik egokiena, sexu grina eta senak nahime-naren indarrez menperatzea da. Autosujestioz salatzea.

Tesi hauxe defendatu nahi ditu, sexu barauak nola ez dakarren inolako kalterik, nolakoa den gizonaren sexu grina, zein berezitasun dituen honek, garbitasunak zein etekin dakartzan etab. azaltzen duenean.

Eritziak

Liburuaren tesia garaiko edozein apaizena bezain puritanoa zen, gehiago ez bazen. Baina liburuaren giroa, arrazoitzeko estiloa, sexu arazoak tapakirik gabe erabiltzeko ausardia, psikofisiologiari eta sexologiari ematen zitzaion tokia, arras arrotz zitzaizkion kleroaren mentalitateari. Gainera, autoreak agnostiko deklaritzen zuen bere

burua; Nazaret-eko Jesusen jainkotasuna dudatan jartzen zuen: «Aparece... en Palestina un genio; divino si fuera fiel retrato de como los Evangellos que poseo me describen» (16 or.). Eboluzionista da halaber haren mundu ikuskerara.

Baiezpen hau edo hura baino areago, ordea, liburuaren doinu librea, antidogmatikoa, izan zen zentsoreari guraizeak zorrotzu zizkiona. Elizaren eta honen apaizeriaren moldetatik landa ezer gutxi pentsatzerik, gutxiago argitara ematerik, zegoen garai batetan, ez zen arestian aipatu bi fraile haien begi zorrotzaren beharrik, liburu horrekin lur urmaeltsutan barna abiatzen zela iragartzeko. Ausarta edo egiazale amorratua izan behar.

Elizaren aldetik, espero zitekeena gertatu zen. Norbaitek «kritikatu» esateko, «egurtu» erabili du. Honi behintzat, kritika egur eta su tankeran etorri zitzaion gainera.

Bestelako eritzirik ere jaso zuen liburuxka ausartak, gutun bidez behintzat. Eritzi hauek, denak erdara hutsean noski, badutela interesik uste dut, eta osorik aldatuko ditut hona autorearen baimenez.

1. Sutara liburua!

D. Mateo Mujika Gasteizko gotzainak dekretu bat atera zuen liburua gogor kondenatuz. Familiaren adiskide zen gotzaina, Bizente Aizpururekin harremanik ez bazuen ere. Eta dekretuan ikusabartzen den bezala, karta bat idatzi zion, puntu batzu aldatuz gero pasa zitekeela esanez. Autoreak ez zegoela prest hitz bat bakarrik ere aldatzeko erantzun zion. Hona hemen dekretua:

Decreto condenando el libro «Gaztek garbik izan» y su traducción castellana

Revisado diligentemente por censores designados por Nos el libro sin pie de imprenta titulado «Gaztek Garbik izan» y su versión castellana con el título «Jóvenes sed castos» de D. Vicente Aizpuru, dirigido, según se lee en su prólogo, a adolescentes euskaldunes; y habiéndose advertido en él errores peligrosos y doctrinas heréticas, como la de negar o poner en tela de juicio la divinidad de N. S. Jesucristo; de afirmar que todo hombre «en cuanto actividad humana es producto de su patrimonio hereditario en su mayor parte»; de negar la creación del alma humana, propugnando una evolución materialista; de hablar de la confesión sacramental sin respeto a su institución y virtualidad divinas y atribuyéndola un valor puramente humano; de afirmar que la «experiencia de la humanidad es la síntesis de la moral viviente y activa, sentida e interpretada por las conciencias superiores de filósofos y moralistas»: formando todo el libro un acervo de conceptos y frases de marcado sabor modernista, informados por el principio de una evolución materialista; que, lejos de ser útil para

el fin que propone su autor de defender la castidad de los jóvenes euskaldunes, es ruinoso para su fe y educación moral y, por consiguiente, para la limpieza y castidad de su vida; estando confiados a Nuestra vigilancia y cuidado pastorales la mayor parte de los jóvenes vascos a quienes se dedica el libro; y habiendo Nos gestionado privada y paternalmente del autor, aunque con resultado infructuoso, para no vernos en el doloroso trance de reprobar públicamente su libro.

En virtud de lo establecido en el cánón 1.375, en cumplimiento de Nuestro imperioso y sagrado deber y de acuerdo con Nuestro Consejo de Vigilancia contra el Modernismo, debemos prohibir y prohibimos gravemente y bajo pecado mortal a Nuestros diocesanos leer, comprar, retener, vender, traducir o editar el libro titulado «Gaztek Garbík izan» con su versión castellana «Jóvenes sed castos», escrita por Vicente Aizpuru; y mandamos a los que posean algún ejemplar del mismo que inmediatamente lo destruyan o lo remitan a Nos directamente o por mediación de sus Párrocos.

Vitoria, 9 de marzo de 1931
✠ Mateo, Obispo de Vitoria

Ikus Boletín oficial del obispado de Vitoria, 1931ko mar-
txoak 16, 227-228 or.

Esan beharrik ez dago autorea ez zegoela eta ez dagoela ados kondenarekin, ez eta bere pentsamenduaren zenbait punturi dekretuak ematen dion interpretapenarekin. Konkretuki, materialismo salakuntzarekin.

Garai hartan, nonbait, gotzainaren aginduak ez ziren hitz hutsik. Egileari berari, beretzat txukun koadernatuta zeukan ale bakarra erre egin omen zioten behintzat. Sendagile bati irakurtzeko prestatu, eta honek apaiz maltzur baten aholkuz sutara bota omen zion. Aizpuru jaunak esan digunez, Andoainen gertatu zen hori.

Gotzainaren taxu horretako errekomendazio batekin, zaila izan behar zuen liburudendetan saltzeak. Adiskideen artean dohan banatzearekin konformatu zen autorea. Horietako batzuek, eskertuz eta beren eritzia agertuz erantzun zioten. Interesgarriak dira kritika hauk, gotzainaren kondenaren aurretikoak bait dira. Idatzi zioten ordenu kronologikoan emango ditugu.

2. Juaristi jaunaren gutuna

Juaristi jauna Iruineko sendagilea zen. 1931ko urtarrilaren 8an (gutunak 1930 dakar, baina 1931koa da ezbairik gabe. Liburua argitaratu gabe bait zegoen aurreko urte horretan. Edozeinek daki zenbat gutun idazten den urte berriaren haseran zaharraren datarekin).

Amigo y Sr. mío: He leído su libro, que cuando me lo

entregó, creí que era de versos en vascuence. Gran sorpresa, al ver que trataba un tema trascendental.

Rápidamente me di cuenta del «porqué del silencio de la crítica», de que Ud. se quejaba. Yo mismo he tenido que renunciar a ejercerla desde la prensa.

En primer lugar, **en estos periódicos**, no se quiere hablar del problema sexual, como no sea para condenar los espectáculos y lecturas inmorales, así, vagamente. El análisis de instintos y sentimientos relacionados con la generación es rehuido en absoluto; hasta se ha llevado a la terminante prohibición de conferencias relativas a estos temas: «educación sexual, eugénica», etc., etc.

Todo libro que trate de estas cuestiones es ya juzgado como atrevido y peligroso, y su autor es rayado, se llame Marañón, Asua, Banús o Aizpuru.

Después, ha escrito Ud. un capítulo en el que se dice y sostiene que la confesión es ineficaz como defensa de la castidad y hasta hace Ud. ver que la facilidad de la absolución hace reincidir. Este criterio puede ser aplicado a todos los demás pecados. Y si aún está sin excomulgar y sin recoger o refreir, es porque no se estila o porque no lo han leído. Pero al que hiciere el elogio de esta tesis ya le había caído buena.

Sin embargo, yo hubiera pasado por estos «inconvenientes» si los directores de los periódicos me lo hubieran tolerado (¡Que no!). Pero luego discrepo de Ud. en algunos puntos; por ejemplo en la importancia que Ud. dá al baile «agarrao» en cuanto a la castidad. Una larga experiencia profesional en muchas partes del mundo civilizado, me han convencido de que el baile no entra para nada en la libido, aunque sea el remedo inconsciente del acto carnal. En Galicia y en la Montaña navarra, donde bailan sueltos, son legión las chicas que paren en soltería, **los incestos**, y otras monstruosidades. En cambio en Castilla y Andalucía (en el campo) la gente es de una castidad que raya en fiera obsesión; y una «chula» no aguanta un desmán sin devolver un bofetón. ¡Si Ud supiera que la casi totalidad de las que paren en la Maternidad de Guipúzcoa y Navarra son chicas que no han bailado un chotis, ni un tango...!

Tampoco estoy conforme en su culto a la tradición y a la lengua, aunque de una y otra sé más de lo que presumen algunos ultratradicionales y eusquerizantes. Soy hombre de renovación, de adaptación y, mejor aun, de revolución. Una tradicional costumbre fue, antes, una novedad; y la lengua que no me sirve para intercambiar ideas, es sólo un monumento arqueológico o un dulce recuerdo maternal. Usted, que ha escrito un libro bilingüe... y no vende, si lo hubiera escrito sólo en vascuence, ¿quién lo hubiera leído? En las últimas fiestas vascas de los Jardines, quizá fuera yo de los pocos que compraron algo en un puesto de libros que instalaron.

Ya vé que soy sincero, como Ud. es hombre de buena intención y estudioso.

Pero creo que este libro sólo le producirá alguna satisfacción íntima y quizá más contrariedades de las que suponía al escribirlo e imprimirlo.

Salud y mande a su affmo.

Juaristi

Azpimarkatzekoa da sexu informatari, dantza helduari buruz dioena. Euskararen balio praktikoari buruz eta euskal liburuaren salmentari buruz azaltzen dituen eritziak ere interesgarriak dira. Garbi ikusten ditu, halaber, liburuaren arriskuak.

3. Benigno Orejaren gutuna

Goralmenezko tonuan idatzi zion Benigno Orejak Donostiatik, 1931ko urtarrilaren 11n.

Distinguido y estimado amigo: hace ya algún tiempo recibí acompañado de afectuosa tarjeta su producción literaria bilingüe «Jóvenes sed castos».

Mi demora en acusarle recibo y agradecerle tanta atención, no ha obedecido a otro motivo que al deseo de enterarme detenidamente de su contenido, como siempre es costumbre mía en casos análogos, antes de contestar dando las gracias al que tiene la bondad de regalarme un libro.

Particular atención ha merecido de mi parte el estudio de las páginas del suyo 1.º porque no creía era aficionado a esta clase de trabajos y 2.º por la naturaleza del tema tratado.

Sin ánimo de ofenderle con el alago (sic) le diré que el tema está bien desarrollado, hay conceptos muy hermosos, literariamente bien escritos y sobre todo la intención es tan sublime que espero ha de dar óptimos frutos en el País su lectura.

Reciba, pues, mi sincera felicitación por la obra ejecutada, y reciba como siempre el afecto y consideración de su affmo. amigo y s. s. q. e. s. m.

B. Oreja

Hain laudoriozko kritika egin zion gizona, ordea, ez zen gauza izan, gotzainaren kondenaren ondoren, autoreak bere midiku lagunen artean gratis banatzeko bidali nahi zizkion 50 ale jasotzeko. Katoliko bezala, Gotzainaren eritzira kontzientziak makurtu beharra zeukala idatzi zion. Alferrikakoa izan zen Aizpuruk kontrako bere eritzia agertzen zioneko gutuna. Liburuekin gelditu zen.

4. Jose Antonio Agirre

Jose Antonio Agirrek ez zuen kontzientzi problemarik izango. Ma-

teo Mujikaren dekretua baino lehenagokoa izan arren, dekretuaren direkzio berdinean kokatzen da. Beste erreparoen artean, gogor kondenatzen du eboluzionismoa. Aitortzari buruz arras desberdin pentsatzen du. Eritzi bitxi samarrik ere ez da falta. Hala ere, errespetoa eta izpiritu elegantzia darion eskutitza da. 1931ko urtarrilaren 22koa da.

Muy Sr. mío: He recibido su obrita «Gaztek garbik izan» cuyo envío agradezco como delicada atención.

Lo que no puedo silenciar en conciencia es el contenido de la misma que a mi juicio (y téngalo como el de un amigo) si se difunde ha de producir desastrosos resultados. En primer lugar por las aplicaciones prácticas de la misma contrarias no sólo a la Religión que los vascos profesamos, sino aún al mismo derecho Natural que en sus más elementales normas señala al género humano un proceso diametralmente opuesto al señalado por la doctrina evolucionista.

En el capítulo en el que se considera a la **confesión** como ineficaz es altamente perturbador. ¿Considera Vd. que el joven que comete sacrilegio en la confesión por callar por vergüenza, tendrá suficiente preparación para educarse a sí mismo en orden a la castidad?

Así lo estimó el protestantismo que como Vd. sabe desencadenó con tal motivo la lujuria más desenfrenada en los países en que se extendió. Asimismo el laicismo produce igual resultado que todos lamentamos.

Yo espero en bien de la Patria que los dos amamos y en bien de los altos destinos de nuestra juventud, que Vd. hombre como se deduce, de gran cultura y de espíritu correcto reflejado en el respeto con que trata todo lo que no discurra como Vd., ha de comprenderlo así y empleará su pluma y sus conocimientos en bien de estos dos grandes amasadores de nuestra felicidad: Jaungoikoa (nuestra Santa Religión) y Lagi-zarra (nuestra soberanía conculcada).

Le hablo de hermano a hermano con el mayor cariño y respeto, en la seguridad de tener acogida en quien con tanto respeto trata a los demás y que con ello se hace acreedor a lo mismo.

Ofreciéndoles mi amistad sincera, queda de Vd. Afmo. en Jel q. e. s. m.

José A. de Aguirre

5. Gregorio Marañon-en gutuna

Gregorio Marañon-ek gotzainaren kondenaren ondotik idatzi zion. Liburuxkari buruz ezer konkreturik ez dioen arren, badu interesik gotzainaren jokabidea epaitzen duen moduagatik, eta Marañon bezalako intelektual leial batek giro klerikal hartan zer espero zezakeen garbi adierazten duelako. 1931ko apirilaren 28an idatzita dago.

Mi buen amigo. He recibido su librito que me parece

muy interesante. Lo absurdo es que haya podido ser objeto de la agresión episcopal. Claro es que conociendo a nuestros obispos, nada puede extrañar. Yo también he tenido que sufrir la persecución de muchos de ellos; lo mejor es no hacerles caso. Con mucho gusto, repartiré el librito entre mis amigos.

Un saludo muy afectuoso de

G. Marañón

Bukatzeko

Eztabaida hauk, aingeruen sexuari buruzkoak bezain bitxiak irudituko zaizkizu gaur. Gaur, ez gisa horretako libururik idatziko zen, ez kondenarik hartuko zuen. Eta ez, aipatzen diren arazoez gaurkotasunik ez dutelako.

Bizente Aizpuren kasua ere poztekoa da. Apaizeriaren agintea bortitzagoa zen garai hartan ere kontestatzaile bakanen batzu izan zirenen lekuko delako.

Ordua baino lehen jaito beharrak lanak ematen ditu. Amari eta haurrari. Garai batetako giroan nagusi den pentsakeratik kanpo dabilenak ere minik franko jasan ohi du.

Eritziak gorabehera, eskertzekoa da Aizpuru bezalako izpiriturik egotea. Giroaren morroi izan gabe, bere kontzientziaren askatasuna, bere nortasuna, eta nork bere eritziak argitaratzeko eta zabaltzeko eskubidea salbatu nahi izatea. Gisa honetako gizonen sufrimenduei esker doa askatasuna bere bidea urratuz.

Gaur inork ez ditu kondenatzen ez pertsegitzen herese hauk. Baina kondairaren isuriarekin kasu hain mingotsak konpondu nahi izatea, errazegia dirudi. Hartutako egurrak eta jasandako erasoaldiak burdina goriz markatu bait dute sarri horien bizitza. Ondoko belaualdien esker ona merezi dute gutxienik. Errekonozimendu publiko eta ageriko bat. Artikuluxka hau, ez da noski zor zaion guztia, baina lantxo hau guztia justiziaz zor diogu Bizente Aizpururi.

M. P.

¹ Villasante, Michelena, Onaindia eta Sarasolaren euskal literaturaren historiari ez dut aipamenik aurkitu. Añamendiren **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco-k**, ordea, ematen ditu berri laburrik, Yon Bilbaok bere bibliografian ematen duena bilduz. Hona Añamendik dioena: «**Aizpuru, Vicente**. Autor de una breve historia de la Virgen de Izlar como protectora de los marinos, traducida al euskera por D. Francisco M.^a Gorostegui y publicada en Tolosa en 1884. También es autor de otras dos publicaciones «Gaztek Garbik izan» y «Nekazaritza Euskalerriko Nekazarientzat» (1930).

Hemen nahasmen bat dago inondik ere. Yon Bilbaok eta honen ondoko Añamendik, bi idazle homonimo bateratu egin dituzte nonbait. Gure lan honetako «Gaztek Garbik izan» liburuaren idazleak nekez idaz zezakeen 1884 urtean Itziarko Amaren kondairarik, 1889 urtean jaito bait zen.

1937-1977: Gramsci-ren urtea

Joxe Azurmendi

Antonio Gramsci, gartzelatik irten eta hiru egunetara 1937an hildako Alderdiaren antolatzaile, buruzagi eta teoriko inportanteenaren omenaldi urtea, ospatzen du Italiako Alderdi Komunistak aurten.

Bi puntu destaka dezakegu Gramsciren pentsamenduan: hegemoniaren teoria, komunista italiarrek aurten gehiena aipatzen duten puntua. Alderdiaren teoria: Euskadin, beharbada, momentu honetan, interesgarriago duguna. Hemen, behintzat, honi gehiago begiratuko zaio, Euskal Herrian —EIAko teoriko batzuk, adibidez— Gramsciren Alderdi teoriari segitzen zaiolako. Eta ez zaigulako guretzat zuzena iruditzen puntu guztietan.

HEGEMONIAren teoria, konpromiso historikoaren legitimazio eta oinharri bezala, gogotik aipatzen dizute eurokomunistek. Esan nahi du, gizarte batetan beti «alderdi» asko dagoela; alderdiok justu klaseekin kointziditzen ez dutela, ondorioz. Alderdi baten barruan ere beti alderdi asko dago. Alderdi bat klaseren baten «nomenklatura» da, izan. Baina Alderdia ez dago gizartean bakanduta, klasea ez dagoen bezalaxe. «Klasea ez dago isolatuta: adiskide, ahaide, kontrario eta etsai artean baino». Klase bat, gizarte osotasuneko eta historiako elkar eragipenetatik resultatzen duena da. Beraz, Gramscik ez du Alderdi Komunista organizazio bere baitan hertsu eta guztiz berdindu bezala ikusi nahi. Leninek Alderdi proletario hermetiko bat nahi zuen, *gero*, Alderdiak, intelektualekin eta nekazalgoarekin aliantzak egiteko. Gramscik Alderdi irekia nahi du. Laborariak

ere Alderdian. Diferentziak Alderdian. Gizartearen beste kontzeptu bat da eta, horregatik, politikaren beste kontzeptu bat. Alderdiak, ba, «borondate kolektibo» bat sortu behar du lehenengo, gero, berak bakarrik ez baino bere lagunekin eta adiskideekin eta ahaideekin batera, bera hegemoniko dela, gobernu hartzeko.

Eurokomunistek gizarte ezberdinen aliantzak proposatzen dituzte (kristau-demokratekin Italian, sozialistekin Espainian eta Frantzian), talde nagusi baten inguruan eta gidaritzapean. Gramsciren hegemonia kontzeptua ez da justu-justu hori, baina horretarako bide ematen du. Eurokomunismoak, bere aitzaindari eta teoriko gisa, Gramsci kontsideratzen du.

Beste puntua *ALDERDIAREKIKOA* da¹. Gramsciren ideia asko bezalaxe, hau ez da Gramscik sistematikoki eta azkeneraino pentsatuta utzi digun kapitulua. Okasioa eta premia sortzen ziren bezala egin ditu bere gogoetak eta horik, nahi ta ez, koiunturalak eta fragmentarioak dira, estiloz ere. Iruditzen zaidanez, Alderdiari buruz Gramsciren obran agertzen diren burutapenak, etsai biren kontra eginak dira gehienbat. Esan nahi da, Gramsciren obserbazioak etsai biok probokatu dituztela eta mugatu ere, orduan, horiexek mugatu dituztela.

Gramscik borrokatzen duen lehenengo etsaia, izendatu ez arren, *stalinismoa* da (beharbada leninismoa) Alderdi kontzeptuan: burokratismoa, etab., eta horretara daraman unitarismoa. Gramscik problema asko izan zuen Alderdiarekin Italian. Alderditik bota ere omen zuten, baina, bera gartzelan zegoelako, botaira ez zen publikatu. Agian Alderdiak bazuen ikuskizunik Gramsciren gartzelaldian bertan ere, berak hala uste zuen behintzat.

Ulertzen dudanez, nik honela esango nuke: zentralismo demokratikoaren *ideia* onhartu du, ideia; baina *errealitatea* ironia zorrotz batez kritikatu du. Izan ere, Gramscik *bere presuposuetatik* (gizartearen nahiz Alderdiaren beraren burutaera funtsean pluralistatik) ulertzen du zentralismo demokratikoa; baina zentralismo demokratikoa, Alderdi Komunisten historian, ez zen hartzea erabaki eta ez zen inposatu presupostu horiekin, eta praxian ere beste zentzu bat izan zuen, halaberharrez.

Gramscik, gero, «Alderdi harrokeria» gogorki astindu ditu. «Masa Alderdia» ere gogor kritikatzten du: azken denboretako

¹ Euskaraz lantxo bat ikus daiteke, firma gabe, «Marxismo eta Alderdi» (Gramsciri orri eta erdi eskalini dio), in *Zabal* 17 (1976) 31-36.

masa Alderdiotan, dio Gramscik (masa Alderdi orori faxismo kutsua hartzen ote zion?), masak, zentru mistiko bati obediencia militar osoa ematea beste funtzio politikorik ez du. Zentrua bera, agerian agertu nahi ez duten indar ilunen agindu aparatua besterik ez da. Indar ezkutu horiek darabiltzate masak dantzaz. Masak, «maliobratzeko» bakarrik balio du. «Se le da ocupación con prédicas morales, con estímulos para sus sentimientos, con mitos mesiánicos de esperanza de tiempos fabulosos en los que la miseria será barrida y las contradicciones actuales serán eliminadas automáticamente»...

Kontzientziatuen Alderdia bakarrik nahi du. Masa Alderdian masak nola engainatzen, manipulatzeko eta aprobetxatzeko diren, batera eta bestera erabiltzen diren, ironia eta errealismo gordin-gordinez salatu du.

Baina masa Alderdiaren kritikak ez du esan nahi, masen hartukizunik ez duela nahi politikan. Aitzitik, Alderdiak masa horik behar ditu (eta alderantziz), baina «borondate kolektibo» sortu eta indartu eta gero. Ez marionetak.

Bigarren etsaia, Gramscik, Alderdiaz teorizatu duenean, beti begien aurrean izan duena, Croceren kontzeptzioa izan da. Sorel eta konpainiarekin ere polemizatzen duela: politika «pasio» bat den kontzeptzioa, grina bat. Hots, *espontaneismoa*, aktibismoa, politika ikaragarritzko borroka bat bezala imajinatzea, edo planteatzea, lan bezala planteatu ordez. Grina organizatu eta permanente bat pentsa ezinezkoa da. Beraz, Croceren kontzeptzioan Alderdiak ez dute lekurik. *Condottiere* karismatiko batetan, ordea, Gramscik ez du sinesten. Aktibismoak azkenean restaurazionismo hutsetan bukatzen duela uste du. Borrokaren amoroz borrokan aritzea, esango du Gramscik, Indibidualismo ziztrinaren seinale da, emozioak bizten eta barneko isuri beroak asetzen baditu ere. Azkenean apolitikoa da. Bihozkadek eraginda aritzea, «Estatu kontzientzia» gabe aritzea. Aktibistok harritu egiten gaituzte eta beren axioak eta menturak miretsi egiten ditugu, justu zoologikoan ximuen imintzio portaerak miresten ditugun bezalaxe. Izan ere, piztien jokabidea da horiena. Gramscik Savonarolaren Alderdi lainotsua bezala kontsideratuko lituzke, Machiavellirekin kontrastez. Savonarola sua da; Machiavelli burua eta kalkulua.

Horik biak dira Gramscik borrokatu dituen Alderdi kontzeptzioak. Nola bururatzen du berak Alderdia?

Alderdiak mintzatzea, gizarte osoaz mintzatzea da, azpimarkeztatzen du beti. Machiavelliren *Príncipe*-a, Estatu berriaren krea-

tzailea, ezin dezake gaur heroi edo *condottiere* karismatiko bategen inkarna, baina Alderdiak: alegia, borondate kolektibo bat eta Estatu kontzeptu berri bat. Alderdiak, bere baitan, sortu nahi den Estatu molde edo antolaera berria inkarnatzen du. Alderdi batek Estatu kontzeptzio bat adierazten du. Honek esan nahi du, aurrenik Estatu kontzientzia behar dela, Alderdirik osatzeko. Honekin espontaneistak eliminatzen dira. Problema bakan baten edo besteren inguruan mugimendu ikaragarriak eta erreboltak munta litezke. Baina, hori, hezkuntza bezala balio dezakeenaz aparte, deus ez da, restaurazionismoan bukatu beharko duten haize zirimolak baino.

Estatu kontzeptzioak teoria eskatzen du eta teoriak, *intelektuala*. Alderdi babetarako lehenengo intelektualak behar dira. Baina, zer gertatzen da? Gramscik ez du ideal bat formulatu nahi; izan, Alderdiak zer diren, eta, gauzak izaten diren bezala, Alderdiak zer izan daitezkeen, formulatu nahi du. Europako Alderdi panorama aztertzen du. Ikusten du, klase baten Alderdi organikoa (esanahi honetan sindikatuak, prentsa, etab., Alderdiak dira: Alderdi kontzeptuak zentzu ezberdinak ditu Gramsci baitan), borroka diferenteen premiagatik, etabar, frakzio ezberdin askok osaturik dagoela. Beraz, klase baten Alderdi organikoa, Alderdi edo frakzio ezberdin askok osaturik dago. Eta ikusten dugu, Alderdiaren intelektualak ez direla zuzen-zuzenean frakzio horietako batetan ere organizaturik egon ohi. «Eskolatuen elite» edo intelektualen Alderdiak, beren artean antzeko Alderdien edo Alderdi funtsean bat bera denaren zatien, buruzagitza kultural eta morala darama.

Gramscik intelektualei damaien inportantzia konprenitzeko, gogoan hartu behar gizarte zibilaz pentsatzen duena. Gizarte zibila ez da batasun hermetiko bat; sailkatua da mila eratan, talde eta instantzian. Harreman sistema konplexoa da. Prentsan ari denak, ez ditu gauzak eskoletan lan egiten duenak bezala ikusten, etc. etc. Beraz, golpe batez aginpide politikoa eskuratzea («iraultza»), posible da, posible izan (Iraultza Sobietarra). Baina hori, mendebaleko gizarte zibil guztiz sailkatuan batik-bat, agintariak aldatze hutsa litzateke eta iraultzarik ez litzateke.

Klaseak berak ere ez du batasun hermetiko bezala esistitzen: «alderdiek» osatzen dute; leku batetik bestera, adinez, etab., mila diferentzia bait dago. Guztien kontsentimendua eta baitespena eta kolaborazioa behar ditu Alderdiak irabazi. Ordea, kontzientzia argituz, eta ez, sentimenduak berotuz. «Bo-

rondate kolektiboa» intelektualek sor eta bil dezakete, masen erreforma moral eta kulturala (intelektuala) eraginez. Alderdiak izan behar du, azken finean, «intelektual» hori.

Alderdiak hiru osagarri du: 1. oinharrizko jendeteria. «Hauk, norbaitek zentralizatu, organizatu eta diziplinatu baditu bakarririk dira indar bat». Horik bilduko dituena da Alderdiaren elementurik inportanteena: hots, 2. buruzagitza. 3.ik, bion arteko koadroak.

Gramscik inportantziarik handiena ematen dio *buruzagitzari* (intelektualei eman dien inportantziarekin korresponditzen da). Buruzagitzatik dago, Alderdia zer izango den. Buruzagitza gabeko Armadaz, hitzegin ohi da; errealtatean, esaten du Gramscik, zailago da buruzagitza on bat prestatzea, Armada prestatzea baino. Buruzagitza on bat baldin badago, Armadarik ez badago ere, laster sortuko dizu, borondate kolektibo baten eta jomuga jakin batzuren inguruan. Buruzagitzak berak sortuko dizu Alderdia (beraz, ez da «aparatu buruzagitza», adierazi nahi dena). Buruzagitza politikoaren «Alderdi» hau («Alderdi» berezi bat da buruzagitza ere: handik ere gauzak ez dira «behetik» bezala ikusten) eta «intelektualen Alderdia» elkarrekin eskuz-esku doaz: sortuko da buruzagitza politikoa, baldin aurretik ustea eta konbentzimendua sortu bada, problema inportanteenen soluzio jakin bat badagoela eta huraxe behar dela.

Gramsciren «intelektualak» zentzu zabala dizu. Langilea ere intelektual da, bizitzaren eta lanaren ikuskera intelektual bat errepresentatzen duena, intelektualaren funtzioz ez ihardun arren gizartean. Leninen aldean, esate baterako, Gramsciren azter- eta pentsabideetan atentzio ematen du, gizarteak beti gordetzen duen batasunak. Ez dira ikusten, proletalgora hemen, laborariak han, hor intelektualak, etab., molekulariki pikatuta gizartea. Harreman sare bizi bat da gizartea. Alderditar guztiak dira, batez ere, intelektualak, edozein langile baino gehiago, beren bizitzaz eta ekintzaz besteak heitzeko burutzen duten lan pedagogikoaz.

Gizartearen modura, historia ere beti kontinuitate bezala ikusiko da (eta, horri eskerrak, Gramsci «komunismo nazionalen» aitzindari bezala hartua izango da). Ez da Gramsciren ikuskera: honaino feudalismoa eta kito; honaino kapitalismoa, gero problema guzti horik desagertuko dira, etab. Ikuspegi etapista. Nazio bakoitzak bere kontinuitate modua dizu, bere tradizio historikoak eta originalitatea, insistituko du Gramscik. Horregatik,

klaseak eta Alderdiak, klase baten «Alderdiak» ere, diferenteak dira nazio bakoitzean.

Alderdiaren ardatza «borondate kolektiboa» da. Borondate kolektiboa lortzeak esan nahi du, asmo baten kontsentimendu orokorra iritsi beharra dagoela, intelektua edo ideologia aktibo dabileneko sail eta maila sozial guztietan: eskolan, artean, dretxoan, filosofian, zientzian, prentsan, literaturan... Maisuak, juristak, periodistak, ikusi egin behar dizute, holako eta holako Estatu era baten egokitasuna. Alferrik samar litzateke proletalgoak indar- eta gogorkeriaz aginpidea irabaztea, maisuari, esate baterako, proletalgoak eraiki nahi duen Estatu kontzepzioa kaltegarri iruditzen bazaio, eskolatik begiratuta. Proletalgoaren Alderdiak, lehenbailehen Gobernua eskuratzen ez baino kontrentzitzen ahalegindu behar du, intelektualak, teknikoak, ekonomistak, maisuak, artistak..., beste taldeak eta Alderdiak, jende oldeak; bere proiektuaren zuzentasunaz zapaldu denak kontrentzitu eta elkar lanerako irabaziz, Alderdi *hegemoniko* bihurtzeko. Gramsci oso urruti dago proletalgoa *berez* klase unibertsala omen delako, proletalgoaren Alderdia gizadi osoaren interes eta on denen eta zuzen guztiaren inkarnazio bezala ikustetik. Gramscik, radikalki pluralista, ez du inolako monolitismo nahi, baina batasuna eta diziplina.

Azalpen arrunt soilokin utziko dut (puntu batzutan aski moztu edo bortxatu ere egin ondoren: «Alderdi organikoarena» puntuan, adibidez) Gramsciren Alderdi teoria. Osokiago ezagutu nahi dezanak, ikus beza Karmelo Arroiaberen idazlana, «Gramsci», in *Zabal* (1974) 30-35. Bukatu aurretik, ordea, ohartxo batzu egin nahi nituzke, euskal ezkerrean oraintxe Alderdiaren problema eztabaidatzen denez gero.

Euskal Ezkerrean Alderdia

— ALDERDI/GIZARTE arteko batasunaz: zer gertatzen da ezker abertzalean? Alde bateko EIAren eta besteko HASI/LAIAren artean, borroka itsusiak ikusi ditugu aurtengo udan. Lehenagotik datoz istiluok eta denbora asko da ia, istilu artean ikusten ditugula, ETA, EIA, HASI, LAIA, ESEI, ESB eta diren, edo ez diren, ezker abertzale guzti-guztiak. Horrela, «ezker abertzalearen Alderdiak» ezin asumi dezake sekula euskal gizartearen gidaritzza, ekintza konkretu bakanen batzutan izan ezik. Euskal ezkerriari kontzientziarik ere ez zaio iadanik nabari, Al-

derdi horietako bakoitza baino lehenago «ezker abertzale Alderdia» dela; Gramscik esango lukeen «bloke historikoa».

Ezkerrak, exito batzu lortu ditu oraindik aktibismo mailan: Askatasun ibilaldia, demostrazioak. Baina —esango digu Gramscik— azkenean hori dena, hori bakarrik, «borrokaren amorez borroka» bihurtzen da eta apolitikoa da. Denbora badoa eta ez da ikusten estruktura berri bat sortzen denik. Maila berri bat irabazten denik. Hauteskundeetan, parlamentuan, autonomiaren arazoan, etc., ezker abertzalea hor dago, egon. Baina, astiro-astiro, hor egotea beste funtzio gabe agertzen hasi da, «talde kontestatarior» soil bezala. Euskal ezkerrean ez da nabari Estatu kontzeptu bat eta Estatu berririk eraikitzeko gauzatasun teoriko eta ez teknikorik. Taldetxo marjinatu testimonial baten itxura guztia hartzen ari da bere agerraldi guztietan.

Euskal ezkerrak erakutsi du, borrokan badakiela. Ez du oraindik erakutsi, «politika egiten» ere badakienik.

—BURUZAGITZA kontua: Euskal Herriko masek erreferentzia garbi eta seguru bat izan dute joandako urteotan: ETA. Autoritate zaila, ohieza, baina irmoa zen: zaila zen segimene ematea; kontrolatzerik ez zegoen, justu zer zen; baina, autoritate oso-oso zen, autoritate bezala osoki aitor zitekeena eta harekin osoki identifika zitekeen... Orain? Nahiko erraza da, hemengo autoritateoi segitzea (EIAko, HASIko ala nonahiko), horik zer diren eta zer dabilzan ikustea. Baina horik, «zu eta ni bezalakoxe gizonen kategorian» sartzen dira eta, zein ETAago lehian dabilzan arren, ez dira masek behar zuten eta duten erreferentzia, autoritate bortitza eta garbia, izatera ailegatu, elkarri eragozten ere badabilza eta, inor horretara ailegatzea.

Beharbada oker daude masak eta ezin daitekeena esijitzen diote autoritateari? Beti ere ETAREN kualitateak —martirioa, funtsean— eskatzen zaio oraindik autoritateari? Bestelako denborak dira, ordea. Bestelako dohainak behar ditu autoritateak. Baina ezker abertzalea osatzen duten Alderdiak, ETAREN oinordea jaten ari dira, handik bizi dira; eta, buruzagitza diferenteak, ETAREN (hitzezko) jarraitzapen hutsal bat bezala entseiatzen ari dira, alfer-alferrik; eta, nire ustez, autoritatea galtzen ari dira, errentatik ez bait dago luze bizitzerik. Ezker abertzaleak ez du aurkitu etapa berrian behar zuen buruzagitza berria.

Egia esateko, gure kontzientzian ez gara behar bezala aklatu ere egin, benetan etapa berri batetan gaudela orain. Eta bihotzik ez dugu izan, mila «ohiturarekin» edo modurekin, orain arteko autoritaterekin eta leialtasunekin, hautsi eta benetan be-

rriro hasteko. Bai masak eta bai autoritateak, ilusio batetatik bizi dira, adorerik ez dugulako, denbora berriak diren bezala ezagutzeko².

Bitartean euskal ezkerria buruzagitza moral eta ez organizatibo gabe ikusten dugu, gidaritzza gabeko Armada galdu. Lehenengo, «ezker abertzalearen Alderdiak», bloke historikoak, oraindik ETArene espejismoarekin jarraitzen duelako, bere egin-kizun espezifikoa murgildu ordez (ETAk, ordea, bere zeregina du, kalean garrasika ibiliz asumitzen ez dena; besteok, aldiz, gure zeregina bestelakoa dugu. ETA inbokatzea ez da ausardia eta ez radikalismoa, utzikeria eta kobardekeria baino, norik bere obligazioak zabartzeko eta disimulatzeko atxakia hutsa denean). Bigarren, bloke historikoaren barruan badira Alderdiak; baina Alderdi bakoitzaren buruzagitza eta autoritateak desprestijiatzen ahaleginak eta bost egiten ari direlako beste Alderditxo guztiak aldamenetik. ETAk (m) EIAren buruzagitza kritikatzan; EIAk HASIrena; HASIk ESEIrena eta segi errondan. Hirugarren, parlamentari batzu baditugu, hola edo hala hautatuak izan; baina parlamentariok ez dutelako lortu, *a posteriori* behintzat, ezker abertzale bloke osoaren ordezkari itzaztea eta finkatzea, gutienez autoritate moral gisa: Bandres, Ortz, Monreal hirukotea, ez dira batasun faktore bat. Alderantziz.

—MASAK: Eta zer dira Alderdi horien masak, EIArenak, HASIrenak...? Gramscik oso zentzu negatiboa eman ohi dio «masa» hitzari. Masa Alderdia kupida gabe kritikatu du: ez bait du onhartzen kontzientzia baino lehenago sortu den masa organizaziorik. Ez du onhartzen artalde organizaziorik.

Zer dira, ordea, EIAren, HASIren masak (PNVrenak edo PSOErenak zer esanik ez!), Alderdiak nora deitu, hara doaze-

² ETAk (p-m), bere aldetik, bere historiako okerrik handiena egin zuen, nire ustez, etapa berrirako, ETAtik aparte eta independente, Alderdi politiko autonomo baten sorrera luzaraziz, duda-muda artean, eta ebita ezin zitekeena ebitatu nahirik alfer-alferrik. Eta, horrela, ETAk berak ilusioa mantendu zion jendeari luzaro, ezer ez zela aldatu, ETArekin denak berdin-berdin jarraitzen zuela, funtsean axaleko ganbio batzu besterik ez zirela gertatzen, bakarrik orain errazago zela edozeinentzat «iraultzaile» agertzea; eta ilusioa handiagotu besterik ez zen egiten, kale demostrazioak handiagotu ahala. Ilusioen menpean, oraindik ez gara iratzartu eta ezin dugu ikasi, denborok denbora berriak direla. Eta ezker berria, beti ere, ETArekin ikus-kizunik duten ekintzetan destakatzen da (amnestia, Apala, Askatasunaren ibilaldia); ahul baino ahulago agertzen da beste aktibitate politiko guztietan (hauteskundeak, autonomia, etab.). Ezker berriak oraindik ez bere espazio politikorik aurkitu ditu, ez metodorik, ez kontzepturik, Alderdien espektuan. EIAren herentzia jaten ari da.

nak baino gehiago? Ez al da dozena erditxo baten gabinetea, EIAk zein jokabide hartu erabakitzen duena; eta Bilboko kontsistorio bat, HASik zer egingo duen esango diguna? Atzo gauera arte, hauteskundeetara zihoana traidore zela esaten zenidan, eta ormak pintatzen pasa dituzu gauak zure eritzi horrekin; gaur goizean, guztiaren gainetik hauteskundeetara joan behar dela esaten didazu... Buruzagitzak ahoa ireki arte, militanteak ez daki zer dakien: bat-batean dena erabaki bait lezake buruzagitzak, hau, hori eta bion kontrarioa.

Alderdi buruzagitzak aspaldi hasi ziren, klandestinitate garaian bezalaxe hasi ere, munizipalarako elkarrekin tratuetan. Baina non egin dira herri eta bailara eta eskualde eta herrialde mailetan eztabaida horik? Non esan dute EIAren edo HASIren, ESEIren edo ESBren herri eta bailara organizazioek: hemen PSOErekin aliatzea komeni zaigu, hemen PNVrekin, hemen KAS bakarrik hobe, hemen MCErekin..., eta non daude resultaduak? Ikusten ditugun datuak besteok bait dira: HASIko bi eta PTEko bat bildu ziren hitzegitera; ESEIko norbait mintzatu omen da EIAko norbaitekin... Non dituzte, tratuak abiatzen dituzten horiek, beren masak nahi duenaren resultaduak, inorekin tratuan hasi aurretik? Masak, berriz ere, «post festum» jakingo du, zer *nahi* duen: goitik behera esaten zaiona...

Masak beti desorientaturik ibiliko dira, kasu bakoitzean orientazioa goitik etorri behar bazaie.

Eta beti goitik etorri beharko zaie, arau trantsitorialari buruz EIAk deritzanak, edo HASik, adibidez, beti eritzi garbi-garbi diferentziatua eta orijinala izan behar baldin bada, ESEI, ESB, PNV, PSOE, PCE, PTE, MCE, OIC, ORT, LKI... guztiengandik. Alternatiba posible guti eta Alderdi asko dago hemen. Nahitaez metafisika zorroztu behar. Hori, ordea, despolitizazioaren iturburu da. «Independienteen» plaga honen kausa, esate baterako. «Independienteak» beti ugari bai ugari izanzen ditugu, Alderdi batetan ala bestetan sartzeko, erabaki global bat aski ez den artean eta EIAren edo ESEIn edo HASIn edo ESBn edo LAIAN sartu, erabakitzeko, mikroskopioaz ibili behar baldin bada.

— ORGANIZAZIOA: klandestinitatean, organizazioa ikusten ez den gauza da eta ikusten dena ekintza batzu dira, «golpeak» batez ere. Nahitaez, klandestinitateak bere organizazio formak inposatzen ditu: ekintzak inposatzen dituenak, han ere.

Beharbada oraindik ere klandestinitatean gaude: ekintza batzu ikusten bait dira, organizaziorik apenas. Legalitatean, ordea,

organizazioa ikusi beharrezko gauza da. Azkenean, Alderdiak jende Alderdiak dira, ez ideienak. Ez dugu ezer egiten, ideia oso onak baditugu, baina jende txarra.

ETArena ez zen izango munduko organizaziorik onena. Ezker politiko abertzalearena, munduko txarra da. Ezker abertzale hau hondatzen ari dena, da, buruz-belarri mila eginkizunetan sarturik dabilela, baina oraindik ez dela akklaratu, bere barruan zein organizazio tankera finkatu. Plataforma orokorren entseñu denek (KAS, Herrikoi) frakasatu egin dute. Orain, Alderdi bakoitzak, bere egitamu orijinala bilatzen ditu. Hein honetan HASI, ESEI, egiten ari diren lana, guztiz positibotzat jo daiteke.

Hor konpon bakoitza bere sukaldean, esanen al dugu liberalki, Alderdi bakoitzak bere egitura nola taxutu nahi duen? Bai eta ez. Errespetatu egin behar Alderdi bakoitzaren autonomia. Baina Alderdi bakoitzaren gaineratik «bloke historikoa», ezker abertzalearen osotasuna, dagoela uste dugunok, ezin esan genezake hor konpon. Eta ezin tolera, Alderdi bakoitzaren prententsio horik, iraultzaile eta radikal bakarra bera dela, beste denak erreformistak edo populistak; edo errealista bakarra bera dela, beste denak oilategi zoro bat. Era horretan ezker abertzalea ez da behin ere ETAK utzi zion ondaretik aurrera zabalduko eta hurrengo hauteskundeetan PSOEek berriz ere lehengo resultatuak aisa ateratzea, bidezko eta zuzen izanen dugu.

Gauza bat da Alderdi bakoitzaren organizazioa. Eta gauza bat Alderdi bakoitzak «bloke historikoa»ren barruan hegemoniko bilakatu nahi izatea. Besterik da, enpeinu horretan, bloke historikoa zarratzea eta bloke bezala inoperante bihurtzea. Izan ere, ezker abertzaleari aski denbora eta aski konfiantza eman zaio orain arte, egestura bat bila dezan, euskal gizartean eta Alderdi panoraman hegemoniko bilakatzeko edo hegemoni bidean jartzeko. Eta hori lehenbailehen egiten ez badu, «guztiak guztien kontra» jarraituz, problema ttipi eta handi askoren soluzioak San Josafateko zelaian baino lehenago ikusi nahi lituzketenek, Alderdi «handietara» jo beharko dute nahitaez. Honez gero, Alderdian askok bilatzen duena ez bait da Unibertsitate bat, «egiazko marxismoa» zer den ikasteko, eguneroko problema ttipien eta handien soluzioak bilatzeko tresneria eta organizazioa baino. Egun on batetan, izan ere, batere ez ditu inporta, Alderdi bat independentista den ala ez, marxismo puruena berak duen ala ez, ETArekin hobeto datorren ala ez; baina bai, zeinek eskura diezazukeen soluziotxo hau eta hori: bai, zergak, Bizitoki Legea, Unibertsitat Barrutia, arau

trantsitoriala, gauza ttipiak, iraultzarik ez, independentziarik ez, baina bizitza triste hau eramangarriago bihurtzen dutenak.

Organizazioaren problema, ekintzaren arazoaz lotu-loturik dago eta, beraz, aisa eta eroso desprestijatu dugun «posibilismoaren» problemaz lotu-loturik. Gizona ez da Jaungoikoaren hitzetatik bakarrik bizi, problema guztien azken soluzioaren itxaropenetatik, baina eguneroko ogitatik ere. Masak, eguneroko problemak bizi dituenak, eta zuk eta nik, eguneroko ogiaren okinagana joko dizugu, balizko ogia baino hobeto jaten da eta.

Alderdiengandik espero duguna ez da, «zentralismo demokratikoa» zer den defini diezagutela. Horretarako, hemen sobera dugu, lehendik ere, profesore, soziologo, filosofo eta teologorik, edozein Alderdi aina autoritatez hori esplikatzeko. Alderdiengandik, defini daitezela eguneroko problemei buruz, espero dugu, eta ez problema histori-filosofi-soziologiko eztabaidatuei buruz. Defini daitezela Estatuaren kontzeptu propio eta orijinal bezala eta oraintxe egunero Alderdian egin genezakeena bezala, harantz iristeko: hauzoan, herrian, lantegian, eskolan, Erriberran, Donostian eta ez, Alderdiak demostrazioaren batetara deitzen digunean bakarrik; azkenean berdin-berdin bait da, Alderdiak hauteskundeetara deitzen duenean bakarrik ala demostrazioetara deitzen duenean bakarrik, politikoki aktibo bilakatzea.

Ezker abertzaleak, dirudinez, asko daki, azken finean zer egin behar den; baina oso guti, bihar zer egin behar dugun. Eta, orduan, beste Alderdiekin lehian dabil, besteek zer proposa, berak segituan beste zerbait, «besteek ezin proposa ditza-keten proposamenez betea», Saizarbitoriak esan zuenez.

Hori, oker ez banago, ezker abertzalearen autokontzientzia bereziak sortzen du. Posibilistak, eta erreformistak, eta aginpi-dea eskuratu besterik nahi ez omen dutenak, etab., aisa mespretxatzera daraman autokontzientziak. Horiek —esango liguke Gramscik— grina eta pasio bat bezala kontzebitzen dute politika; oraindik ez dute konprenitu, politika, pasio baten ondoren, arte bat eta zientzia bat dela. Organizazioa ezin lor daiteke pasioaren organizazio bezala; organizaziorik ez dago azken helburuei buruz eta erreferentziaz (horrela Elizak organizatzen dira). Hemen, ordea, independentziaz eta diferentzia guztiak xahutu dituen gizarteaz eta azkeneko azkenaren azkenaz ari gara beti, eta edozein problema konkretu planteatu behar duenean, Alderdiek ez dute jenderik: Irakasgo Legearena, esate baterako, kurtso berria hastera doanean.

1950 eta 60. urteetan, konprenitzen da, ezkerak bere ahale-

gin guztiak borroka ideologikoan enplegatzea. Hautsi beharra zegoen, bizitza guztiari, eskolatik lantokiraino eta bizitza pribaturaino, koherentzia hermetiko bat ematen zion ideologia kontserbakoaia. Baina orain, ezker abertzalea ezertan nagusi bada, eremu ideologikoan da. Ezker abertzalearen presio ideologikoa, PNVri sozialista deklararazteraino eta PSOeri abertzale kara harrerazteraino ailegatu da. Eta, hala ere, nagusitasun hori aurrera jotzeko eta Alderdi bortizki organizatua bihurtzeko aprobetxatu ordez, batzuk, oraindik, indar moral eta intelektual hutsetan lotu nahi lukete ezker abertzalea: Italia faxistan Gramscik predikatzen zuen Alderdi «gizarte erreformatzaile moral eta intelektual» hartan.

Ortziren testu honek, adibidez, Alderdi kontzepzio arras eta gutzitiz gramscianoa adierazten du (Gramsciren edozein testuren itzulpena izan liteke):

El partido del proletariado... es una organización intelectual, el intelectual colectivo de la clase obrera. Sus funciones son las de la reforma intelectual y moral de las masas obreras para que se aparten de la influencia ideológica de las clases dominantes, la formación de una voluntad colectiva que unifica a aquellas en su lucha contra la burguesía, y la de asegurar la hegemonía del proletariado sobre las restantes capas populares...

Los organismos obreros de masas, por el contrario, no son organizaciones intelectuales, son los instrumentos directos a través de los cuales participa el proletariado en la lucha de clases (sindikatuak batez ere) (ik. ORTZI, **Los Vascos**, 1976, 223).

Gramscirenak balio, beti balio du —ezin uka borroka ideologikoaren inportantzia—, baina batez ere orduko situazio konkretuan balio zuen. Nire ustez, gurean ez hainbeste. Gramscik, situazioa Italian egon nola zegoen 1920 eta 30 urteetan adierazi digu batez ere, eta situazio hartan Alderdi Komunistaren zereginaren zein izan zitekeen, agertu nahi du. Italia, ikaragarritzko diferentziak dituen lurraldea, Iparraldeko industri zentruetatik Hegoalde atze-atze-atzeraturaino, horrek esan nahi dituen mentalitate difentziekin. Baina, Italia, bere tradizio intelektual kritikoarekin, berebat. Masa organizazio langileak, sozial-demokraziak domeinaturik. Mugimendu faxista erreka betean ari zen masak eramaten. Alderdi Komunistaren aparatua apurturik, gartzelan edo herbestean koadrorik hoberenak. Informazio guztia zentsurak moztuta: debekaturik —Gramscik absurduaren kolmoa bezala azpimarkatuko duena— *Manifestu Komunista* bera... Al-

derdi Komunista hura, nahita ere, alferrik samar enpeinatuko zen orduan erreforma moral eta intelektualean baino askoz gehiago.

Gainera, Gramscirentzat, kontua ez zen masa Alderdia *erakitzea*, muntatzea (egin ere, nekez egin zitekeen halakorik faxismoaren azpian). Alderdia bazegoen, egon. Alderdiak, bere aparatuarekin, situazio hartan zertan enplegatu behar zuen, hori zen kontua.

Hau ez da gure situazioa. Justu faxismotik eta Alderdien eta masa organizazioen debekutik irteten ari gara gu. Masa organizazioak oraintxe ari dira sortzen. Ezker abertzaleak trena betiko gal dezake. Ezker abertzaleak hain zuzen abantaila ideologikoa daramakie beste Alderdiei: hogeitau urte honetan gehien egin dena horixe da, borroka ideologikoa, eta gehien egin duena ezker abertzalea da. (Gogora dezagun, Gramscik «terrorismoari» ere funtzio hezitzaile bat ematen diola: «gertakari kontsumatuen» propaganda modura edo). Masak, Gramscik inoiz amets egin ez zezakeen neurrian, daude kontzientziaturik. Hemen orain hasi behar dena, organizazio antolaketa da, aparatua. «Kontzientzia kolektiboa» lortuta dago: Alderdiak berak dira txikitzen ari direna, masak desengainatuz eta penatuz. Masek mila aldiz eskatu dute *batasuna*. Masak ez baino Alderdiak dira, alderdikeriak, batasuna eta *Alderdia* lortzeko eragozpena. Hemen, Alderdiak (edo Alderdiek) masa hezi ez baino masak beharko luke Alderdiak hezi, nik uste, «borondate kolektibo» hura organizazio kolektiboa bihur dadin. Kontzientziaren aldean organizazioa atzera-atzeraturik dabilkigu.

Berrogei urte «dedokrazia» eta gobernaera kontrolaezin luzetan, eginkizun publikoen gestioa kasta berezi baten pribilejio izan da. Masei sinestarazi zaie, gestio publikoa ikaragarri gauza konplikatua dela eta tekniko batzuk bakarrik dakitela hori eramaten eta horien gestioan fidatu behar duela; zer ari diren ikusten ez badu ere. Orain, masen konfiantza irabazteko, gestio publikoa eramateko «teknikoki kapaz» dela erakutsi beharra dago. Ezker abertzaleak, *gobernatzeko gauza dela* erakutsi behar du; ez, oposizio egiteko bakarrik. Horretarako, koadroak, jende prestatua, organizazioa, behar du. Bestela, jendeak, haren oposizio lana estimatuko du, baina ez du aginpidera eraman nahiko: ez duelako haren gobernatzeko gaitasunean konfiantzarik. Eta hori ez da jendearen mentalitate distortsio hutsa: ezker abertzalea, dagoen dagoenean, bere buruaren desgobernu horrekin, ezer gobernatzeko inkapaz da. EIAk, HASIk, botere bokaziorik baina

gehiago, anti-botere bokazioa bakarrik erakutsi dute orain arte. Ez ditugu pertsonalki kritikatu nahi, berak ez bait dira, hartu duten mandatuaren kargudun baizik eta bai bait dakigu zein situazioan dauden Gorteetan, baina Bandres eta Ortziren gestioa ere, esate baterako, ez da, jendeari ezkerren gobernu kapazitatean konfiantza sortzeko modukoa. Ezker abertzalea oraindik ez da Estatu kontzeptu baten inkarnaziorik, oposizioarena baino. Ukazioaren fasean dabil oraindik.

«Alderdia» eta «batasuna» esaten dugunean, ez dugu organizazio hertsia monolitikorik adierazi nahi. Garmsciren Alderdi kontzeptuari ondo zetorkion KASen ideia: Alderdian «Alderdiak» edo frakzioak daude, ikuspide eta temperamentu ezberdinak, baina diziplina dago. Guk, KASekin ala KAS gabe, KASen ideiak espresatzen zuen asmoarekin segitzen dugu, ezker abertzaleari ez diogulako beste irtenbiderik inondik ikusten.

Alderdiaren egiteko hezitzaile eta ideologikoa azpimarkatu du Gramscik. Baina Gramscik «marjinaziotik» ari diren hezitzaileak beti Alderdietatik aparte situatu ditu. Anarkistak, adibidez. Alderdi handien artetik marjinaturik, independente, Alderdiak berak heitzeko funtzioa dute (edozein Alderdiren barruan suma daitekeen «anarkismo inherente»az ere mintzo da Gramsci, izpiritutritikoak berezkoa bait du holako zerbait). Baina marjinaziotik ari diren hezitzaileon lana, oso positiboa, ez da Alderdien lan berdina eta ez du hura suplantatzen ere. Hezkuntzarena, Alderdiaren funtzio bat da, ez bakarria. Gainera, Alderdiak, Alderdiaren modu eta medio propioz egin behar du hezkuntza lana: ez, esate baterako, prentsak bezala, literatoek bezala, edo artistek eta filosofoek bezala. Alderdiak hegemonia bilatu behar du: beraz, batasuna, organizazio tresneria. Ez marjinazioa.

Euskal ezkerria, bere momentu historikoa galtzen ari da, eta, bere meritu handi gabe, eskura eman zaion ETAREN ondarea saltzen ari da, MCEri eta abar.

Honez gero hau ez da autoritate edo konfiantza krisi koinatural bat bakarrik. Egunak badoaz, eta batzuk aspaldi iragarri zuten ezker abertzalearen inkapazitatea, indar politiko autonomo eta organizaturik bilakatzeko, sekula indar hegemonikorik bihurtu ahal izateko, egiazkoa agertzen ari da.

J. A.

Euskal liburugintzaz gogoeta inprobisatuak

Bidean galdu diren asmoak eta lanak eta zein soluzio eman problema honi

Urteotan, ez ordinazio eta ez koordinazio, bakoitzak ahal zuena egin du. Batzuk piska bat gehiago, nahi zuten baino. Piska bat gutiago gehienek.

Nahi zutena ezinda gelditu diren lehenengoak argitaratzaileak dira, nire ustez.

LUR: aginduta zeukan liburu zenbait argitara gabe joan zen. Urretavizcayaren *Artea eta gizartea historian*, esate baterako. Urteak dira GERO Lafitteren *Euskaldunen berri literatura* edo Goihenetcheren *Ipar Euskal Herriaren Historia* agintzen ari zaigula. ELKAREK orain eman du Davanten aspaldi agindutakoa, atzerapen tamalgarriz; Apalategiren *Herria: politika eta kultura*, ikusteko gaude oraindik.

Argitaratzaileen problema hau, idazleen problema bihurtzen da berehalaxe. Inork ez du gustora idazten, gero ezin argitaratzeko. Urteotan sarri entzun edo irakurri izan ditugu: Aresti Dekameron prestatzen ari dela; edo ez dakit Don Kixoteren bat, edo Entziklopedia... Ez dira agertu. Levi Strauss-en Basa Pentsaera itzulia omen dago euskarara, Apalategik uste dut. Marta Harnecker ere itzuli bide dute. Garatek ba omen ditu, ez dakit zenbat nobela. Eta abar.

Beharbada soluzio bakarra dago: Argitaletxe haundi bakarra sortzea, zeruak ala ifernuak finantziatua, zientzi liburugintza guztia zentralitzen duena, kreaio literatura eta kreaio literatur itzulpenak utziaz. Argitaratzaile honek «literatura zahar» guzti-guztiaren berrargitalpen serioa bat ere bere gain hartu beharko luke, kolekzio moduan. Eta, batez ere, propio literatura ez den guztia, testugintza izan ezik. Bestela, komertzial ez den libururik atera behar den bakoitzean, «sakrifizio haundiak» egin beharrean dabilzkigu Argitaratzaile guztiak, ia itoan.

Gu, izan ere, sozialismoaren kontrario eta kapitalismoaren aldeko gara, norgehiagoka eta konkurrentzia positiboak direnean; eta merkatu kapitalistaren kontrario eta sozialismoaren aldeko, norgehiagokak eta konkurrentziak sentidurik ez dutenean, eta negatiboak direnean... kulturagintzan batik-bat.

Rikardoren ohorez: dibulgazio eskola

Dibulgazio lan izanez hasi zena, kaos bat bihurturik dago.

1969an publikatu zen Rikardo Arregiren *Politikaren atarian*, «Hastapenak» saileko Luren lehen liburua. Gero, «Hastapenon» asmoari jarraiki, *Mendebaleko ekonomiaren historia*, *Literatura eta kritika*, *Soziologiaren hastapenak*, *Linguistika orain arte*, etc. etc. heldu ziren.

Dibulgazio liburuaren publikatzea politika berria zen euskal liburugintzan, asmoa ez bazen ere berria.

Rikardoren asmo eta helburu ez ziren dibulgazio liburuak bakarrik: kreazio literatura eta itzulpena ere buruan zerabiltzan. Baina arrakastarik haundiena dibulgazio asmoak izango du.

Hurrengo urteetan, elkarri desafioka bezala, editorial denak dibulgazio liburugintzan enpeinaturik dabiltzala ematen du. Gero, animazioa motel-du da; eta gero, nahasketa.

Dibulgazio bezala hasi zena, kaos ikaragarrian amaitu da. Bitartean, izan ere, liburugintzan egin dugun beste burugabekeria guztien gainetik, dibulgazio kontzeptu garbi gabe ere gelditu garela, aitortu behar.

Dibulgazio esatea ez dugu aski honez gero. Mailak, formak, eta abar, zehazkiago erabaki beharko ditugu berriro: dibulgazioari berriro planegituko, haseran zen bezala, berriz ere dibulgazioaren kontzeptu garbiz eta justuz jokatzeke. Hastapenetara itzuli behar. Rikardogana.

Jesuita mafiosoak eta jesuita baten isiltasunean galdu zen liburua

Lanaren antropologia zeritzan liburuari, eta Roman Garate genuen Autorea, Deustun eta EUGTn irakasle. Lan astuna. Bestela okerkeria eta sorginkeria guztietan maisu omen diren jesuita horiek ere ez bait dute oraindik asmatu konjuroa, lan zailak erraz egiteko eta problema zailak erraz konpontzeko. Baina, lan nekezak nekez behintzat konpontzen dituen ere ez da guti. Lan haundia zen, bikaina, harrigarria, asko irakatsi diguna, Roman Garaterena. Lanak eman dizkigun lana. Esker onik diogun lana.

Roman Garaterena lan liburu bat zen. Irakurtzeko baino gehiago, ikeritzekoa. Halako libururik euskaraz publikatzea pozgarri zen eta, batez ere, esperantza bat zen.

Azkenean «bere profesioz» jakitun bat, euskal liburugintzaz arduratzen zitzaigun! Interes partikular gehiegi gabe, nik uste: euskarak ez dirurik eta ez ospirik ematen du.

Azkenean argitaletxe haundi bat ere bagenuen gertu, interes partikularrik gabe zeharo izan ez arren, bai bere interes partikularren interpretazio aski liberal eta eskuzabala egiten zuena, holako libururik euskaraz argitaratzeko.

Autorea, ordea, jesuita da eta argitaldaria —oi dolore!— *Ediciones Mensajero* zen...

Akordatzen ote dira oraindik, *Gero*-ri jesuitek laguntzen omen ziotela eta, beren soinekoak eta lumak eta eztarriak indignaturik urratzen zituzten garrasi-heroi heroiko haik? Segituan sospetxatu zuten ikaragarritzko mafia zetorkigula eta euskararen ikaragarritzko arriskuak laster igarri ziztuzten. Baina oso jende inteligentea zen eta segituan antzeman zien mafieren intentzio txarrei. Eskerrak. Euskal kulturgintzan ez zen «infiltrazio» gaiztorik gertatu.

Egunak ibili ahala, jesuitak ere beste edozein bezain inteligente bihurtu dira, gure heroiak bezain inteligente, esate baterako, eta utzi egin dute euskararen enpresetan eskua —edo hanka— sartzea.

Begira *Gero*-k, oraindik *Mensajero* letra haik zeramatzan artean, zein liburu ateratzen zituen eta orain ateratzen dituenak, letra horiekin bai, baina «gutziz autonomo», esaten dutenez, eta jesuita gaiztoen eskuarterik gabe.

Lanaren antropologia euskaraz argitaratzea ez zen posible izango, atzetik holakoxe argitaratzaile makiabeliko bat egon ez balitz.

Orain, argitaratzaile gaiztoa, isil-isilik dago, zeharo derrotaturik dago eta ez du euskal kultura mehatxatzen. Euskarak ikaragarrizko irabazia atera dizu. Heroi azkar eta bortitz horiei, gure euskara gaisoak ezin sekula behar bezala ordainduko die, hain garrasi ausartez mafiaren hatzamarretatik ordu onean salbatu izana.

Zientifikamente frogatua bait dago, jesuitek lagun diezaioten egunean, galdu dela euskara sekula santa betirako, eta hurrengo egunean Euzkadi, Euskal Herria eta denok amilduko garela, zaldi eta zaldun. Jainkoari eskerrak, hala ere, Euskal Herriak oraindik baditu heroiak, ausartak eta argiak, jesuiten edozein malfiziori eta laguntza estratagema gaiztori derrefente antzeman eta alarmatzen direnak eta, beren bizitza preziosoa arriskatuaz, eta eztarriko zainak, haien edozein laguntzatatik euskara salbatuko digutenak.

Erroma ere ez al zuten salbatu, gauerdian kakarazka hasi ziren antzerek? Antzar kakara bezalakorik ez dago, arriskuan dauden herriak salbatzeko.

Beraz, beren negoziante sen gaiztoz jesuitek atera zuten *Lanaren antropologia* hura, bigarren partea gabe gelditu da. Gure heroi heroikoei eskerrak, beren ikaragarrizko negozioa egin gabe gelditu dira jesuitak euskararen kontura. Gure heroi heroikoak, bistan da, ez dira hain liburu komertzialak argitaratzeraino makurtzen. Eta nabar-nabarmena da euskal liburu zientifikoaren produkzioak harrez gero ezagutu duen gora. Negozio egitearren bakar-bakarrik publikatzen ziren Roman Garaterena bezalako libururik ez da orain publikatzen. Biba euskara!

Sariketa bat: zein liburu den asmatzen duenari, zerueta loria eta lurrean kontsolazio piska bat emanen zaio sari

Duela urte asko, Bagdad-ko palazio erreztatu eta aintzira azulejodun xuri eta urdinez apainduriko baten goen-goeneko ganbaran, Abdelamir, Abdel Kamelen semea, zerrailaz ate denak hertsu, kandelak biztu, zelebroan eta zerebeloan tabula rasa egin, esibizionistei, eskuin ala ezkerrei, zien higuina mortifikatu, izanak eta ez izanak ahaztu, ongi segurtatu aurreritzi denak banan-banan bihotzetik atera eta baztertu zituela, kontzientzia garbitu, inoizko oroitzapen atsekabe denak bere barrenean xahutu, guztiz purifikatu, tolerantzi ejertzizioak egin, izpiritualak eta korporalak, munduko borondate hoberenaz armatu, eta liburua irakurtzen hasi zen, ilargia zerueta zegoela, artista batek artista baten gainean egindakoa. Liburu bat, bi liburukitan.

«Dios, ez da desgrazia makala adiskide lerro bat!», pentsatu zuen, ez dakit zenbat orri irakurririk zeramanean, artista batek artista baten gainean eginda.

Irakurleak irakurtzen jarraitu zuen, kandelak mahain gainean biztuta, aurreritzi eta gogorazio eta oroitzapen txar denak berbizten hasi zitzaizkiola eta ezin zuela ezer egin horren kontra, sentitzen zuen artean apenaturik, alfer-alferrik bait zen barrenaren kontra burrutaktea.

Ikasi zuen gau hartan gauza miragarriak franko irakurle irakurlariak! Nola artista bat izan zen, euskaldun poeta bat, sekula izan den poeta hobena, denek txalotzen eta goratzen eta saritzen eta kopiatzen eta plajiatzen eta kantatzen bait zuten; baina, oi mirari, mirariaren, misterio saindu baten bidez, denek gorrotatzen zuten eta inork ezer publikatzen ez zion eta aldizkari guztiek atek hersten zizkioten eta inork ez zuen konprenitzen, artista baten gainean idatzi duen artistak baino.

Eta zeruetako ilargiaren azpian, kandelak ia gastatzen ari zirela, bere aurreritzi eta gogorazio eta oroitzapen txar denak berriro biz-bizturik zeuzkala, pentsatu zuen:

«Dios, adiskide lerro bat ez da desgrazia makala!»

Abdelamir, Abdel Kamelen semea, egonarri haundiko gizona da, irakurteza bada kontu. Ez zen desanimatu. Alah boteretsuari laguntza eta indarra belauniko eskatu ondoren, gau luze osoa irakur eta irakur eman du, ehun orri, berrehun orri, larehun orri, indize eta guzti (aurkibiderik ez zuen liburak).

Abdelamir impresionaturik dago mundu honetako injustiziaz. Abdelamir tistaturik dago herri ttipietako jende ttipikeriaz artista haundiekin. Abdelamir, kandela itzaliz, belauniko, zeruetako ilargiaren azpian, Alah boteretsuari otoitzean hasi da, esker otoitz emozionatu bat, artista haundiak, azkenean, konprenitu duen eta herri ttipiko jende ttipi guztiei artistaren haundia konprenieraziko dien artista haundia kausitu duelako:

Alah, jaun ahaltsu, boteratsu Alah
begira nazazu adiskidetatik,
etsaieratik neu begiratuko naiz.

Eta ilargia itzali zuen.

Ez dakizula zein liburu den? (Soluzioa hurrengoan).

Argialetxeak eta Unibertsitatea

Denok Euskal Unibertsitatea darabilgu ahotan. Baina Unibertsitatea ez da etxeren bat eta irakas-ikasle mordo bat eta kurtso batzu soil, ezta? Holako esaundera zurrak esaten bait dituzte orain zurrak. Ba, liburu produkzio unibertsitario bat ere izan behar luke unibertsitateak. Eta hor ikusten dugu, gure unibertsitate nahia, «egin bedi argia!», agindu zuen ahalguztidunaren moduko dela nonbait. «Egin bedi unibertsitatea!». Eta argia ez da bizten. Unibertsitatea ez da sonbrerotik prestidijitatzen. Unibertsitatea ez da Madrilgo baimen miragarri baten lanpara magikotik ere sortzen.

Euskal editorialak ez dira unibertsitaterik egiten ari. Duela urte batzu agertzen zituzten asmoak eta suharra ikusi, begiratu zer ari diren gaur, eta guztiz «errealista» bihurtu direla sumatzen duzu. Merkatu legeen me-

kanismoek atrapatu dituzte. Saltzen dena produzitzen dizute. Errazen saltzen dena. Eta Unibertsitatea sorrarazi behar zuen plangintza neketsurik, ausartik, kanpaina ongi eramanek lagundurik, ez da ikusten honez gero argitaletxeen liburugintza politikan.

Esate baterako, klasikoak argitaratzen hasi ziren: Axular, Leizarraga, Tartas, etabar. Denok dakigu, kostatzen den lanaren aldean, ez dela oso komertziala eginkizun hori. Horrexegatik utzi da. Orain ez da klasikorik ageri argitaletxeen laster agertzeko liburu zerrendetan. Komertziala ez da. Baina Unibertsitatea prestatzea horixe litzateke. Argitaletxe bakoitzak urtean klasiko bat argitaratzea, esate baterako. Eta, gero, beharbada, klasikoon zabalkundea eta salmenta amankomunean jartzea, besterik ezin bada.

Ez ditugu Argitaletxeok kritikatzeko. Konstatatu egin nahi dugu baka-rrik. Mundu honetan ezer baldin bada, publikoaren gustuak biziarazten edo hilarazten duena, argitaletxeak dira. Ezer kritikatzekotan, publikoa kritikatu beharko genuke, hortakoz. Eta, badakizu, publikoa ez da kritikatzeko.

Irakurleak merke-merke nahi luke liburua. Erdi prezioan. Ahal balitz, liburuak dohan egotea nahiko luke irakurleak. Baina kultura da, hain zuzen, gutien sozializatu duguna oraingoz.

Argitaletxeek ez dute lan erraza. Izan ere, gauza bat da liburua argitaratzea. Eta oso besterik, liburua saltzea.

Idazleak, liburua irakur dadila behar du. Argitaratzaileak, apal-apalago, irakurtzen ez bada ere, sal dadila; hots, eros eta paga dadila. Bestela zorrak egiten bait dira. Eta, liburu baten argitaratzeaz, zorrez bete den argitaletxeak, bere lanak izanen ditu hurrengo liburua argitaratzeko. Dakigunik, behintzat, kapital haundi-haundia darabilen euskal argitaletxerik ez bait dago, egon ere.

Euskal kulturgintzan dagoen eginkizunik mixerableena eta esker txarrekoena argitaratzaile izatea da. Aukerarik ez dago harentzat besterik: edo negoziara jo, eta orduan negoziante bat bihurtu dela esango diogu; edo isil-isilik lanean gogor jarraitu, eta orduan akordatu ere ez gara egiten harekin.

Beraz, gehienek negoziantea jo dute. *Lur*-ek lan zail eta baliosa egin zuen. Euskaldunok lan balios eta zaili diegun esker ona eta estimazioa ongi frogatuta gelditu ziren haren frakasoarekin. *Kriselu*-k politika editorial erraztenari heldu dio. *Gero* berdin ari da. Geroz eta berdinago. *Jakin*-ek *Ekaitza* publikatu zuen eta poesiak argitaratzeko ere prest da bilkigula orain ematen du: beharbada *Jakin*-en editorial kontzepzioan ondo ajustatzen ez diren arren, errealtatean ederki ajustatzen direlako; argitaletxeak hemen dituzten errealtateetan.

Gero, adibidez. Haseran egin zuen lan ausartena eta zailena. Produkzio politika batetan ausartena. 71n, *Marxen marxismoa*, *Euskal Herriaren Historia*, *Euskal Herriko ekonomiaz*, *Langileria historian zehar*, *Lehen Gizarteak*, eman zituen argitara. 72an, *Marx eta Nazioa*, *Hizkuntza eta pentsakeria*, *Europako ezker berriak*, *Mitxelena Idazlan Hautatuak* eta *Zenbait Hitzaldi*, *Nobela Berria Hego Amerikan*, *Industria berri baten azterketa*, *Pio Baroja*... Lan mardulak. Eta zer argitara du 76an?

Ez da politika agresibo bizi hura jarraitu. Aitzitik, amore eman da. Edo etsi egin da.

Joxe A. Otaegi

Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz... eta geroaz

Pedro M. Legarreta, "Albaro"

0. Gaiaren aurkezpena

Alfabetatze Euskalduntze Mugimendua¹ aski ezaguna da Euskal Herrian eta ez gatoz orain haren historia egitera. Hontaz —historiaz halegia— bi gauza behar dira esan: Rikardo Arregiren aipurik gabe ezin daitekeela eman, eta irakurri nahi duenak ikus dezala *Anaitasuna* 311. alean.

Bestelako gauza da, gaur eskutan duguna, Alfabetatze Euskalduntzearen oraina aztertu eta gerokoaz zerbait esan. Horrela, bada, hemen aipatzen diren datuen nondik norakoaz eta barioaz bi hitz esan ondoren, jarraituko diogu lanari:

Datuok 1976-77 kurtsokoak dituzu. *Siadeco* taldekoek istudiatuak eta Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak jasoak. Beraz, elkarren arteko lana. Bestalde, nola ezberdintasunik egon den fitxak jasotzerakoan eta modeloetan herrialde batzutatik bestetara, balio berdinak hartu dira kontutan². Azkenez, datuak biltzeko eragozpenen gaintetik, fidagarri gertatzen direla esan behar, nahiz eta beti exhaustiboak ez izan.

Pasa gaitezten, bada, lanaren mamira:

1. Alfabetatze Euskal Mugimenduaren analisi orokorra

1.1. Euskal Herri osoan hedatua

Lehendabizi begien aurrean duguna, mugimendu hau Euskal Herri osoan zabaldurik egotea da. Sopuertatik Maulera eta

Tuteratik Pasaiara. Zenbakiak borobilduz 1976-77ko kurtsoan 30.000 bat ikasle izan da Euskal Herrian, Hego eta Ipar, euskara ikasten, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundearen banean.

1.2. Herrialde bakoitzeko hedadura

Koadro honen bidez, Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduan dabiltzan ikasleak zenbat diren eta nola banatuak dauden ikus daiteke.

ARABA		BIZKAIA	
Tokia	Ikas.	Tokia	Ikas.
Dulantzi	40	Bilbo	5.500
Ehari	25	Ezk. ald.	2.100
Araia	25	Urib. k.	2.000
Oion	24	Hego Ur.	954
Kanpezu	29	Durang.	516
Agurain	114	Arratia	200
Aiara	200	Txoriherr.	196
Legutio	20	Busturia.	366
Murgia	22	Uribe But.	82
Gasteiz	22	Lea-Artib.	233
	<u>1.547</u>		<u>12.144</u>

GIPUZKOA		NAFARROA	
Tokia	Ikas.	Tokia	Ikas.
Donostiald.	2.249	Iruinea	2.000
Errend.ald.	2.430	Sakana	578
Irun-Hond.	743	Baztan	261
Lasa. Usur.	559	Leitza	87
Goiherri	900	Ultzama	47
Leintz	1.090	Tutera	70
Deva (Eib.)	867	Olite	40
Urola	450	Tafalla	115
Kostal.	523	Estella	250
	<u>11.454</u>		<u>3.338</u>

Ditugun datuen arauera, bi gauza dakusagu argi. Bata, eremuz Euskal Herri osoan zabaldurik dagoen fenomeno baten aurrean gaudela, ez da Euskal Herriko eskualderik falta; eta bestea, hiritarra dela. Geroko euskaldunek ez dute segur asko artzantzaz gauza handirik jakingo, baina bai zementoarean koloreaz.

Denetara, eta Ipar aldeko beste 200 bat gehituz, 28.793 ikasleren berri du Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak. Hala ere, datuak jaso eta geroko esperientziak dioskunez, pen-

tsatzen dugu 40.000taraino iritsiko diratekeela euskara ikasten dabiltzanak.

1.3. Fenomenoaren garrantzia eta balorazioa

Euskal Herriari beste aurpegi bat eman diezaiokeen mugimendu baten aurrean gaude. Sarri askotan mila txotxolokeriari garrantzi gehiago ematen bazaio ere, beldurrik gabe esan dezakegu, hau ez dela txantxetako gauza. Indar handiak, nahiz ez beti ondo koordinatuak, biltzen dira «Euskal Herria euskalduna ala ezer ez» sinesten dutenen nahia, geroago eta zabalago, sakonago, posibleago egiten.

Ahalegin hauk bi bidetan nabaritzen dira: alde batetik, hizkuntza normaldu bat —Euskaltzaindiaren arauera— jende pila bati irakastean, eta bestetik, euskara bera giza erlazio eta kultur mailetan normaltzean.

2. Ikaslegoaren ezaugarriak

2.1. Ikaslegoa sexuz (%)

	Araba	Bizkaia	Nafarroa	Gipuzkoa	Denetara
Gizonak	54,2	38,8	53,6	46,4	40,7
Emakumeak	45,9	61,2	46,2	53,6	59,3

Ikusten denez, eta Araba-Nafarroako muestra ez dela guztiz errepresentagarria kontutan edukiz, emakumeen nagusigoa argi dago.

Poztekoa dugu, halaber, emakumeek euskara galtze prozesuan atzera arinago egiten badute, gertatu den bezala, bihurtzerakoan ere aurretik jarri direla eta gogotik ari direla euskara ikasten ohartzea.

2.2. Ikaslegoa adinez (%)

Adina	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Denetara
— 15	2,7	10,7	5,0	14,6	9,9
15-19	29,0	24,0	30,1	31,8	25,1
20-24	28,3	27,2	23,3	31,7	27,0
25-29	19,0	16,0	18,1	11,6	16,2
30-34	8,3	9,4	8,7	4,3	9,1
35-39	1,2	4,2	3,9	1,3	3,9
+ 40	3,0	6,6	6,7	3,0	6,3
Zehaztugab.	8,5	1,9	4,2	1,7	2,5
	100	100	100	100	100

Ezin uka, euskararen geroa gazteek dutela eskutan. Hogei-tamar urtetik beherakoak 78,2 % dira eta honek efekto multiplikatzaile bat izanen du segur aski, zeren gazte hauek ez baitute euskara berentzat bakarrik ikasiko. Edukiko dituzten haurrek ere euskara eginen dute.

Baina badira beste batzu, ia 25%, adintsuagoak, kontzientzia nazionala adin guztietara heltzen dela frogatzeko.

Hala ere, gazteak ditugu hemen protagonista, herrialde guztiotan, Euskal Herriarekiko beste hainbat gauzatan bezala.

2.3. Ikaslegoaren jatorria

Lehenbizi, orokorki hartuko ditugu datuak Hego Euskal Herriko lau herrialdeez aritzeko, eta bigarrenaz Gasteizko kasua hobeki aztertuko dugu, zeren hango fitxak gurasoen jatorriaz galdetzen baitzuten.

Datuak hauk dira:

IKASLEGOAREN JAIOTERRIA

Bizi tokia	Euskal Herria	Euskal Herriatik kanpo
Araba	87,1	12,9
Bizkaia	90,2	9,8
Gipuzkoa	85,9	14,1
Nafarroa	94,1	5,9
	89,8	10,2

Garbi dago bertan jaiotakoen nagusigoa; baina kontutan hartu behar dugu, oso pozgarri gertatzen dela konpoan jaiotako 10 % hori, batez ere euskarak eduki duen —eta oraindik duen— antipropagandaren gainetik euskararen alde pauso eman dutelako. Alde horretatik, integrazio maila interesgarri batetara heldu garela pentsa dezakegu, Euskal Herria euskalduna egiteko bide posible bakarra urratzen ari garela.

Areago, Araban jaso diren datuek bide hau segurtatzen digute. Ikus bestela:

GURASOEN JAIOTERRIA (%)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	E.H.	E.H.ka.
Aita	80,0	6,7	4,4	8,9	69,6	30,4
Ama	75,0	10,3	8,0	6,7	71,1	26,9

2.4. Ikaslegoaren giza profesional maila

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Eusk. Herr.
EZAKTIBOAK	33,3	49,1	34,4	38,7	46,8
AKTIBOAK	66,7	50,9	65,6	61,3	53,2
	100	100	100	100	100
AKTIBOAK ³					
Goi mailak	7,3	11,4	2,4	1,4	10,0
Erdi mailak	57,7	61,8	52,2	30,2	59,9
Langile maila	24,9	22,0	40,4	56,1	24,8
Beste maila edo zehaztugabea	10,1	4,8	5,0	12,3	5,3
	100	100	100	100	100
EZAKTIBOAK					
Ikasleak	98,5	79,5	70,2	71,7	79,6
Etxekoandreak	1,5	20,5	29,8	28,3	20,4
	100	100	100	100	100

Koadro honek ere argibide interesgarriak ematen dizkigu: alde batetik, Euskal Herri mailan euskara ikasten ari diren erdiak ezaktiboak dira, eta hauen artean 5etik 4 ikasleak eta bat etxekoandrea. Bestetik, erdi mailako koadroak eta enpleguak direla ikaslego ugariena ematen duten kategoriak aktiboen artean. Hala ere, 4etatik bat langilea da. Beraz, goi mailetan 10 % bakarrik ari dela euskara ikasten ikusiz, norbaiti entzungo diogu oraindik euskara burgesa dela.

3. Ondorioak eta beste

Asko luzatzerik ez dugunez gero pasa gaitzen zenbait ondorio ateratzera.

Hasteko esan dezagun, euskara ikasteak baduela konnotapen politiko garbirik; jendea kontzientzia nazionalak eraginda jartzen da euskara ikasten. Argi dago hau fitxetako hainbat erantzunetan. Hau batzumentzat iraunkorra izango da, baina beste batzuk ez dute hain garbi ikusten kontu hau. Irlandan gertatuaren mamuak ez digu lo egiteko eta triumfalista izateko aukerarik ematen. Eta nola ez izan honen beldurrik, euskal politiko analfabetoak ari direnean euskal kulturari irtenbideak bilatzen? Zein irtenbide aurkituko dute euskara konplikatua dela esaten dutenek?

Ez, jaunak: euskara ez da beste hizkuntzak baino zailagoa; medio batzu jarri ondoren, epe batetan ikas daiteke, eta jendeak ikasten du eta ez dira gizon arraroak, arruntak baizik: enplegatu, langile, ikasle,...

Baina, badago arriskurik, medio faltaz beste asko euskara ikasten saiatu arren, eta beren progresioa eskasa irudituz, euskara bertan behera uzteko.

Esan dugun guztiagatik eta egunero burruka honetan ari garelako, badakigu zer beharko genukeen.

1. — Euskalduntze Alfabetatze Mugimendua erakunde autonomo sendo bat bihurtu.
2. — Bere lana aurrera eramaten seriotasuna. Eraketa, klaseen antolaketa, programaketa etabar.
3. — Oinarrizko euskara jatorra finkatu.
4. — Irakaslegoaren prestakuntza.

Gauza hauen atzetik gabiltza, ari gara pausoak ematen. Euskaltzaindiaren barnean gaude autonomia osoz, berak V. UEU garaian eginiko batzarrean onharturiko barne erregela bereziek diotenez. (1. art. Alfabetatze Euskalduntze Batzordea Euskaltzaindiaren batzordeetarik bat da, jagon sailekoa).

1976-77ko kurtsotik, badago Euskal Herri mailan mugimendu honetan gabiltzanok biltzen gaituen koordinakunde bat, eta, esan bezala, lehen urratsak ematen ari gara: fitxa berdina denontzat, propaganda berdina, metodo berriak promoziotu, irakaslegoaren prestakuntzaz arduratu.

Badakigu hori ez dela aski, aipaturiko lau puntu horiek askoz gehiago exijitzen dutela ere bai. Baina horretarako koordinaketa mailak jaso egin behar dira eta arazo honek, Euskal Herriarentzat hil ala biziko denak, planifikazio bat behar du, profesionalak, medioak eta... dirua. Eta beste gauza batzutarako ez bezala, Euskal kulturarako dirua bilatzea, oilarrak arrautza egitea baino zailagoa da.

Hala ere gure Herriak pasatu du trantze txarragorik eta guk ez dugu etsiko Euskal Herriaren izena eta izatea bat egin arte.

¹ Izenari buruz bi hitz. Nik *Alfabetatze Euskalduntze Mugimendua* (a) deitzen diot, Herri mugimendua delako, hain zuzen. *Mugimendua Koordinaturik* (b) dago eta Koordinakunde hau *batzorde* (c) batzuren bidez lortzen da. Hala ere, erabili dira beste izen batzu. Gipuzkoan eta

Nafarroan haren eraginez *Gau eskolak*, Bizkaian *Alfabetatze Kanpainak*, *Alfabetatze Euskalduntze Kanpainak*... Orain beste batzu entzuten dira *Euskal eskolak*, *Euskaltegiak* (d).

Terminologia bat proposatzekotan honela egingo nuke:

- «Alfabetatze Euskalduntze Mugimendua».
- «Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea».
- «Alfabetatze Euskalduntze Batzordeak».
- «Euskaltegi» edo «Euskal eskola», tokia adierazteko.

² Gero aipatzen den bezala, kurtso honetarako fitxa bat bakarra egin da Euskal Herri osorako.

³ *Goi maila*: industrigizon, artisau, merkatari, profesio liberalak. *Erdi maila*: Erdiko koadroak, enplegatuak. *Langile maila*: Langile kalifikatuak, eta ezkalifikatuak.

P. M. L.

Kepa Etxeberria-ri Euskal Unibertsitateaz

Azkenengo **Jakin** aldizkarian, 2 (1977), «Gutunak» atalean zurea irakurri dut eta ene izena aipatzen duzunez gero lerro batzuk egiten dizkizut zenbait gauza oker uler daitezkeenak argitzeko eta bide batez gogora datozkidan zenbait uste ta eritzi eneganik kanporatzeko.

1. Endrike Knörr-i ematen diozu arrazoia UEU-aren aurrehistoriaz duen eritziagatik eta ez eni, diozunez. Aho bete aginekin utzi nauzu eta ene bu-ruari jira eta bira eginarren ez dut sumatzen nola izan dezakedan arrazoi faltarik nik neuk arakatu eta ikutu ez dudan gai batean. Eta ez dut uste me-morioa galdu dudarik. Gauzak erdi ipurdika esaten direnean halako mira-kuluak gertatzen dira gure artean eta txarrena da lasai eta trankil gelditzen dela jendea.

2. **Berriak** aldizkariaren ezein numerotan ez dut hitz bakarra bera ere izkribatu horretaz, zuk diozun bezala. Behin, 1976-garreneko azaroaren 4-eko-an, n.º 8, elkar hizketa egin zidaten eta izkribuz eman nituen erantzunak. Gaia Deustuko Unibertsitatean sortu den Euskal Filologiaren espezialitatea zen —horretaz oraingo egoera oso osoan lehen kursotik hasirik espezialitatea egitea da eta beste espezialitatearen mende egon gabe—. Batez ere erdia baino gehiago Euskal Unibertsitate sortu nahi litzatekeenaz erantzunak eman-ik dago eta behin eta berriz ikusmiratuarren ez dut zuk diozunik aurkitu. Han Euskal Herriari bere zentzurik zabalenean eta sakonenean inolako oz-toporik gabe zerbitzu egingo dion Euskal Unibertsitate egiazko baten hel-buruaz mintzatzen nintzen. Oñatin saiatu zen eta aspaldi trankatu zuten Unibertsitateaz. Gerra denboran Autonomia Estatutoaz baliaturik Bilbon egin zen Medizina Fakultatearen esperientziak. Bilboko gerra ondoko agintarien eritziaz Unibertsitatea bertan ez zabaltzearen alde. Deustukoan tituluak ematen hasi ziren garaiaz —oraintsurarte ez baitziren ematen bertan, Va-lladolid-en esamina guztiak iraganik baino— barbastrotarraren seme han-dikiak Iruñean sortu zutenaren ondoan. Halako batean Estatuak Bilbon Uni-berstitatea sortzeaz. Eta abar.

3. Zuk diozuna **Sorterriaren alde** ene liburuko frase batetik hartu behar

izan duzu nahi ta nahi ez eta hartu ere kontestotik kanpora zeure interpretazio berezia emanik'. Ez dut uste inola ere, gainera, han esaten dena UEU-az arakatzeko lan bat denik. Han marxismoaz gure artean ezagutu ahal izan ditudan hitaldi eta saioez zerbait esan nahi nuen eta esan ere hala egin nuen. Eta horretaz zenbait gauza azaldu ondoan Roman Garate jesuita elgoibartarrari hainbat egunetan zehatz eta mehatz adierazirik entzun nionaren berri eman behar nuenean, nola egingo nuen bestek —ez nik— emanikako Unibertsitate izena aipatu gabe?'. Edo eta gutxiagotzat hartu behar dena —hartu behar baldin bada— edo gorroto dena ez dela esistitzen pentsatu behar ote dugu? Saio haiek lehen aldiz prestatu zirenean izan zela diot han, eta ez bigarren aldiz eta abar egin zirenean. Nik neuk ere parte hartu nuen irakasleen artean, liburuan ezer ez badiot ere, eta han agertu eta ari izan ziren Aita Altuna, L. Mitxelena, Joxemiel Barandiaran, Aita Joseba Intxausti, Donato Unanue eta Larramendi Debakoa ere bederen. Segidakoa Duo-k eta bere gisara egin zuten eta guk ez dugu horretan ezer ikustekorik eta horretaz dudan eritzirik ere ez dut azaldu eta ez dut uste merezi ere duenik. Hurrengo urtean Donibane Lohitzuneko prestatu zen eta eni ere hara deitu zidaten eta harrezkero urteoro izan naiz haien ondo-koetan. Hara agertu ziren L. Mitxelena eta Joxemiel Barandiaran ere. Gauzak hala dira.

4. Jakina, aipatzen dituzun Baionako Aste haien kontra nik neuk ez dut deus ere eta gainera han parte hartu zutenen artekoak gizon jakintsu izateaz gainera adiskide onak ditut. Uste izan dezakezunez ondo ikusi izan ditut beti euskal kulturaren alde egin diren saio guztiak, nahiz xume izan, nahiz handi. Edozein modutan ere nik neuk ez nuen han izateko fortunarik izan, baina ondo ikusten dut zure zoriona han gertatu zinelako, hala baitirudi. Haiek izan zirela UEU-aren aurrehistoria? Hala uste baduzu ni ez noa ezetzik esatera. Baina euskal kulturaren problemak, ordea, gehiago dira benetan hartzekoak halako huskerietan erortzekoak baino, eta Euskal Unibertsitate egiazkorik, eta ez udako egun batzuetan bilduko gaituena bakarrik, eraiki nahi baldin badugu, ukondoak mahainaren kontra ordu asko eta askotan sakaturik izan beharko du, beste gauza batzuen artean, eta beharrezko lan hori maiz besteek ez dute ikusten. Halabaina Euskal Unibertsitatearen aurrehistoria inon egotekotan Euskal Herriaren iturburuan eta handik datozen erreka-hibaietan dago. Ez uste izan gure aurrekoak azken denborotan ezer egin gabe egon direnik, askozaz gehiago behar bagenduen ere. Zenbait oinharri lehendik ipinia dago. Edo eta 1936-garren urtean jasan genduen gerra bortitzaren ondoko hainbat urte geraogorarte aurrehistoriako paleolitikoan bizirik izan ote gara? Nolanahi dela ere ni haurra nintzen gerra hasi zenean, baina ordurako jende asko ari izan zen eta bidea zabaldu ziguten.

5. Edozein modutan ere Euskal Unibertsitatea ez du egiten hitz bi horiek gogora dakarkiotena, besterik gabe, hitza dariola hasten denak. Ez dut esan nahi horrela giro politikorik ezin sor dezakeenik haren alde, baina Unibertsitatea zerbait gehiago da ene ustez eta berez ez dute politikoek egiten joko politikoan ari diren alderditik. Halako inork egiten baldin badu beste alderditik egiten du eta alderdi horretan ofizioz politiko direnak bakarrik ez daude. Batez ere ofizioz hori ez direnak daude, eritzi politikoak badituzte ere eta eritzi horien eraginak nolabait zeharka frutua eman badezakete ere Herriaren historian. Edo eta Unibertsitatea zer den oro ez ote gatzoz bat? Ene ustez, oraindik balio dezakeen eritzi zahar baten arauera, beste alderditik egiten du eta alderdi horretan ofizioz politiko direnak maisu eta dizipuluen elkarteak da jakiteak atxikitzeko. Jakiteok bai batzuk eta

bai besteek atxiki behar dituzte. Eta ez dut aipatzen adin konturik, zeren berezkoa baita pentsatzea ez dela haurren elkarte, haziena baino. Jakitea, ordea, ez du inork hitza dariola hasirik atxikitzen, hitzontzi baten erara. Atxiki ondoan hitzez edo izkribuz adierazi egin daiteke eta elkartekoak kutsatu haiek ere atxikidura berriak egin ahal izan ditzaten, bakoitzak bere burua diziplina baten azpian ipinirik. Beharrezkoak gertatzen badira ere edifizioek ez dute berez egiten Unibertsitatea elkarteari giro bat ematen badiote ere urbanismoak sortzen duen eragina dela medio. Oñatikoaren edifizio ederra zutik dago, baina han ez dago Unibertsitaterik egun. Baliteke norbaitek baratzean kalabazak erein nahiago izatea, hori ere kultura baita, ortukultura. Baina horrela kalabazak bakarrik atxikiko lituzke, bai Oñatin edo Bergaran eta bai Moskun edo Pekinen, eta bazterretan badago jateko baliotsuagorik. Bide horretatik gure herriak ez luke zorion askorik banatu ahal izango bertako seme-alaben artean, kalabazak ere jateko balio izanarren eta goseak hilik dagoenarentzat besterik ezean gauza hoberik ez egon.

Badakizu non nauzun nahi duzunerako. Bihotzez,

Alfonso Irigoyen

¹ Donostia, 1976, 72 orr.

² Zehatzago esateko Deustuko Departamentuan dugun **Zeruko Argia**-ra jo dut, gogoan argi ez baintuen, eta «Udako ikastaro unibertsitarioa» izenaren azpian dator behin eta bigarren aldiz «Udako ikastaro unibertsitaria». Ikus 492 (1972 abuztuak 6) eta 497 (1972 irailak 10).

1956aren udazkenean agertu zen lehen-dabizikoz **Jakin** aldizkaria. Gerraosteko belaunaldiaren lehen kultur langintza autonomoa izan da. Hizkuntza trebatzea eta kultura berria sortzea ziren haren asmorik behinenak.

Handik 20 urtetara birsortzen da **Jakin**, traba guztien gainera, bi aldiz geldituarazia, azkenekoa zazpi urtetan, izan ondoren.

Garaian garaikoa izan da **Jakin**: gaur, gaurkoa. Etorkizunaren alde jokatu du beti.

Euskal Herriaren kultur aldizkaria izan nahi du **Jakin**-ek.

JAKIN

aldizkaria • Cuartel, 2 • Tolosa (Gipuzkoa) • tel. 65 11 06

Urteko suskripzioa: 500 pta. Alea: 175 pta.